

# *Gertatutako guztia argitan jarri*


**Emakumeen giza eskubideen urraketak  
Mendebaldeko Sahara okupatuan  
(1975-2021)**





# *Gertatutako guztia argitan jarri*

**Emakumeen giza eskubideen urraketak  
Mendebaldeko Sahara okupatuan  
(1975-2021)**



Argitalpen hau *La verdad se abre paso: investigación e incidencia ante las violaciones de derechos humanos en el Sáhara Occidental. Visibilizando la situación específica de las mujeres saharauis. 2020-2021* (Egiak aurrera egiten du: ikerketa eta eragina Mendebaldeko Sahara okupatuko giza eskubideen urraketan aurrean. Emakume sahararren egoera espezifiko bistaratuz. 2020-2021) proiektuaren esparruan egin da eta Euskal FONDIA-Tokiko Euskal Erakunde Kooperanteen Elkartearen finantzazioa izan du.



Aieteko Jauregia. Aiete Pasealekua, 65-2  
20009 Donostia-San Sebastián  
[www.euskalfondia.org](http://www.euskalfondia.org)

Argitaratzen dute:



[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao  
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU. Carlos Santamaria Zentroa  
Elhuyar Plaza, 2 • 20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko liburutegia  
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel./Faxa: 945 01 42 87

*Gertatutako guztia argitan jarri. Emakumeen giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Sahara okupatuan (1975-2021)*

Egileak:

**Hegoako taldea:** Irantzu Mendia Azkue (koord.), Gloria Guzmán Orellana, Tatiana Montenegro Garay.

**Mendebaldeko Sahara okupatuko taldea:** El Ghalia Djimi, Mina Baali, Salha Boutanguiza, Salka Leili, Nassra Dah.

**Itzulpen taldea:** F.S.B, Bachir Lehdad, Fatma Galia Mohamed Salem, Merhba Seyidi, Bachir M. Rayaa.

**Laguntza informatikoa:** Juan Bedialauneta.

**Euskarazko itzulpena:** Iñigo Gallastegi

2022

Azalaren diseinua eta ilustrazioak: Sergio Daneri M. Guzmán.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Impresión: Printheus

Lege Gordailua: BI-00801-2022

ISBN: 978-84-16257-88-1



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia. Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri.

# Aurkibidea

1. Sarrera .....	5
2. Elkarrizketatuen profila .....	13
3. Dokumentatutako giza eskubideen urraketak .....	19
3.1. Bizitzeko eskubidearen urraketak .....	22
3.2. Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriak .....	26
3.3. Sexu-indarkeria .....	37
3.4. Askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketak .....	44
3.5. Lekualdatze behartua .....	52
3.6. Ekonomia- eta lan-eskubideen urraketa .....	53
3.7. Eskubide sozialen urraketa: osasuna eta hezkuntza .....	57
3.8. Eskubide kulturalen urraketa .....	63
4. Giza eskubideen urraketen erantzuleak .....	69
5. Giza eskubideen urraketek eragindako ondorioak .....	75
5.1. Ondorio fisikoak .....	77
5.2. Ondorio psikologiko eta emozionalak .....	81
5.3. Ondorio familiar eta sozio-ekonomikoak .....	84
6. Indarkeriari aurre egiteko moduak .....	89
7. Biktimen justiziarako sarbidea .....	95
8. Erreparazio-eskaerak .....	101
9. Ikerketaren emaitzen laburpena .....	109
Eranskinak. Elkarrizketaren fitxa eta gidoia .....	118

## Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Biktimen adina	15
2. grafikoa.	Biktimen ikasketa-maila	16
3. grafikoa.	Biktimen diru-sarrerak	17
4. grafikoa.	Dokumentatutako giza eskubideen urraketa motak	21
5. grafikoa.	Giza eskubideen urraketa kopurua biktima bakoitzeko	22
6. grafikoa.	Tortura fisikoa	27
7. grafikoa.	Tortura psikologikoa	34
8. grafikoa.	Sexu-indarkeria	38
9. grafikoa.	Sexu-indarkeriaren biktimen adin-tartea	39
10. grafikoa.	Sexu-indarkeriako egitateen aldiak	39
11. grafikoa.	Askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketak	45
12. grafikoa.	Ekonomia- eta lan-eskubideen urraketak	52
13. grafikoa.	Violaciones de los derechos económicos y laborales	54
14. grafikoa.	Eskubide sozialen urraketak	57
15. grafikoa.	Eskubide kulturalen urraketak	64
16. grafikoa.	Giza eskubideen urraketan erantzuleak	71
17. grafikoa.	Ondorio fisikoak	77
18. grafikoa.	Ondorio psikologikoak eta emozionalak	81
19. grafikoa.	Ondorio familiarrak eta sozio-ekonomikoak	85
20. grafikoa.	Indarkeriari aurre egiteko moduak	91
21. grafikoa.	Haien kasua salatu duten biktimak	97
22. grafikoa.	Kasuen salaketa-instantziak	98
23. grafikoa.	Erreparazio-eskaerak	103

1. Sarrera



*Gerra bizi izan nuen, urte askoz desagertzearen eta torturaren biktima izan nintzen, gero su-etenaren urteak bizi izan nituen eta, orain, berriro gerra.*

*Ez dut inolako aldaketarik ikusten Marokoko erregimenean;  
gaur egun, modu berriak ditu gure herria hiltzeko, kalean torturatzeko,  
gure gazteak espetxeratzeko arrazoiak aurkitzeko.  
Gure herriak egunero pairatzen dituen jazarpenak  
XXI. mendeko estatu-terrorismoaren emaitza dira.*



Txosten hau Marokok Mendebaldeko Sahara okupatuan 1975etik 2021era bitartean emakumeen aurka egindako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketaren emaitza da. Hau da, saharar lurraldea modu zibil eta militarrean okupatu zenetik gaur arte. Lurralde Okupatuko Emakume Sahararren Gunea (LOESG) osatzen duten emakume defendatzaile sahararren eta Hegoa Institutuaren arteko lankidetzaren bitartez burutu da ikerketa. Gainera, Euskal Fondoa–Tokiko Euskal Erakunde Kooperanteen Elkartearen laguntza izan du.

Bestalde, ikerketa honen aurretik Hegoa Institutuak gaiari buruzko beste bi lan egin zituen. Alde batetik, 2012an argitaratutako *El Oasis de la Memoria. Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental*<sup>1</sup>, (Memoriaren Oasia. Memoria historikoa eta Giza Eskubideen urraketak Mendebaldeko Saharan) ikerketa dugu. Bertan, 261 gizon eta emakume sahararren lekukotzak jaso ziren, Aljeriako Tinduf eskualdeko errefuxiatuen kanpamentuetan eta lurralde okupatuetan. Beste alde batetik, 2016an argitaratutako *En tierra ocupada. Memoria y resistencia de las mujeres en el Sáhara Occidental*<sup>2</sup> (Lurralde okupatuan. Emakumeen memoria eta erresistentzia Mendebaldeko Saharan) ikerketa dago. Hura, emakume aktibista politikoekin Aaiun okupatuan egindako talde fokalen eraketan oinarritzen da.

Lan bi horiek ezagutza eta ikasketa oinarri garrantzitsua osatu zuten honako ikerketa hau diseinatzeko. Ikerketak, bada, izaera kuantitatiboa eta kualitatiboa du eta Mendebaldeko Sahara okupatuko emakumeen giza eskubideen

- 
- 1 Martín Beristain, Carlos eta Eloísa González Hidalgo (2012). *El Oasis de la Memoria. Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental*. I eta II liburukiak. Hegoa Institutua. Bilbo. <https://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/281>. Ikerketa hau oinarri bat izan zen beste txosten bazuk egiteko, hala nola, desagertze behartuari edo biztanle zibilen bonbardaketari buruzkoak.
  - 2 Mendia Azkue, Irantzu eta Gloria Guzmán Orellana (2016). *En tierra ocupada. Memoria y resistencia de las mujeres en el Sáhara Occidental*. Hegoa Institutua, Bilbo. <https://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/348>.

urraketak hartzen ditu hizpide. Gainera, balio erantsi gisa, ikerketa Aaiunen kokatutako emakume saharar talde baten eta Hegoa Institutuaren arteko lankidetzaren bitartez egin da.

Marokoren okupazioaren testuinguruan emakumeen eskubideen urraketak modu fokalizatuan dokumentatzea funtsezkoa da nazioartean salaketa eta justizia eskatzeko lanari euskarria emango dioten tresna zehatz eta eguneratuak izateko. Lan hau aurrera atera da saharar taldearen erabakitasunari eta konpromisoari esker; izan ere, berez zaila den marokoar okupazioaren testuinguruan eta gainera pandemia betean lan egiteaz gain, Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko su-etenaren haustea ere gainditu behar izan du ikerketak. Su-etenak, bada, Marokoren errepresioa larriagotu zuen lurralde okupatuetao saharar herritarren aurka eta, batez ere, giza eskubideen erakunde sahararretan dabilzan lagunuen aurka.

Metodologiari dagokionez, ikerketa hau Marokoren eskutik giza eskubideen urraketa baten edo gehiagoren biktima zuzen izandako 81 emakume sahararren testigantzan oinarritzen da. Haien lekukotzak jasotzeko elkarrizketa sakonak eta galdetegiak egin dira eta salatutako urraketei dagokien dokumentazio gehigarria bildu da.

Egindako lanak honako eginkizun hauek hartu ditu barne: 1) Hegoako taldeak ikerketaren planteamendu metodologikoa egin zuen, talde saharararekin kontrastatuz; 2) talde biek batera landa lanerako tresna kuantitatibo eta kualitatiboak sortu eta dokumentazio-etapen kronograma osatu zuten; 3) prestakuntza egin zen ikertzaile sahararren taldearekin, non genero ikuspegia erabiliz giza eskubideen arloko ikerketari, landa-lanerako tresnen balioztatzeari eta lekukotzak hartzeko jarraibideei buruzko edukiak sortu ziren; 4) talde sahararrak berak dokumentazio lana egin zuen Hegoako taldearen laguntzarekin horren jarraipenean; 5) lekukotza guztien eta kasu-fitxen transkripzioa eta itzulpena; 6) informazioaren arazketa eta ikerketarako berariaz sortutako Excel datu-basean irauli zen; 7) datuen lanketa kuantitatiboa; 8) lekukotzen lanketa kualitatiboa (600 orrialde baino gehiago), eta 9) txostena idaztea.

<b>Fitxa teknikoa</b> <b>Marokok saharar emakumeen aurka egindako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa</b>	
Helburu orokorra	Marokok Mendebaldeko Sahara okupatuan emakume sahararren aurka egindako giza eskubideen urraketak aztertzea.
Helburu espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskubideen urraketaren biktima diren emakume sahararren profil orokorra ezagutzea.</li> <li>- Emakumeen eskubideen urraketaren gertaera eta ezaugarriak ezagutzea, baita horren erantzuleak ere.</li> <li>- Indarkeriak emakumeen bizitzan eragindako ondorioak edo inpaktuak ezagutzea.</li> <li>- Pairatutako indarkeriaren aurrean emakumeek aurrera egiteko izan dituzten estrategiak ezagutzea.</li> <li>- Emakumeek justiziara duten sarbide-maila ezagutzea (salaketak, egindako ikerketak, jasotako erantzunak).</li> <li>- Emakumeek erreparazioaren eta ez errepikatzeko bermeen inguruan dituzten eskaerak ezagutzea.</li> </ul>
Unibertsoa	Marokoren eskutik giza eskubideen urraketak pairatu dituzten lurralde okupatuko emakume sahararrak.
Laginketa metodoa	Laginketa ez-probabilistikoa: elur bolaren bidezko laginketa-modua.
Lagina	Laginaren tamaina: N = 81 elkarrizketa eta galdetegi.
Lagina hartzeko lekua	Aaiun, Mendebaldeko Saharako hiriburua, Marokok okupatua.
Informazioa biltzeko aldia	2020ko iraila – 2021eko urtarrila.
Informazioa biltzeko tresnak	Elkarrizketa-fitxa eta gidoia (1. eranskina. Elkarrizketa-fitxa) (2. eranskina. Elkarrizketaren gidoia)

Prozesatutako informazio estatistikoa ikerketa-talde sahararrak egindako 81 elkarrizketetan oinarritzen da. Elkarrizketa horietatik beste horrenbeste elkarrizketa-fitxa sortu ziren. Elkarrizketa bakoitza grabatua, transkribatua eta hassaniatik gaztelaniara itzulia izan da, eta batzuen kasuan elkarrizketatutako emakumeek emandako dokumentazio gehigarria dago (hala nola, egindako salaketak, argazkiak eta bideoak). 81 kasuetatik, 77 emakumek biktima zuten gisa eman zuten lekukotza, eta lauk biktimen senide gisa.

Elkarrizketatutako emakumeen profilari buruzko oinarritzko datuez gain, elkarrizketatzaileek giza eskubideen urraketan tipologia honi buruzko informazioa bildu zuten: bizitzeko eskubidea, tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriak, sexu-indarkeria, askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketak, lekualdatze behartua eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak (EGKE). Tipologia zabala da, Mendebaldeko Sahara okupatuan emakumeen giza eskubideen egoerari buruzko ezagutza ahalik eta zehatzena lortzeko. Halaber, indarkeriaren erantzuleei buruzko datuak ere bildu ziren eta, haren ondorio edo inpaktuak ez ezik, emakumeek indarkeriari aurre egiteko eta suspertzeko dituzten estrategiak ere dokumentatu ziren. Ikerketaren beste helburu bat elkarrizketatutako emakumeek justiziarako duten sarbide-maila ezagutzea da, baita hauen erreparazio eta berriz ez gertatzeko berme eskaerak ere.

Saharar elkarrizketatzaileek kontu handiz eta errespetuz bildu zituzten lekukotza guztiak eta entzute aktiboko lana egin dute, eskarmentu izugarriak, oinaze itzelak eta zauri sakonak jasoz. Elkarrizketatutako lagun guztiei baimen informatua, idatzia eta sinatua eskatu zitzairen. Emakumeen % 99k bere identitatea ezagutzera emateko baimena eman zuen baina ikerketa taldeak, azkenean, lekukotzak aipatzean izen propioen ordez kodeak erabiltzea erabaki zuen, zuhurtzia printzipioa aplikatuz. Izan ere, Marokoko erregimenak inpunitate osoz zigortzen ditu Mendebaldeko Sahara okupatuan<sup>3</sup> indarkeria salatzen eta autodeterminazioa eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak. Halaber, eta arrazoi beragatik, txosten honetan aipatutako giza eskubideen urraketan erantzuleen izenak ere ez aipatzea erabaki zuen ikerketa taldeak.

---

3 Emakumeen identitatea txosten honetan sartutako zenbait argazkitan soilik agertzen da. Argazkiak emakumeek eurek eman dituzte lekukotzarekin batera eta pairatutako indarkeria bistaratzeko asmoz.

Txosten honek datu kuantitatiboak aurkezten ditu, Marokok emakume sahararren aurka erabilitako indarkeriaren maiztasuna erakusteko eta haren patroiak identifikatzeko ekarpen gehigarri gisa. Aurkipen kuantitatiboak elkarrizketa sakonen bitartez lortutako informazio kualitatiboarekin uztartzen da, indarkeria egitateen larritasuna erakusten laguntzen duten lekukotzak gehituz. Lekukotzek, beraz, emakumeek kontatutako esperientzien lazgarrikeria ezagutzeko aukera ematen digute.

Txosten honen izaera dela eta, ezinezkoa da ikerketan bildutako lekukotza guztien erreferentziak sartzea. Hortaz, horiek berrikusi ondoren, Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharan bizi diren emakume sahararren esperientzia komuna hobekien adierazten duten lekukotza horiek aukeratu ditugu. Batez ere, Marokoren okupazioaren salaketan modu aktiboan aritzen direnen esperientzia. Nolanahi ere, bildutako informazio ugaria saharar herriaren memoriaren artxibo bizien parte da dagoeneko eta balio handiko iturria da ikerketa berriak egiteko.



## 2. Elkarrizketatuen profila








Ikerketan honetan lekukotza eman duten ia emakume guztiak Marokok Mendebaldeko Sahara okupatua egindako giza eskubideen urraketen biktime zuzenak izan dira. Gainera, horietako hiruk hildako edo desagertutako emakumeen senide gisa hitz egin dute eta batek adinez txikiko neska biktimizatu baten ama gisa.


Lekukotza eman duten emakume saharar gehienek (% 58) Aaiun hirian jaio dira. Gainontzekoak beste leku batzuetan, hala nola Tan-Tan, Gleimim, Bojador, Hagunia, Saguia El Hamra, Smara, Akka, Bir Enzaran, Echdeiria, Gdeim Izik, Ifni, Echraifia, Ourzazat eta Agadiren. Ia guztiak Aaiunen bizi dira gaur egun, horietako asko (% 38) Zemla auzoan, eta gainontzekoak hiriko beste auzo eta barrutia batzuetan.

Ikerketa honetan agertzen diren emakumeen adina 12tik 73ra bitartekoa da. Adin tartea hain handia izateak, bada, emakume sahararren oinaze izugarria erakusten du, hura belaunaldiz belaunaldi luzatu baita gaur arte. Elkarrizketaren unean, emakume gehienek (% 72) 40tik 69ra bitarteko adinak zituzten; % 9k 29 urte baino gutxiago zituzten eta % 10k 70 urte baino gehiago. Indarkeria egitateak hainbat unetan pairatu dituzte, umeak zirenean ere.




Haien egoera zibilari dagokionez, % 43 ezkontuta daude, % 21 ezkongabe, % 20 alargun eta % 16 dibortziatuta daude. Horietako gehienek, % 73k, alegia, seme-alabak dituzte.

Haien ikasketa-mailari dagokionez, emakume gehienek (% 28) ez dute ikasketa formalik. Ikasketak dituztenen artean, % 17k lehen hezkuntzako ikasketak egin dituzte, % 17k bigarren hezkuntzako ikasketak, % 11k batxilergo-ikasketak dituzte, % 14k unibertsitate-ikasketak eta % 9k Eskola Koranikoan ikasi dute. Datu hauek erakusten dutenez, emakumeek mugatuta dute haien hezkuntza-eskubidea. Horren kausak, gero ikusiko dugunez, okupazio militarretik zuzenean eratorritzen dira.



Beste datu bat ere erregistratu da, emakumeen diru-sarrerara mailak, alegia. Horren helburua Mendebaldeko Sahara okupatuan dituzten bizi-baldintza materialak hobeto ezagutzea da. Elkarrizketatutako 81 emakumeetatik, % 59k ez dute inolako diru-sarrerarik hilean, % 11k 150 eurora arteko diru-sarrerak dituzte, % 12k 151 eta 200 euro artekoak eta % 10k bakarrik dituzte 200 eurotik gorakoak. Emaitzak, beraz, oso erakusgarriak dira eta egoera ekonomiko larria erakusten dute.



Gainera, deigarria da diru-sarrerarik gabeko emakume gehienek Bigarren Hezkuntzako ikasketak (% 86) eta unibertsitate-ikasketak (% 73) dituztela. Hau da, pentsa dezakegunaren aurka, ikasketa maila altuagoak izateak ez dizkie lan-aukera edo diru-sarrera handiagoak ekartzen Mendebaldeko Sahara okupatuko emakume sahararrei. Berriz ere, datu horiek emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketek ekarritako ondorioekin lotuta daude, ikusiko dugun bezala.

Azkenik, giza eskubideen urraketen biktima diren emakume sahararren karakterizazio orokorra egitea ahalbidetzen diguten oinarrizko datuen parte bezala, emakumeek erakundeetan duten parte hartzea dugu. Arlo horretan, erdiak baino gehiagok (% 59k) saharar herriaren eskubideen aldeko mugimenduko erakunderen batean parte hartzen dute. Kolektibo espezifiko batean aktiboki parte hartzen ez duten horien artean, askok diote horrek ez duela esan nahi haien eskubideen aldeko aktibistak ez direnik. Izan ere, ikerketa honetan lekukotza emateko prest egotea horren erakusgarri da.

Lekukotza eman duten emakume guztiek giza eskubideen defendatzaile profil bat dute, Nazio Batuen Erakundeak 1998ko *Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeko eta babesteko duten eskubideari eta betebeharrari buruzko*


*adierazpenean* adierazitakoaren arabera. Adierazpen hori *Giza eskubideen defendatzaileei buruzko deklarazio* bezala ere ezagutzen da eta, bertan adierazten denez, defendatzaileek “eskubide zibil eta politikoak sustatzeko eta babesteko eta ekonomia, gizarte eta kultura eskubideak susta, babes eta erabil daitezten lortzeko” lan egiten dute. Horrek hainbat problematika hartzen ditu, hala nola “bizitzeko eskubidea, elikadura eta ura, osasun-maila ahalik eta altuena, etxebizitza egokia, izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubideak, hezkuntza, zirkulatzeko askatasuna eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea”. Ikerketak herri bezala dituzten eskubideak defendatzeagatik Marokoko erregimenaren errepresioa pairatzen duten emakume sahararren esperientzia erakusten du.

### 3. Dokumentatutako giza eskubideen urraketak






Emakume sahararrek era guztietako giza eskubideen urraketak pairatu dituzte. Ikerketan aurkitu den bezala, honako hauek dira gehien eman direnak: askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketak (% 91), eskubide kulturalen urraketak (% 91), tortura fisikoa (% 90), tortura psikologikoa (% 90) eta bizitzeko eskubidearen urraketa (% 89). Horien atzetik, eskubide sozialen urraketa (% 75), sexu-indarkeria (% 68), eskubide ekonomikoaren urraketa (% 53) eta lekualdatze behartua (% 27). Batez beste, emakume sahararrek, beren bizitzan zehar, giza eskubideen 6,7 urraketa pairatu dituzte eta gehienek 7 eta 9 bitartean aipatzen dituzte.



5. grafikoa. Giza eskubideen urraketa kopurua biktima bakoitzeko (N = 81)



### 3.1. Bizitzeko eskubidearen urraketak

Emakume sahararren % 89k bizitzeko eskubidearen aurkako erasoak aipatzen dituzte, biktima zuzen eta zeharkako biktima gisa. Biktima zuzen diren kasuetan, egitate gehienak tortura delituei eta askatasun eta segurtasun pertsonalaren aurkako erasoek dagozkie. Horiek aurrerago ikusiko ditugu. Zeharkako biktimari dagokienez, lekukotzetan dioten bezala, emakume horiek senideen edo ezagunen **judizioz kanpoko exekuzioak** ikusi dituzte, horietako batzuk atxiloketa-zentro klandestinoetan<sup>4</sup> eta beste batzuk beste egoera batzuetan.

4 Elkarrizketatutako emakumeek askotan aipatzen dituzte, horien artean ditugu: PCCMIa (Aaiun), hau da, Esku-hartzeko Konpainia Mugikorren Aginte Postua, Espainiako armadaren kuarter ohia, Marokok atxiloketa-zentro klandestino gisa erabilia; BIRa (Aaiun), Esku-hartze Arineko Batailoi, Marokok atxilotutako/desagertutako pertsonak mugitzeko erabilitako atxiloketa-zentro klandestino; Kalaat Maguna (Maroko), Frantziako armadak 1927an eraikitako El Glaioui gotorlekuan kokatutako atxiloketa-zentroa; eta Agdez (Maroko), gutxienez 200 gizon eta emakume saharar hartu dituen atxiloketa-zentro klandestino. Gertakari hauen eta Marokoko beste atxiloketa-zentro batzuen inguruko informazio gehiago lortzeko ikusi Hegoa Institutuak egindako *Mapa de Derechos Humanos del Sáhara Occidental* (Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Mapa), hemen: [https://www.hegoa.ehu.eus/mapa\\_sahara/presentacion.html](https://www.hegoa.ehu.eus/mapa_sahara/presentacion.html).



*Kartzelan heriotza motel batera kondenatu gintuzten. Pixkanaka gaixotuz hiltzen zara, odol-zirkulazioko arazoekin hasten zara, gero artikulazioak uzkurtu egiten zaizkizu eta pixkanaka mugitzeari uzten diozu, koleraren antzeko zerbaitekin hasten zara eta gero hil egiten zara. 27 lagun galdu genituen Agdezen... Kartzelan gaixotzen zarenean, hamar egun nahikoa dira hiltzeko. Bakarrik jo genezakeen atea heriotza baten berri emateko, beste ezertarako ez. Hori da Naajari gertatutakoa, zaindariari deitzeko eskatu zidan, mina kentzeko botika bat ekar ziezaion, egin nuenean, zaindariak iraindu ninduen eta berriro sartzeko esan zidan. Naaja hurrengo gauean hil zen. Agdezen, tratua izugarria zen, sahararrok espetxe horretan jasan duguna azaltzeko hitzik ez dago. Hildako baten berri ematen genuenean etortzen ziren eta bizkarra husten zioten hilda zegoela ziurtatzeko. Dena zen bizitzaren aurkako irain bat, oinarrizko giza eskubideen aurkako iraina. (027)*

*Nire bila etorri ziren, lo nengoen eta haur txikia nuen, urte bat eta 11 hilabetekoa. Begiak estali zizkidaten eta PCCMira eraman ninduten. Heldu ginenean harritu nintzen bertan nire osaba-izeba eta lehengusu-lehengusinak zeudelako. Familia bereko sei lagun ginen eta guztiak torturatu gintuzten. Osabarekin hasi eta gero beste guztiok. Gero hondartzan dagoen BIRera eraman gintuzten, torturatzaileen gotorlekura, eta hori infernua izan zen. Lehengusua torturaz hil egin zuten. Ahotik eta sudurretik odola botatzen ikusi nuen... oso latza izan zen bere garrasiak eta aieneak entzutea, oso gogorra, hil egin zen arte... Atea zabaldu eta poliziek atera zuten. Zuzenean ikusi nuan nola joan zen pixkanaka iraungitzen. (059)*

*16 urte nituenean ama hil zuten. Bera erizaina zen eta borroka iraultzailean parte hartzen zuen. Askotan mehatxatu zuten, borrokatzeari uzteko esaten zioten, bestela ondorioak izango zituela. Atxilotu eta gobernuaren egoitza ohira eraman zuten, goizetik gauera arte egon zen bertan, gure aitaordeak bertatik atera zuen arte. Bi edo hiru hilabete geroago, amari buruko min handia hasi zitzaion, ospitalera eraman nuen eta zera esan zidan, “alaba, ez nazazu ospitalean lo egiten utzi inola ere”. Ospitalean injekzio bat jarri zioten, gorri eta beltz arteko kolorekoa. Injekzioa jarri bezain laster amari gorputza handitzen hasi zitzaion. Injekzioa jarri zion gizonak ohean etzateko esan zion amari. Merkatura joan nintzen amarentzat zukua eta zopa eroatera eta itzuli nintzenean, ama, oinutsik, ospitaletik ihes egiten ari*

*zen. Berarengana joan nintzen korrika eta lurrean aurkitu nuen ahoa bitsez beteta eta kakaz zikin. Zin dagit, ni izan nintzen gertatutakoaren lekuko bakarra, nik ikusi nuen bere hilketa, azala orban gorri, berde eta beltzez beteta zuen. Jende asko inguratu zitzaigun eta zera esaten zidaten: “deitu hildakoak garbitzen dituen emakumeari”... (006)*

Bizitzeko eskubidearen urraketan artean, elkarrizketatutako emakumeen % 33k **desagertze behartua** pairatu dute, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuak (1998) gizateriaren aurkako krimenez hartzen duena. Hori da, hain zuzen, Marokok herritar sahararren aurka erabilitako praktika larrienetako bat. Desagertze behartua jasan duten emakume askoren kokalekua ezezaguna da oraindik ere. Beste batzuk, aldiz, aske utzi zituzten hainbat denbora atxilotuta/desagertuta eman ondoren. Desagertuta emandako denboraldiak, bada, hilabete batzuetatik 16 urtera artekoak dira, hain zuzen ere.

Elkarrizketatutako zenbait emakumek, senide baten desagertze behartua salatu dute eta gehienek zuzenean jasan dute krimen hura. Emakumeen artean, esperientziarik ohikoena bahitu eta atxiloteta- eta tortura-zentro klandestino batera eraman dituzten horiena da, hala nola, PCCMIra, BIRera, Kaalat Magunako gotorlekura edo Agdezera. Marokok adin guztietako emakumeen aurka erabili du desagertze behartua, nesken, gazteen, helduen eta andre zaharren aurka, alegia. Atxilotuta/desagertuta egon diren bitartean, emakumeek hainbat eta hainbat oinaze jasan dituzte, tortura eta bestelako tratu, krudel, anker eta apalesgarrien atalean ikusiko dugun bezala.

Mendebaldeko Sahara okupatuan, desagertze behartuaren praktika sistematikoa izan zen 1970ko hamarkadaren bigarren erdian okupazioa hasi zenetik eta 1980 eta 1990ko hamarkadetan zehar. Aukeratutako zatiek emakume sahararren desagertzeen laztasuna eta jarraitutasuna erakusten dute.

*Tan-Tanen bizi ginen. 1975 amaieran edo 1976an, gutxi gorabehera, emakumeak eta haurrak eramaten hasi ziren. Ni ume txikia nintzen, 6 urte besterik ez nituen eta, bertan atxilotuta egon nintzen denboran, amama eta beste emakume batzuk nola torturatzen zituzten ikusi behar izan genuen [haurrok, ni negar batean nengoen. Amama hitz egiteko gai ere ez zenean, kargatuta eraman eta berriz torturatu egiten zuten. Seme-alabei eta errefuxiatuen kanpamenduetara joandako lagunei buruz galdetzen zioten.*

*Gaixorik zegoen eta ezin zen mugitu torturen eraginez. Gero Gliminetik hurbil utzi zuten botata eta kilometro asko ibili behar izan zituen etxera itzultzeko. Lagun batzuenan geratu zen hil arte. Familiarik gabe hil zen. (037)*

*1980an bahitu ninduten. Bi polizia-kotxe eta jendarmeria-kotxe bat izan ziren. 32 urte nituen, oso gaztea nintzen garai hartan. Aaiunera heldu ginen eta, komisarian, galdeketa hasi zen... Gero begiak berriz estali zizkidaten eta PCCMIra eraman ninduten. Iluntzera arte itxaroten zuten eta gero torturatzen ninduten, lur jota nengoen... Geroago hegazkin militar batean sartu eta Casablancara eraman gintuzten. Hurrengo goizean, berriro hasi ziren galdeketa eta torturak. Bertan hamar hilabete eman ondoren, gau batean kamioi batzuk etorri ziren. Sokak hartu eta eskuak eta oinak lotu zizkiguten. Ostikadak eta kolpeak ematen zizkiguten, lizunkeriak esaten zizkiguten "polisario puta horiek", "putakumeak"... Lotu gintuzten, emakumeak lehenengo, eta begiak estali zizkiguten. Gero kamioietan sartu eta soka horiekin gogor lotu gintuzten. Oso ahul geunden, minez oihukatzen genuen eta zenbaitek negar egiten zuten, ezin genituen tratu txar horiek gehiago jasan. Horrela egon ginen Magunako gotorlekuko kartzelara heldu arte. Heldu ginenean harrera berdina jaso genuen, kamioietatik kanpora bultzatu gintuzten eta behekoek makilaz jotzen gintuzten. Garaje batzuetan sartu eta bertan giltzaperatu gintuzten. 11 urte eman nituen desagertuta, 1991. urtera arte, hain zuzen. (071)*

*1987an bahitu ninduten. Militarrez jantzitako bi gizon etorri ziren. Segurtasuneakoak zirela esan zidaten eta zenbait galdera egin behar zizkidatela, 2 edo 3 minutu besterik ez zirela izango... Kotxera igo bezain laster bietako batek iletik heldu zidan eta burua nire hanka artean jarri zidan. Orduan konturatu nintzen ez zirela bi minutu izango, egunak baizik eta are gehiago, desagertze behartua, nire amamari eta 1975. urtetik desagertuta jarraitzen duten beste hainbat pertsonari egin zieten bezala. Berehala ulertu nuen hori izango zela nire zoria. (001)*

*Biktima zuzena naiz, gure lurraldearen okupazioarekin ados ez dauden beste hainbat emakume eta gizon saharar bezala. Desagertze behartua jasan nuen 1991ean, era guztietako torturak eta laidoak bizi izan nituen urte hartako azarotik abendura bitartean. Aaiuneko komisarian egon nintzen, polizia-zentro batean, alegia, eta, bertan, denbora luzez ezkutuan gorde ninduten. Inork*

*ez zekien non nengoen, ez nuen bisitarik eta haiek nahi zutena egiten zuten nirekin... Denbora guztia begiak estalita eta eskuak lotuta eman nuen. (003)*

*Gizateriaren aurkako krimen bat jasan nuen, desagertze behartua alegia. 20 urte nituela bahitu ninduten, 1987ko azaroaren 21ean. 1991ko ekainaren 18ra arte egon nintzen bahituta; hasieran, Aaiun okupatuko PCCMI zentro sekretuan. Gero BIRera eraman ninduten. Hura kolonia garaian espainolek erabilitako egoitza militarra da. Bertan tortura fisiko eta psikologiko ugari pairatu genituen, askotariko indarkeriak. Astebete galdeketekin eta torturekin eman eta gero, PCCMIra eraman gintuzten bueltan. Bertan, mota guztietako torturekin jarraitu zuten; ez zidaten arreta medikorik eman, ez ziguten lo egiten uzten, ez egunez eta ez gauzez, ez nintzen besoak altxatzeko gai ere eta ez nuen garbitzeko edo nire burua defendatzeko eskubiderik. Inolako epaiketarik gabe giltzaperatu ninduten eta familia nire bila egon zen, inolako erantzunik gabe. (019)*

*Lau urtez desagertuta egon nintzen, nire familiak nire berri ez zuela, bizirik edo hilda nengoen ez zekitela. (059)*

### **3.2. Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriak**


*Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Apalesgarrien aurkako Konbentzioaren arabera (1984) tortura da “edozein ekintza pertsona bati min edo oinaze larriak (fisikoak zein psikologikoak) eragiteko erabiltzen dena, berarengandik eta beste pertsona batengandik informazioa edo konfesio bat lortzeko, egindako edo ustez egindako ekintza batengatik zigortzeko, edo hura edo beste pertsona batzuk beldurtzeko edo behartzeko helburua duena, edota edozein motako diskriminazioagatik egiten dena; betiere min eta oinaze horiek funtzionario publiko batek edo funtzio publikoak dituen pertsona batek eragiten baditu, beste bat horiek egitera bultzatzen badu edo horretarako onespina edo baimena ematen badu” (1. artikulua).*

Elkarrizketatutako emakume sahararren % 90k **tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker eta apalesgarriak** pairatu dituzte Marokoren eskutik. Tortura emakumeak atxilotuta/desagertuta izan dituzten denboraldietan

gauzatu dute, kartzela edo atxiloketa-zentro klandestinoetan. Gainera, giza eskubideen urraketa larri hau behin eta berriro agertzen da beste testuinguru eta kokapen batzuetan, hala nola, manifestazioen, elkarretaratzeen edo protesten aurretik, bitartean eta ondoren, espazio publikoetan eta egun argiz.

Txosten honetan tortura fisikoa eta psikologikoa bereizten ditugu baina biak aldi berean agertzen dira emakumeek pairatutako indarkeria-esperientzietan.

Emakume sahararren aurka erabilitako **tortura fisikoak** askotarikoak izan dira eta, zenbait kasutan, oso muturrekoak. Horien artean, honako hauek ditugu: kolpeak objektuak erabiliz (% 90), eskarnio publikoa (% 88), kolpeak objekturik gabe (% 60), zigorrak (% 48), begiak estaltzea eta kaputxak jartzea (% 36), erredurak edo ebakiak egitea (% 26), muturreko posizioetan zintzilikatzea (% 16), uretan sartuta itotzea (% 15), gorputzean elektrizitatea ematea (% 12), lan behartua (% 10), animaliak erabiltzea (% 8), poltsa erabiliz itotzea (% 5), mutilatzea (% 3) eta muturreko tenperaturak (% 3).




Kasu askotan, emakume sahararrak hainbat egunez **jipoitu dituzte, objektuak erabiliz eta objekturik gabe**, hain gogor non konortea galtzera ere heltzen ziren.

*Tresna bat zeukaten, “torturagailua” esaten ziotena. Zartailu bat zintzilik zuen makila bat zen. Horrekin jotzen gintuzten eta min izugarria ematen zuen, jasanezina zen. (076)*

*Oso leku hotz batean nengoen, hotz izugarria egiten zuen... Hainbeste torturatu ninduten ezin izan nuela jasan. Gogoratzen dut, burutik ur hotza bota eta gero, motor baten uhalaz buruan jipoitu nindutela, konortea galdu nuen arte. (012)*

*Komisarian sartu bezain laster marokoar batzuk ni jotzen hasi ziren, zaplaztekoak ematen zizkidaten. Zenbaiten artean hartu eta pilota bat bezala bota ninduten. Gauez torturatzen ninduten beti. Ez dut ahazterik Ejnaza Aallad martiria hil zeneko gaua. Nik jakin nuen bera hilda zegoela begiak bere arroparen zati batekin estali zizkidatenean. Egun haiek eman zituzten gu torturatzen, itauntzen, torturatzen, itauntzen...15 egunez. Ia bizitzarik gabe utzi arte torturatzen gintuzten, gero galdeketak hasten ziren berriro. (060)*



*Haietako batek, atzetik ostikada bat eman zidan bihotzaren atzeko partean eta handik aurrera ez dut ezer gogoratzen, dena itzali zen, askoz geroago itzartu nintzen. Iletik tiraka ari ziren eta busti nengoen, leku guztietatik hartu eta gelara bueltan eraman ninduten. Gauean, torturatzailleak nire bila etorri eta begiak estali zizkidaten. Gorputz osoa handituta nuen, kolpeen ondorioz, eta begi batetik ez nuen ezer ere ikusten, ezin nuen zabaldu. Ahoa ere guztiz birrinduta nuen. (071)*

*Emakumeetako bati borra jarri zioten behatzen artean eta indarrez presionatu zuten hatz txikia besteengandik banandu arte. (078)*

Beste kasu batzuetan, emakume horiek iraintzeko eta umiliatzeko eta haien duintasunari kalte egiteko helburua duten **zigorrak** eta **eskarnio publikoa** aipatzen dituzte.

*13 egun eman genituen etengabe tortura fisikoa eta psikologikoa jasaten, ezer jan eta edan gabe, eta are gutxiago garbitu. Hormara begira zigortzen gintuzten, hanka bakar batean zutik. 13 egunez ibili ginen horrela. (059)*

*Uraren tortura zen ura sartzen zigutela eztairik, beherakoak eragiten zizkigun eta ezin ginen ezta zutitu ere. Arrastaka eramaten gintuzten komunera. (060)*

*Manifestazio asko antolatzen ditugu eta gure aurkako errepresioa berdina da, borrekin jotzen, kaletik arrastaka eramaten eta biluzten gaituzte; guk emakume bezala irudi txarra eman dezagun nahi dute. (043)*

Tortura fisikoko metodoak konbinatzea ohiko praktika izan da emakume sahararren aurka. Lekukotzek erakusten dutenez, emakume horiek **muturreko posizioetan zintzilikatu** dituzte, era desberdinetan **ito** izan dituzte (uretan edo beste likido batzuetan sartuz edota plastikozko poltsak, esponjak edo trapu zikinak erabiliz) eta **elektrizitatea aplikatu** diete gorputzeko hainbat ataletan.

*Harategi baten moduko gela batera sartu ninduten, bertan kakoak eta kateak zeuden nonahi. Ohe bat ere zegoen. Horretara lotu ninduten. Ur atsitua bota zidaten aurpegira eta beste tipo batek zartailuaz ematen zidan oin-zola eta izterretan, konortea galtzen nuen arte. Atsedean txiki bat eman eta berriz hasten ziren torturekin. Hamaiika bat emakume ginen egoera horretan. Negarrak, negar-zotinak eta min-garrasiak besterik ez ziren entzuten. Zintzilikatzen gintuzten eta deskarga elektrikoak ematen zizkiguten, batzuetan belarrietan, beste batzuetan ezpainetan... Metodo horiekin aspertzen zirenean, makila bat ekarri eta belautan atzean sartzen ziguten, eskuak atzean lotu eta buruz behera zintzilikatzen gintuzten ordubetez edo bi orduz. Hain mingarria zen non jaio izanaz ere damutzen zinen. Gero berriz ohera lotu eta hura zutik jartzen zuten gu buruz behera jarrita. Ur atsitua irenstera behartzen gintuzten, tripa bete arte, eta gero saltoak ematen zituzten tripa gainean, botaka egiten genuen arte... egoera miserablea zen... Bi hilabete izan ziren, etengabe torturak pairatuz, egun batean atsedean ematen baziguten hurrengoan etortzen ziren gure bila, torturekin jarraitzeko. (056)*



Aaiunen atxilotu nindutenean tortura jasan behar izan nuen. Hogei neska gazte ginen PCCMIan, gau hartan hainbat atxilotu zituzten gure auzoan, horien artean, haurdun zegoen neska bat. Bertan, torturatu ninduten, mahaiaren metodoa aplikatu zidaten; mahaira lotu ninduten eta burua zintzilik utzi zidaten. Galdeketa egiten zidaten bitartean jotzen ninduten. Esponjarekin ahoa estaltzearen metodoa ere erabili zuten. (067)



Produktu kimikoak zituen ontzi bat ekarri zuten. Oso zapore txarra zuten, gatz eta fosforo zaporea. Burua ontzian sartzen zidaten, ni produktu horien usainaz itotzeko eta, aldi berean, iletik tira egiten zidaten. Gero trapu zikin bat hartu, produktu horiez busti eta aurpegian jarri zidaten; zulo guztietatik sartu zitzaidan, ezin nuen arnasik hartu eta are gutxiago hitz egin. Beste batek, bitartean, borraz jotzen ninduen eta beste batek, itota ikusten ninduenean, zaplaztekoak ematen zizkidan ni mugitu arte. Horrez gain, kable elektriko bat zeukaten, lotu ninduten eta ni elektrokutatzen hasi ziren... Buruan jotzen ninduten behin eta berriro. (001)




Lehenengo, zaplaztekoak eman zizkidaten eta ilea tiraka ateratzen zidaten. Gero, mahai batera eramán ninduten, biluztu eta haren gainean etzan egin ninduten. Hain gogor lotzen zidaten non ezin bainuen ia arnasik hartu ere. Nire burua zintzilik geratu zen eta mahaia zutik jarri zuten ni buruz behera utzita. Oin-zolan hain gogor jotzen ninduten non ia konortea galdu bainuen, eta burua ur atsitan sartzen zidaten dena irentsi arte. Ikusi zutenenean ez nintzela mugitzen, haietako bat nire tripan eseri zen, irentsitako ur guztia bota nuen arte. Gero, zaplaztekoekin hasi ziren berriz. Ostikadak ere ematen zizkidaten eta lizunkeriak esaten, "txakurra,



*madarikatua, ikusiko duzu...”. Elektrizitateaz torturatzen hasi ziren, behatzetan eta belarrietan kableak jarri zizkidaten eta esan zidaten dena aitortu edo hil arte ez nindutela utziko. (071)*


*48 emakume inguru atxilotu gintuzten. Paradorean manifestatzen ari ginen eta errepresio-indar bereziak sartu ziren. Ni elektrizitatez torturatu ninduten, oso gaztea nintzela ikusten zuten, eta minaren minez garrasi egiten nuen. Besteak soka bustieztorturatu zituzten, azoteak emanaz. (076)*



**Begiak estaltzeak** desorientazioa, beldurra eta larritasuna eragiten ditu, eta torturazailak identifikatzea oztopatzen du. Marokok praktika hori asko erabili izan du atxilotutako emakume sahararren aurka; batzuetan oso denbora luzez ere, horrek ondorio fisikoak dituelarik.

*Begietako benda derrigorrezkoa zen. (013)*


*Gauerdira aldera. Arropa zatiez betetako zaku batekin etorri ziren. Emakumeak izenez deitu zituzten eta zati horiekin begiak estali zizkieten. Hain gogor lotzen zituzten sorbaldak gorputzetik banantzen sentitzen zituztela. (034)*



*Lau hilabetez begiak estalita izan genituen, gau eta egunez. (060)*

Beste lekukotza batzuetan, **erredurak**, **mutilazioak**, **animalien erabilera eta substantzia toxikoak** aipatzen dira, torturetan erabilitako beste praktika batzuen artean. Min fisikoari dagokionez, biktimarioek erakutsitako ankerkeriaren erakusgarri dira horiek.

*Azazkalak ateratzeko aliketa gogoratzen dut... gainetik botatzen ziguten ura eta txiza, eta azoteak. Bi gau pasa nituen bertan eta gero ospitalera eramanez ninduten... (013)*



*Ume bat nintzen, emakume eta umez betetako gela batean nengoan. Suaz erre ninduten, oraindik ditut erredurak. Oinetan iltzeak sartu zizkidaten ere. Ondorioak ditut oraindik. Guzti hori txikia nintzela egin zidaten, eta ez dago hori ahazterik... (037)*

*Zutik nengoan eta [esku hartzeko indarretako] talde batek inguratu ninduen. Horietako batek begian jo ninduen. Hain min handia sentitu nuen, non lurrak irentsi ninduela sentitu bainuen. Belauniko erori nintzen eskuekin begia estaltzen. Haiek ni jotzen jarraitzen zuten. Eskuak begiratu nituenean begia eskuan nuela ikusi nuen. “Begia atera didazue!” oihukatu nien eta haiek “Ba bestea ere aterako dizugu!” erantzun zidaten. Orduan, bestean ere ukabilkada bat eman zidaten eta begiaren azpiko hezurra hautsi zidaten. Hain handia zen mina, non ez bainuen ezer gehiago sentitzen. Kolpe gehiago ematen zizkidaten. Gero, eskuburdinak jarri zizkiguten nire kideei eta niri, baina ni ez nintzen ezertaz ere ohartzen, hemorragiatatik... (029)*

*Begiak estalita nituen, ez nekien txakurrak bertan zeudela. Koxka egin zidaten eta guardiek barre egiten zuten. (001)*

*Txakurrak hurbil sentitzen nituen; egia esaten ez banuen askatuko zituztela esaten zidaten. (002)*

*Ez genekien zer ordu zen. Oso eraikin zahar batean sartu gintuzten; izugarria zen, eskorpioiz eta sugez beteta zegoen eta gainera jausten zitzaizkigun. (074)*

*Galdeketan, lehenik, iraindu ninduten eta, gero, mahai baten gainean jarri ninduten; oso estua zen eta ez nintzen sartzen. Bertan etzan behar nuen eta burua zintzilik geratzen zitzaidan. Produktu kutsagarri eta gaseosoak usaintzera behartu ninduten eta eztula eta itolarria eragiten zidaten, eta elektrizitatea erabili zuten ni elektrokutatzeko... Orduak eman zituzten horretan. (019)*

*Mutil gazte batek poliziaren harrikada bat jaso zuen aurpegian. Harrikadak aurpegi erdia atera zion, eta odolez estali zuen. Ahizpak hura ikusi zuenean poliziarri harriak botatzen hasi zen. Atxilotuta eraman zuten gauera arte.*


*Gero, lursail batean utzi zuten abandonatuta. Urdin zegoen jasandako torturagatik. Gorputzeko azal dena kenduta zuen, azidoz busti zutela ematen zuten. Sendabide tradizionala aplikatu genion, inork ezin zuen bera eskuekin ukitu eta izara batzuk erabiliz mugitzen genuen. Horretaz apur bat osatu zen baina geroago bihotzeko batez hil zen. (078)*

Azkenik, azpimarratu beharra dago atxilotuta/desagertuta egondako hainbat emakumek **lan behartuak** egin behar izan zituztela.

*Esparru osoa garbitzera eta arropa ikuztera behartzen gintuzten. Arropa guztia garbitzen genuen, eskuz. Bertan, hainbat gaixotasun izan nituen eta ez zidaten pilula bat ere eman. Baten bat hiltzen bazen bakarrik deitzeko esaten ziguten. (056)*

*Irin zaku handiak ekartzen zituzten eta ogia egin behar genuen, txandaka egiten genuen. Binakako txandak egiten genituen; goizeko bostetan jaiki eta ogi hori guztia prest izan behar genuen. Gutariko asko edadekoak ziren eta ahul edo gaixorik zeuden; beraz, gazteok arduratzen ginen sekulako lan hori egiteaz. Belar sikuz eta zomorroz beteriko lekaleak ekartzen zituzten. Egun osoa ematen genuen kartzelako guztientzat janaria prestatzen eta ogia oratzen. Gizon eta emakume guztientzat janaria prestatzera behartuta geunden. (060)*

**Tortura psikologikoko** moduei dagokienez, horiek pertsona emozionalki ezegonkortzeko helburua dute; muturreko oinazea eragin nahi diote, haren buruko gaitasunak eta nortasuna kaltetzeko asmoz. Honako hauek dira Marokok Mendebaldeko Sahara okupatuan emakume sahararrei aplikatutako tortura psikologikoak: irainak (% 95), mehatxuak (% 90), beste batzuei egindako tortura ikustera edo entzutera behartzea (% 55), loa eragozteak (% 37), elikagairik ez edo gutxiegi ematea (% 34), baldintza osasungaitzak eta/edo higienerik eza (% 34), inkomunikazioa (% 34), senideei buruzko kalumniak (% 27), pilaketa (% 23), banakako isolamendua (% 22) eta senideak hiltzeko mehatxuak (% 19).



Lekukotzak aztertzeak tortura mota hau zehatzago ulertzeko aukera ematen digu. Sarritan, modu konbinatuan aplikatzen dituzte metodo desberdinak, torturaren eraginkortasuna handitzeko asmoz.

Atxilotuta/desagertuta egon diren bitartean, emakume sahararrek **lorik egin eta elikagairik jan gabe** eta **isolamendu edo inkomunikazio** egoeran egon behar izan dira.

*Sei egunez torturak, galdeketak, mehatxuak eta beldurra jasan genituen. Ezer jan edo edan gabe, nekeaz eta minaz ahituta geunden eta berriz zutitzeko agintzen ziguten. (002)*

*[Kartzelan] sei hilabete eta gero, ez ginen ibiltzeko gai ere, elikatu gabe geunden, tapaki batekin atera behar gintuzten eguzkitara, ezin ginelako ezta zutitu ere. (067)*

*Oso egoera larrian aurkitu genituen, ezin ziren zutitu, oso ahul zeuden eta azala kolpez beteta zeukaten, haginak erortzen zitzaizkien eta arrastaka mugitzen ziren. (071)*

*Zigortzen gintuzten, ez ziguten lorik egiten zuten. Komunera joaten ere ez ziguten uzten, eskatzen genuenean uko egiten ziguten. Ezin genituen gure eginkariak egin. Ilunpean geunden, ez ginen eguzkitara irteten; hortaz, D eta C bitaminen falta geneukan; anemiarekin hasi ginen nutriente faltagatik eta ikusteko arazoak ere agertu zitzaizkigun ilunpean egoteagatik. (059)*

*32 egunez isolatuta egon nintzen gela txiki batean, zigor bezala. Bakarrik nengoen, zoruan lo egiten, tapakirik edo izararik gabe. (001)*

*Oso hilabete latzak izan ziren, ez dago hori zer den imajinatzerik. Besoak atzean lotuta eta begiak estalita egon ginen denbora guztia. Itotzen gintuzten, berehala hiltzeko beldurra eragiteko... Besteengandik isolatuta egon nintzen. Ezin ginen gure artean komunikatu. (003)*

*Gela oso txiki batean ni bakarrik gorde ninduten bi urte eta sei hilabetez. (025)*

Elkarrizketatutako emakume saharar gehienek jasan duten beste tortura bat da **beste batzuei egindako tortura ikusi edo entzun behar izatea**, batzuetan senideei, beste batzuetan ezagunei.

*Bertan jende saharar asko ikusi nuen eta torturak eragindako garrasiak entzuten nituen, oinetatik zintzilikatutako jendea ikusi nuen: Inkisizioa zirudien. Esaten zidaten, 'ez baduzu hitz egiten gauza bera gertatuko zaizu'. Gela oso handia zen, hiltegi bat. Kolonia garaian txerriak, arkumeak eta behiak zintzilikatzeko erabiltzen zuten. Orduko hartan, Marokoren inbasioaren aurka zeuden sahararrak zintzilikatzen zituzten. (001)*

*Mutilei egindako torturak entzuten nituen, tiroak ere entzun nituen. Ikara etengabea zen, garrasiak, aieneak, negarrak, dena entzuten zen. Soldaduek ziotenez, entzundako tiroak gazte bat hil zutelako izan ziren. Sahararra zela eta "Gora Fronte Polisarioa!" oihukatzen zuelako hil omen zuten. (002)*

*Gure zeldan geunden eta amaren bila etorri ziren. Kapitainak guardia egiten ari ziren militarrei deitu zien. Ama atera, ahoz gora etzan eta torturatzen*

*hasi ziren. Haien eta gure arteko atea itxi zuten. Minez oihukatzen entzuten genuen, jipoiagatik. Nik ezin nion negar egiteari utzi eta gainontzeko emakumeek penaz eta beldurrez oihukatzen zuten. Entzuten genuen batek esaten zuela: “eman gogor txerriari, gogorrago, eman gogoz!”. Dena entzuten genien... Eta ahizpa eta ni torturatu gintuztenean, gainontzeko emakumeek oihukatzen eta negar egiten zuten, beldurtuta eta kezkatuak. (074)*

Halaber, emakumeen lekukotzan **pilaketa** egoerak aipatzen dira, ziegetan 8 emakume eta 12 ere sartzen zituztela, **egoera osasungaitzean** eta higiene pertsonalerako aukerarik gabe.

*Gu gerritik gora biluzarazi gintuzten eta arantzaz beteriko palmondo adar batez jipoitu gintuzten, bik eskuetatik hartzen gintuzten eta hirugarren batek bizkarrean jotzen gintuen. Hobi batera eraman gintuzten, ez genekien gaua ala eguna zen, eta bertara bota gintuzten, besteen gainera. Hori gizonei zein emakumei egin ziguten. Handik gure eginkariak egiteko erabiltzen genituen latak husteko bakarrik irteten ginen. Ez ginen dutxatzen, ezta arropa aldatzen ere. Arkakusoz eta ugerrez beteta geunden. Leku horretan pilatuta geunden eta ezin zen arnasik ere hartu bertan. (056)*

*Agdezera eraman gintuzten. Kamioetatik bultzaka atera gintuzten animaliak izango bagina bezala. Zelda bakoitzeko 12 lagun sartu gintuzten, sardinak bezala. Horrela egon ginen, elikatu gabe eta baldintza higieniko oso eskasekin. (...) Baldintza oso latzak ziren, arropa gure artean aldatzen genuen gutariko bat arropa garbitzera zihoanean. Uraz bakarrik garbitzen zen, xaboirik gabe. Arropa bakarra geneukan eta, hortaz, garbitzen genuenean, manta batekin tapatu behar ginen arropa lehortu arte. (071)*

*PCCMIan lau hilabete eman genituen. Ez ziguten garbitzen uzten, zorriek eta zikinkeriak erabat inbaditu gintuzten. Ez nuen imajinatzen giza gorputzak hainbeste zikinkeria sor zezakenik. (060)*

*Denak geunden hormari begira, gure artean metro bat besterik ez zegoen, ezin genuen hitz egin, ezin genuen ezer egin, gure eginkariak ere modu horretan egiten genituen. Torturazko hiru egun horietan ez gintuzten eraman gure eginkariak egitera, dena ziegan egiten genuen. (076)*

Marokok emakume sahararren aurka erabiltzen dituen tortura eta tratu krudelen artean **senideak mehatxatzea** ere aurkitzen dugu. Horren bitartez, errepresioaren inpaktu psikologikoa biderkatu nahi du.


*Nik ile luzea nuen eta [kartzelan] erortzen hasi zitzaidan. Poltsa bat ekarri zidaten erortzen zitzaizkidan ile-sorta odoleztatuak biltzeko. Poltsa hori nire amari eraman zioten eta berak hilda nengoela pentsatu zuen. Bera ere psikologikoki torturatzeko modu bat izan zen. [Urte batzuk geroago, kartzelatik irtendakoan] esan zidan nire arropa zikina eta ilea eraman ziotenetik, barneko oinaze bat hasi zitzaiola, gainditu ezin izan zuena. Bera ziur zegoen hil nindutela. Esan zidan ere, pilula batzuk eraman zizkiotela eta esan ziotela horiek prostitutek hartzen zituzten pilulak zirela, ni prostituta nintzela. Lur jota utzi zuten, duintasuna urratu zioten. (060)*

### 3.3. Sexu-indarkeria

Desagertze behartua bezala, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuak (1998) gizateriaren aurkako krimenez hartzen du sexu-indarkeria, hau da, “bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, bortxazko haurdunaldia, antzute behartua edo horien moduko larritasuna duen beste edozein sexu-abusu” (7. artikulua). Giza eskubideen urraketa larria da, mundu osoan hura dokumentatzeko arazoak izaten dituena. Izan ere, krimen hura salatzea oztopatzen duten hainbat faktore daude, besteak beste, emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren normalizazioa, krimen horren izaera bera eta eragiten dituen ondorio pertsonal, familiar, sozial eta kulturalak.


Zentzu horretan, Mendebaldeko Sahara ez da salbuespena; hala, giza eskubideen urraketa horrek ez du beste batzuek izan duten aintzatespen bera izan. Dena den, gero eta emakume eta gizon saharar gehiago gai horren gainean arreta jartzen laguntzen ari dira. Hori, bada, lagungarria da Marokoren politika errepresiboen artean sexu-indarkeriak duen hedapena eta sistematikotasuna bistartzeko. Horren adibide bat ikerketa honetan dugu, izan ere, elkarrizketatutako emakume sahararren % 68k Marokoko segurtasun-indarren eskutik sexu-indarkeria jasan duela salatzen dute.

Hain zuzen ere, emakume sahararrek honako hauek aipatu dituzte: eskukatzeak eta ukituak (% 76), biluztera behartzea (% 51), sexu-edukia duten hitzezko erasoak eta/edo burlak (% 51), kolpeak bularretan eta/edo genitaletan (% 51), sexu-bortxaketa mehatxuak (haiei edota senideei) (% 27), torturak haurdunaldian (% 13), abortu behartuak (% 9), beste pertsona batzuen aurkako sexu-indarkeria ikustea edo entzutea (% 5), sexu-bortxaketa (% 4), sexu argazki behartuak (% 4), deskarga elektrikoak bular eta/edo genitaletan (% 4), sexu-esklabotza (% 2), sexu-bortxaketa objektuak erabiliz (% 2), sexu-mutilazioak (bularrak, genitalak) (% 2) eta antzutze behartua (% 2). Delitu horiek guztiak emakume helduek zein neskek eta emakume gazteek pairatzen dituzte.





9. grafikoa. Sexu-indarkeriaren biktimen adin-tartea



Sexu-indarkeriako egitateak gertatu diren denboraldiak begiratzen baditugu, hauek etengabeak izan dira 1975az geroztik, hau da, okupazioa hasi zenetik gaur egun arte. Horien batez besteko maiztasuna % 8 izan da, 2000tik 2004ra bitartean izan ezik; izan ere, elkarriketatutako emakumeek ez dute delitua aipatzen denboraldi horretan. Honako hauek dira sexu-indarkeriaren maiztasun handiena erregistratu duten denboraldiak: 1985-1989 (% 17), 2005-2009 (% 17) eta, batez ere, 2015az geroztik (% 25). Azken datu hori, orain arte esandakoaren arabera, emakumeek krimen hura gehiago salatzen izan duten joeraren emaitza izan daiteke, haren larritasunaz gero eta kontzienteagoa den nazioarteko testuinguru batean –eta testuinguru nazional sahararrean ere–.

10. grafikoa. Sexu-indarkeriako egitateen aldiak



Emakumeen esanetan, testuinguru batzuetan hainbat sexu-abusu batera gertatzen dira, hala nola, **eskukatzeak eta ukituak, biluztera behartzea eta sexu-edukia duten hitzezko erasoak eta/edo burlak.**

*Gizonak ziren, ni miatzen hasi ziren, gorputz osoa ukitzen. Jazarpena eta ukituak borroeroen eta guardien egunerokoa da. Ez dituzte zigortzen. (001)*

*Galdeketetan gu eskukatzen gintuzten eta bortxatu egingo gintuztela mehatxatzen gintuzten. (002)*

*Atxilotu eta zelda desberdinetan sartu gintuzten. Bi ordu egon ginen, gero miaketa zorrotza egin ziguten, biluztera behartu eta eskukatu ere egin gintuzten. Inaintzen gintuzten gure gorputzaren zenbait atal aipatuz. (005)*

*Nire ahizpa txikia torturatu zuten eta gero kartzelara eraman zuten, bost egunez preso egon zen, bera eta beste lau emakume, arroparik gabe, melhfarik gabe. Jo zituzten, txiza egin zieten gainean, hitz lizunak esan zizkieten, mota guztietako irainak. (008)*

*Indarrrik gabe utzi arte jo ninduten, gero mantua kendu zidaten, barruko arroparekin bakarrik utzi ninduten, oinak eta eskuak mahai batera lotu zizkidaten eta ni berriz torturatzen hasi ziren. (060)*

*Manifestazioetan, jotzen gaituztenean emakumearen gorputzaren atal sentiberak bilatzen dituzte. Oso tratu anker eta umiliagarria da... Behin baino gehiagotan, kalean, melhfa indarrez kendu digute, bertatik pasatzen ziren pertsona guztien aurrean. Hemen aipatu ezin ditudan gorputz-atalak bilatzen dituzte... Kalezulo batean harrapatzen bazaituzte, jar zaitetz okerreanean, denetarik egingo baitizute. (064)*

*Kaletik zoaz eta bat batean geldiarazten zaituzte eta oso hitz lizunekin erasotzen dizute, zure duintasuna erasotzen duten hitzekin. Gau batean atxilotu gintuzten eta denetariko irainak eta probokazioak entzun behar izan genituen. Niri puta bat nintzela esaten zidaten eta sexualki betetzen ez nauen agure batekin ezkondata nagoela, eta kaleetatik sexu bila nabilela. Hori eta askoz gehiago esaten zidaten. (033)*

**Sexu-indarkeria salatu duten emakume sahararren erdiak baino gehiagok kolpeak jaso ditu bularretan eta genitaletan.**

*Sexu-indarkeria eta -jazarpen ugari pairatu nuen, gure etxean askotan sartu dira eta buruan jo naute —eta, ondorioz, askotan josi behar izan didate—, baita bularretan ere, oso hitz lizunak esanez... (043)*

*[2013ko apirilaren 23ko manifestazioan] indarkeria handia jasan genuen eta arrastaka ere eraman gintuzten. Ordu erdi geroago, Maatala kalera eraman ninduten eta polizia-furgoian tratu txarrak jasan nituen; leku guztietan jotzen ninduten eskuekin eta oinekin, sexualki eraso zidaten, eskuak bularretan sartu eta indarrez estutzen zizkidaten. Egun horretan inoiz jasan ez dudana pairatu behar izan nuen, pentsa ditzakezun gauzarik txarrenak. (...) Aaiuneko ekialdera eraman ninduten, lau edo bost kilometrorra eta bertan sexualki eraso zidaten berriz, oso modu basatian, gogoratu nahi ez ditudan gauzak egin zizkidaten. Gero manta batekin estali ninduten eta harri batzuk jarri zizkidaten gainean, hilda egongo banintz bezala. Asko kostatu zitzaidan mantaren azpitik irtetzea eta melhfarik gabe nengoen. (029)*

*Bota militar batekin ostikada bat eman zidaten hankartean eta berrogei bat egunez hemorragia baginalak izan nituen, isilpean, inork ezer jakin gabe. Niri beti josi behar izan didate erditzeen ostean eta kolpe horrekin jostura urratu eta bagina zabaldu zitzaidan. Gainera, tratatu behar izan nuen kiste bat irten zitzaidan ere. Oinaze handia eragin zidan. (033)*

*Galketarekin hasi ziren, horrek esan nahi du “galdera-tortura-galdera-tortura”. Zoru hotz eta busti batean eseri ninduten, batek galdetzen zidan eta besteak, erantzuna gustatzen ez ziztaionean, zaplazteko bat ematen zidan, eta kolpe bat eta beste bat, alde batean eta bestean, lehenengo eskuaz eta gero burdinezko barra batez. Ni adinez txikia nintzen, ez nituen 18 urte oraindik, taldeko gazteena nintzen. Ostikadak ematen zizkidaten hankartean, eta borrarrekin ipurdian eta hankartean ere. Min handiak izan ditut kolpe horien eraginez, nahita jotzen zidaten bertan. Denbora luzez ezin izan nintzen institutura itzuli. (058)*

*Nire atzetik zihoazen, zibilez jantzitako bi agente. Irainak eta denetariko biraoak eta lizunkeriak esaten zizkidaten. Bitan jo ninduten, zaplaztekoak eta ostikadak eman zizkidaten. Batek arrastaka eraman ninduen eta arropa kendu zidan. Bularrak estutu zizkidan... Orain min handia izaten dut eskumako bularrean. (068)*

Beste lekukotza batzuetan argi eta garbi agertzen dira **sexu-bortxaketako mehatxuak** (haiei edo senideei), **sexu-bortxaketa** indibidual eta kolektiboko saiakerak, eta **sexu-bortxaketa** bera.

*Ostegun beltzean [2005eko maiatzaren 28an], okupazio-indarren eskuhartze basatia egon zen. Etxe guztietan sartu ziren, topatzen zuten jende guztia jotzen zuten. Ni kale nagusian jipoitu ninduten. Gero, intifadak jarraitu zuen, Saharako banderekin kalera irteten hasi ginen, gazte asko ginen. Haien nagusiak ni mehatxatu ninduen, goizeko lauretan deitu zidan eta Bojadoretik alde egin behar nuela esan zidan. Nik ez nuen hori egin eta, orduan, nire familia mehatxatzen hasi zen, ni bahituko eta bortxatuko ninduela esanez. (029)*

*Irainak, bortxaketa-saiakerak eta sexu jazarpena jasan ditut, biluztu naute eta gorputz osoa ukitu didate, nire parteak... bortxaketak jasan zituzten 19 urteko emakume bat eta mutil gazte batzuk zeuden, negarrez eta oihuka zeuden, harrotasuna zaurituta zuten betiko. Trebatutako militarrek ekartzen dituzte, indar bereziak dira, taldeka bortxatzen dute eta berdin zaie gizona, emakumea edo haurra den. (...) 13 urteko neskatxa bat zegoen, izugarria zen nola oihukatzen eta negar egiten zuen, guk begiak estalita genituen, bakarrik entzuten ziren ahotsak eta neskaren garrasiak, ileak tente jartzen zaizkit, ezin izan nuen bera lagundu. Beragatik sufritu nuen nigatik baino gehiago, ezin nuelako ekidin haiek bera ukitzea. (003)*

*Kartzelan bi emakume sahararren bortxaketa ikusi nuen. Denak bortxatzen saiatu ziren. (...) Kontatu ezin ditudan gauza asko daude... (009)*

*Eskuak lotuta nituen, gero akusazio faltsuak, hitz lizunak eta bortxaketa-mehatxuak hasi ziren. Arropa guztia kendu zidaten, amak mundura ekarri ninduen bezala utzi ninduten, kristalezko botila batzuk ekarri zituzten eta horiekin bortxatuko nindutela mehatxu egin zidaten. (012)*

*1983ko urrian izan zen. Kaalat Magunara eraman baino astebete lehenago. Bortxaketa-saiakera bat egon zen eta salatu genuen. Guardiak, salatuak izatean, latzago tratatzen gintuzten. (060)*

*Gazteenak bortxatu nahi gintuzten, banan-banan eramaten gintuzten, esaten zuten “zu, altxatu” eta eramaten zintuzten. Salmagatik izango*

*ez balitz (goian bego), berak jasaten genuen jazarpenagatik protestatu baitzuen... Denak hasi ginen oihukatzen bortxatu ez gintzaten. (076)*

*Bederatzi bat neska ginen. Ni indarrez eraman ninduten komisariara, gainontzekoei gauza bera gertatu zitzaien, ni baino lehen sartu zituzten komisarian. Iraintzen hasi ziren, denetariko lizunkeriak esaten zizkidaten, esan ezin ditudan hitzak, makilez eta aulkiez jotzen ninduten, tiro egitea bakarrik falta zitzaien. Praxak zabaltzen zituzten eta bortxatuko gintuztela esaten zuten, zoruan etzateko agindu ziguten, taldean botxatuko gintuztela. (006)*

*Egunero, institututik irtetea, bi poliziek etxeraino jarraitzen zidaten, bakoitza alde batean, eta bidean mehatxu egiten zidaten, desagerraraziko, bahituko eta bortxatuko nindutela, eta ez nintzela sekula institutura itzuliko. (064)*

**Sexu-indarkerien artean, aurkitzen ditugu torturak haurdunaldian eta torturak emakume bular-emaleei, baita abortu behartuak eta antzutze behartua ere.**

*Haurdun nengoen eta arrastaka eramaten ninduten, edozerrekin jotzen ninduten; izan ere, eraikina eraikitze-prozesuan zegoen eta aldamioen egurraz jotzen gintuzten, gorputzaren atal guztietan, aurpegian, buruan, hanketan... Arrastaka eramaten ninduten eta gorputz osoa nuen odolez beteta, eta min handia sabelean, haurdun nengoen eta urak bota nituen... Ez zuten inolako gupidarik. Emakumeei abortuak eragitearena aspalditik datorren kontu bat da. (006)*

*1980ko hamarkadan, (...) tortura-saio latzenetan, oso hemorragia handia izan nuen, odola bor-bor botatzen nuen, eta abortua izan nuen. Abortatu eta gero torturatzen jarraitu zuten, min handia neukan uteroan, eta gorputz osoan. Esaten zidaten “zuok, polisariook, ugaltu besterik ez duzue egiten”, batek izterra zapaltzen zidan eta besteak, mahuka batez, ura botatzen zidan odola garbitzeko, esaten zidan “asko izan nahi duzue, putakume”. (013)*

*Saihetsean hainbeste jo ninduten non abortu bat izan bainuen. Bularretan eta sabelean ere jo ninduten eta, horren ondorioz, haurra hilik jaio zen. (021)*

*Bertan 48 bat emakume bildu zituzten, horien artean nire ahizpa. Hark bere haur jaioberria zuen besoetan, astebete zeukan bakarrik. Denak gela batean sartu gintuzten, gurekin zenbait emakume haurdun zeuden, eta bertan abortatu zuten... Galdeketetan torturatu gintuzten eta burua moztuko zigutela mehatxu egin ziguten. PCCMIan egon ginen. (076)*


*Kartzelan ebakuntza egin zidaten eta, haren ondorioz, ez nuen berriz hilekoa izan. Tronpen lotura egin zidaten eta harrez geroztik ez dut hilekoa izan. (009)*

### 3.4. Askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketak

Ikerketa honetan lekukotza eman duten emakume sahararren % 91k askatasun eta segurtasun pertsonalaren aurkako erasoak jasan dituzte. Hortaz, horixe da gehien aipatzen duten urraketa, eskubide kulturalen urraketarekin batera, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Ikerketa honetan dokumentatutako giza eskubideen beste urraketa batzuk bezala, askatasun eta segurtasun pertsonalaren aurkako erasoak adin guztietako emakumeek pairatzen dituzte. Honako hauek dira jasotako delituak: jazarpena eta zelataritza (% 81), adierazpen askatasunaren urraketak (% 81), bilera askatasunaren urraketak (% 78), zirkulazio askatasunaren urraketak (% 78) eta elkartzeko askatasunaren urraketak (% 57), egoitzaren bortxatzeak (% 69), gehiegikeria fisikoak (% 65), bahiketak (% 42), ondasunak suntsitzea (% 39), difamazioa eta izen onaren aurkako erasoak (% 36), telefono-entzuketa eta postan eskua sartzea (% 31), ondasunak konfiskatzea (% 27), espetxeratze arbitrarioa (% 9), atxiloketa arbitrarioa (% 8), salaketa faltsuak (% 4) eta dibortziaztera behartzea (% 1).

11. grafikoa. Askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketak (N = 74)



**Jazarpenari eta zelataritzari, adierazpen-, bilera- eta zirkulazio-askatasunaren urraketari, gehiegikeria fisikoari eta egoitzen bortxatzeari buruzko lekukotzek erakusten dute emakume sahararrek egunero jasaten duten errepresio maila oso handia dela, batez ere haien herriaren eskubideak defendatzen dituzten erakundeetan edo ekintzetan parte hartzen duten emakume horiek.**

*Ahora mismo, esta casa en la que estamos, sabemos que está siendo vigilada Oraintxe bertan, badakigu okupazio indarrak etxe hau etengabe zelatatzen ari direla. (005)*

*Marokok ez die kazetariei edo nazioarteko begiraleei Sahara okupatuan sartzen uzten. Hemen gertatzen ari denaren berri ematen duten hedabideak marokotarrak dira, eta horiek Marokoko segurtasunak berak kudeatzen ditu, bakarrik kontatzen dute Marokok nahi duena. Sahararrek pairatzen duguna ez du inork dokumentatzen. Giza eskubideak errespetatzen direla diote, arlo horretan lan egiten duten elkarteak daudela; hori gezurra da, hemen*

*Aaiun okupatuan eta saharar lurraldeetan mugitzen den guztia, Marokoko Majzen-aren segurtasuna da. (043)*

*Bidaiatzea debekatu didate, adibidez, Genevara joateko baimenak behin eta berriro ukatuz. Azkena 2016ko abenduan izan zen, bidaiatzea debekatu zidatela. (001)*

*[Erakundeko] kide guztiek debekatuta dute irtetea eta haien artean elkartzea. Proiektu politiko berri bat sortzen ari gara eta haiek hura gelditu nahi dute, gu biltzea ekidinez, kosta ahala kosta. Gure etxeetan ere jazarrita gaude eta senideak eta auzokoak bisitatzea debekatuta dugu, konfinatuta gaude, baina konfinamendu politikoa da, ez pandemiak eragindakoa, baizik eta gure ideologiagatik. Oraintxe bertan ere, zurekin hitz egiten ari naizela. 24 orduz gaude kontrolatuta. Egunero jasotzen ditut mehatxuak, eta nire seme-alabek, nire senarrak, nire familia osoak ere. Mehatxuak etxean bertan, etxetik kanpo, nonahi. (019)*

*Orain, pandemia erabili dute gu gehiago konfinatzeko, beti egon gara konfinatuta, baina orain erabatekoa da, alarma- eta setio-egoera. Ezin gara etxetik irten, edo bildu, ez kalean ezta gure senide eta auzokoekin ere. COVID-19a ondo etorri zaie, pozik daude gu etxeratzeko beste aitzakia bat aurkitu dutelako. (059)*

*Kontzentrazioetan beti jipoitzen gaituzte, txarto tratatzen gaituzte, batean ere ez gara kolpeez libratu. Orduz geroztik [Gdeim Izik-eko gertaerez geroztik], manifestazio eta elkarretaratze guztiak debekatu dizkigute. (072)*

*Afrikako futbol kopian Aljeriaren garaipena ospatzen ari ginenean, polizia batek eskutik hartu eta zoruaren kontra jo ninduen, eta arrastaka eraman ninduen. (076)*

*Hemen, Aaiun, hainbat egunez gose greban egon ginen, ia hilabete bat, hura egiten ari ziren lagunekin elkartzasuna adierazteko. Okupazio indar marokoarrek esku hartu zuten eta bortizki jipoitu gintuzten ni eta beste hainbat emakume. (082).*





Iturria: lekukotza (017).



Iturria: lekukotza (029).



Iturria: lekukotza (029).

Adierazpen askatasunarekin duen loturagatik, **informazio-askatasuna ere erreprimitzen** du Marokoko erregimenak, kazetari sahararrei zuzenean eraso eginez.

*Emakumeek manifestazio bat antolatu zuten hondartzatik hurbil, Aaiunen. Nik haien lekukotzak jaso nituen eta argazkiak egiten hasi nintzen. Polizia etorri zen, arakatu ninduten eta Aaiuneko Polizia Errealaren Zentrora eramán ninduten. Bertan igaro nuen gaua, galdeketak, torturak eta mehatxuak pairatuz. (...) Badakit zeri egiten diogun aurre, torturatzen gaituzte, ez digute gure lana kalean egiten uzten edo kartzelatik irteten diren aktibistak elkarriketatzen. Ez dute egiten duten guztiaren lekukorik nahi. (058)*

**Bahiketa** Marokoko agintariek emakume sahararren aurka erabilitako beste errepresio-modu bat da. Maiz, Marokoko segurtasun-indarren kotxeetara igotzera behartzen dituzte emakumeak eta hiriko kanpoaldera eramaten dituzte. Bertan, hainbat orduz, emakumeak jipoitzen, iraintzen eta mehatxatzen dituzte eta gero han uzten dituzte abandonatuta. Bahiketez gain, emakume sahararrek **atxiloketa eta espetxeratze arbitrarioak** aipatzen dituzte. Horiek orduak, egunak edo hilabeteak iraun ditzakete. Dokumentatutako kasu guztietan, atxiloketa eta espetxeratze arbitrarioarekin batera tortura eta beste tratu krudel, anker edo apalesgarri batzuk jasan behar izan dituzte.

*Kotxera igotzera behartu eta haien artean kokatu ninduten, eta bahituta eramán ninduten. Ordu hartan ez nituen 18 urte ere. (002)*

*2009an Aminetu Haidar bisitatzera joan ginen eta poliziak setiatuta zuen bere etxea. Okupazioko poliziaren kotxe batera igotzera behartu gintuzten. Atzetik beste bi kotxe ofizial zetozen, bata Land Rover eta bestea Prado. Wag Saguiara eramán gintuzten. Bertan mehatxatu eta banandu gintuzten. Bahiketa izan zen. Gero, ni arlozez eta kaleko txakurrez betetako leku batean abandonatu ninduten. (005)*

*El Engyir hotelaren ondoan nengoen 2005ko maiatzaren 29an egin zen elkarretaratze batean nengoen. Bertatik indarrez eramán eta kotxe batera igo ninduten. Bucraa kaleko komisariara eramán ninduten eta bertan torturak, erasoak eta irainak jasan nituen. Komisarian beste gizon bat zegoen. Arropa odolez blai zuen, gorputza odoleztatuta, hemorragia handi batekin. Beldur nintzen hilko ote zen, nire ondoan odolusten ari zen. (...) Ordu batzuk geroago aske utzi gintuzten. Nik ubelduraz beteta nuen gorputza. (003)*

*Beti, bidai bakoitzetik itzultzean poliziaren indarkeriaren eta legez kanpoko miaketen biktima gara. Dokumentuak, iraultzaren sinboloak, mugikor pertsonalak, kamerak eta abar konfiskatzen dizkigute. 2017an, Casablancako aireportuan atxilotu gintuzten eta iraindu eta jo gintuzten, iletik tiratu eta gure parteak ukitu zizkiguten... (005)*

*2014an Aljeriatik gentozela Marokoko armada aurkitu genuen gure zain [aireportuan], ordezkaritza sahararra osatzen genuenoi araketa egin ziguten; arropa kendu ziguten, gizon zein emakumeoi, gure gauzak eraman zituzten, eta jo gintuzten, emakume diabetikoak eta adineko pertsonak ere. (043)*

*Casablancan Marokoko segurtasun agenteek gelditu ninduten, zibilez jantzita zihoazen. Hiru egun eman zituzten galdeketeekin eta komisarian atxiki ninduten, atxilotuta ez nengoen arren. Ezin nintzen familiarekin komunikatu. Azkenean, atxiloketa horrek 7 hilabete iraun zuen... (020)*

*Emakume talde horrekin sei hilabete eman nituen kartzelan. Ni adinez txikia nintzen, hamairu bat urte izango nituen. Adin gabeak egoera penagarri horretan espetxeratzea eta horrelako torturak egitea krimena da. Amak gose greba egin zuen eta ia galtzen du bizitza, eta horrexegatik askatu ninduten. (076)*

Emakume sahararren aurkako **difamazioa eta izen onaren aurkako erasoak** gero eta ohikoagoak dira, batez ere sare sozialetan, eta, orokorrean, izaera sexista argia izaten dute. Jazarpen eta eraso mota horrek haien intimitate eskubidea urratzen du eta emakumeak umiliatzea eta haien ingurune sozialetik isolatzeko helburua du.

*Orain metodo berriak erabiltzen ari dira, hala nola, difamazio kanpainak; niri buruzko albiste faltsuak argitaratzen dituzte oraindik. (019)*

*Marokoren okupazioak beste gerra bat ere egiten du, aktibistak difamatzen dituena. Segurtasun marokorrek kudeatzen dituen webguneak eta sare sozialak dituzte, Facebook, Instagram, aktibistak difamatzeko eta kalumniatzeko, askotariko lizunkeriak esanez. Eta dena gure eskubideen aldeko aktibistak garelako eta gure kausari eusten diogulako eta hortzez eta haginez defendatzen dugulako. Espetxeratu gaituzte, torturatu gaituzte, difamatu gaituzte, eta sare sozialak erabiltzen ari dira horretarako. (029)*

*Sare sozialetan difamatzen gaituzte eta gure webguneak pirateatzen dituzte, horietan porno edukia argitaratzen dute, artikulua idazten dituzte gu difamatzeko, prostitutak garela, mertzenarioak garela eta beste gauza asko esanez. Ezin dut ezer komentatu, egitekotan berehala mehatxuak heltzen baitzaizkit Facebook bitartez eta nire telefonora. (043)*

*Difamatu naute emagaldu bat naizela esanez, prostituta bat. Gizarte kontserbadore honetan ni emakume bezala iraintzen saiatzen dira, gizonen ni gutxiesteko. (058)*

*Egin didaten gauzarik txarrena zera izan da, ni ikasketa eremuan gutxiestea. Inteligentzia zerbitzuek orri bat daukate sare sozialetan eta bertan 2012ko argazki bat eskegi zuten non ikaskide batekin agertzen naizen, nire irudia zikintzeko. Nire gelakideek eta beste pertsona batzuek esaten zidaten “zure argazkia sare sozialetan dago”. Nire gelakideen aurrean lotsatuta sentitzen hasi nintzen. (064)*

*Atxilotu ninduten eta telefono mugikorra konfiskatu zidaten. Bertan nuen informazio pribatu guztia atera zuten, nire bizitza pribatuko argazkiak eta bideoak. Gero, guztia sare sozialetan argitaratu zuten, haien daukaten webgune batean eta beste argazki batzuk argitaratuko zituztela mehatxu egin zidaten. Mikroskopio batekin behatuta sentitzen naiz. Baten batekin nabilen bakoitzean, hurrengo egunean sare sozialetan dago. (005)*

Askatasun eta segurtasun pertsonalaren aurkako erasoen artean **egoitzaren bortxatzea** eta **ondasunak suntsitzea** edo **konfiskatzea** ere dago, bai etxebizitzak, bai tresnak eta abereak, emakumeen eta haien familien bizibidea eta ongizate materiala modu zuzenean erasotuz.

*2010eko azaroaren 10ean, indar bereziak indarrez sartu ziren nire etxean. Komando oso batek eraso zigun, beren fusilekin gure alaba txikiak izutu zituzten, Gdeim Izikeko kanpamentuan egondako aktibista atzerritarren bila zebiltzala esan zuten. Gure alabak izugarri beldurtu ziren. (001)*

*Emriklen geunden, etorri ziren eta animalien tokia tirokatu zuten, gameluak gure aurrean hil zituzten. Abererik gabe utzi gintuzten. (021)*

*2005ean Bukraan gertatutakoaren lekuko izan nintzen. Saharar askoren*

*etxeak suntsitu zituzten, gurea ere. Ateak, hormak eta barruan zegoen guztia hondatzen zuten. (043)*

*Gure etxea guztiiontzat zabalik egon ohi zen, batez ere sahararrentzat. Marokoko Majzenak separatistak babestea leporatu zigun eta zigor gisa etxearen zati bat kendu nahi izan ziguten. (...) 2014an modu basatian eraso ziguten. Nire ama, nire seme txikia eta hirurak geunden, etxetik atera gintuzten eta gure gauza guztiak kalera bota zituzten. Gero etxea eraitsi zuten. (047)*

*Etxea hondatu zuten, gure gauzak apurtu eta gure hornigaiak ur-andeletara bota zituzten. (008)*

*Nire gelan sartu ziren eta dena hondatu zuten, kuxinak ere urratu zituzten... Josteko makina bat nuen, familia mantentzeko diru apur bat irabazteko erabiltzen nuena, eta hura ere eramane zuten. Dena mehatxu eta irainen bitartez. (060)*

*Gure ondasun guztiak apurtu zituzten, hozkailuak, sukaldeko tresnak... Etxea hankaz gora utzi zuten eta balioa zuen guztia lapurtu egin zuten. Etxea kristal puskez beteta utzi zuten. (076)*

*Gdeim Iziken ostean, gure etxeak arakatu eta hondatu zituzten, gure altzairuak eta ondasunak, txikienak ere. Poliziak eta armadak gure etxeak arpilatzen utzi zieten. (078)*


Beste gauza garrantzitsu bat da, senarrak Fronte Polisarioan zituzten zenbait emakume sahararrek Marokoko segurtasun indarren presioa izan zutela haiengandik dibortziateko. **Dibortziateko behartzearen** praktikaren helburua militante sahararrak isolatzea eta haien gogoia ahultzea litzateke, haien lotura afektiboak eta familia-harremanak hautsi bitartez.

*Senarra Fronte Polisarioarekin joana zen. Ni atxilotu ninduten eta komisarian ezkontzari amaiera emateko esan zidaten, dibortzioa eskatu eta ezkontzari amaiera eman behar niola. (060)*

*Zenbait emakume ezkontzari amaiera ematera behartu zituztela jakin nuen, senarrak Fronte Polisarioaren armadara batu zirelako. (079)*

### 3.5. Lekualdatze behartua

Lekualdatze behartua batez ere Tindufeko kanpamentuetako errefuxiatu sahararrek pairatu dute baina Mendebaldeko Sahara okupatuko herritar sahararrek ere giza eskubideen urraketa larri hori pairatu izan dute, okupazioa hasi zenetik gaur arte, eta ez lekualdatutako pertsonen senide gisa soilik, baizik eta biktima zuzen gisa ere. Elkarrizketatutako emakumeek gehien aipatzen dituztenak honako hauek dira: birkokatzea (% 77), lekualdatze kolektiboak (% 59), kanporaketak (% 36), konfinamenduak (% 32), lekualdatze indibidualak (% 32) eta familiarrak (% 14) eta bonbardaketak lekualdatze behartuetan zehar (% 14).



Lekukotzek erakusten dutenez, Marokoren okupazioa hasi zenean **lekualdatze behartu kolektiboak** biztanleria saharar guztiari eragin zion. Gero Marokok okupazioaren kontrako aktibista politikoen aurka erabili du, horiek **kanporatuz eta birkokatzea behartuz**.

*Marokoko indarrak heldu zirenean, oso armatuta etorri ziren, tanke eta fusilekin. Denetariko indarkeria erabili zuten. Momentu izugarri eta beldurgarriak izan ziren, Marokoko erregimenaren helburua saharar guztiak garbitzea zen. Jendeak hirietatik alde egin zuen, beste edozein lekura.*

*Familiak beren ondasunak utzi eta alde egiten zuten. (060)*

*1990ean, gure ahizpa nagusia eta biok errefuxiatuen kanpamentuetarako bidean geunden eta bahituak izan ginen Maroko eta Aljeria arteko mugan. Marokoren kuartel batean atxilotu gintuzten eta ia hiru hilabete eman genituen bertan... Gero Tan-Tanera joatera behartu gintuzten, Aaiunera itzultzea debekatuz. Aaiunera urtebete geroago itzuli ginen. Gure ahizpa berriz atxilotu eta Tan-Tanera berriro joatera behartu zuten. (002)*

*Dajlako probintziara bisita bat antolatu nuen, bertako militanteek preso zibil baten heriotzaren inguruan gardentasuna exijitzeko antolatu zituzten manifestazioei estaldura emateko. Dajlatik bueltatutakoan, Aaiunetik kanporatu ninduten eta Dajlan bizitzera behartu ninduten. Aaiunera itzultzea debekatu zidaten. (005)*


*2005eko taldea kartzelatik irten zenean, polizia-kontrol bat zegoen nire zain. 24 orduz atxilotuta egon nintzen, beste aktibista batzuekin batera. Bojadoretik alde egitera behartu ninduten eta bertara itzultzen nintzen bakoitzean kanporatu egiten ninduten. Badia (landa), Smara eta Aaiun artean ibili nintzen. Okupazio indarrak nire izebaren Aaiuneko etxean agertu ziren gaeuz eta berari ere hiria uzteko esan zioten. (029)*

### 3.6. Ekonomia- eta lan-eskubideen urraketa

Marokok Mendebaldeko Sahara okupatuan aplikatzen dituen politiken helburuetako bat sahararren gizarte-, ekonomia- eta lan-bazterketa da eta horrek eragin berezia du emakumeengan. Gehienek ez dute diru-sarrerarik edo oso txikiak dituzte. Horrek, bada, eragin handia du haien biziraupenaren alderdi nagusietan, hala nola oinarrizko elikadura-saskia lortzeko aukera edo autonomia pertsonaleko maila.

Emakume sahararrek pairatzen dituzten ekonomia- eta lan-eskubideen urraketan artean honako hauek ditugu: lan-diskriminazioa (% 49), lan-jazarpena (% 23), lan egiteko debekua (% 21), arrazoirik gabeko kaleratzeak (% 16), soldaten izozketa (% 12), lan-prekariatatea (% 12), bizibideak kentzea (lurreko baliabide naturalei dagokienez) (% 7), lan-baimenak ukatzea (% 7) eta Sustapen Nazionaleko Txartela (SNT)<sup>5</sup> kentzea edo kentzeko mehatxua egitea (% 7).

5 SNTa dutenek diru-laguntza bat jasotzen dute hilean.



Ekonomia- eta lan-eskubideen urraketak sahararrak izate hutsagatik eragiten die emakumeei, baina batez ere haien herriaren eskubideen defentsan parte hartzen duten neurrian. Errepresaliak oso ugariak dira Mendebaldeko Sahara okupatuan lan egin nahi duten aktibistentzat.

**Lan-diskriminazioa eta lan-jazarpena**, baita haiek edo beren senideek lan egitea debekatzea ere, adin guztietako emakumeek pairatzen dituzte.

*Sahararrak oso kualifikatuta bagaude ere ez gaituzte aintzat hartzen, Marokoko edozein kolonok, inolako formakuntzarik gabe, lanpostu hobeak lortuko ditu fosfato-meategietan. Gure gazteak alde batera uzten dituzte. Erabateko langabezian gaude, oso kualifikatuta gauden arren. (008)*

*Unibertsitate-ikasketak dituen 32 urteko gazte bezala, ez dut inolako diru-sarrerarik. Graduatu ostean, lan-deialdi bat egon zen justizia arloan eta, hemen, Saharan, landu beharreko gai bat Marokok proposatutako autonomia*



*zen. Orria zuri utzi nuen... Beste deialdi batera ere aurkeztu nintzen eta Gdeim Iziki buruz galdetu ziguten, jakin nahi zuten zer pentsatzen genuen. Marokoar batzuek esaten zuten kanpamentu horretan zeudenak mafia baten parte zirela, herrialdea ezegonkortu nahi zutela. Nik ezetz esan nuen, independentziaren eta gizarte-justiziaren alde borrokatzen ari ziren sahararrak zirela. Noski, ez zidaten lanpostua eman... (012)*

*Mendebaldeko Sahara okupatuan sahararrek ezin dugu aukera berdintasunez lan egin. Kontu politikoetan ez dabilzan sahararrak ere ez dituzte berdin tratatzen, beraz, imajina ezazu militanteak garenak... Marokoko erregimena nagusi den bitartean ez dugu lan egitea espero. (020)*

*Nire neba-arrebak eta ni goi-mailako tituluak ditugu baina lan egitea debekatu ziguten Fronte Polisariokoak izateagatik. Ni 1993an lizentziatu nintzen eta garai hartan ez zegoen titulazio bat zuen saharar askorik; zigor moduan, ez zidaten inolako lanik eman, baztertu ninduten beti. Nire familian inork ez du lanik, titulazioak ditugun arren. (047)*

*Gazte saharar batek unibertsitatea bukatzen duenean badaki etxean geratu behar izango duela, edozein lanpostutarako bere aurretik kolono marokoarra baitago. Oposizio bat gainditzen baduzu ere, kentzen dizute eta ur handiko arrain marokoar bati ematen diote. Ez duzu aurkituko familia saharar bat ere hiru edo lau kide langabezian ez dituen, diru-sarrerarik gabe. (064)*

**Beste errepresalia batzuk dira arrazoirik gabeko kaleratzeak, soldata izozketak eta lan-mailaz igotzeko oztopoak.**

*2005eko martxoaren 8a zen, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, alegia, eta emakume sahararren duintasunaren aldeko elkarretaratze batean parte hartu nuen. Horren ostean, lanetik bota ninduten eta arrazoi politikoengatik espetxeratu ninduten. Orduz geroztik, ez dut diru-sarrerarik izan. (019)*

*Ez didate soldata igotzen, ezta mailaz ere, aktibista sahararra naizelako. Esaten didate "ez baduzu iritziz aldatzen, beti egongo zara behean, azkenekoekin". (001)*

Marokok beren eskubideak defendatzen dituzten emakume sahararrak zigortzeko erabiltzen duen beste mekanismo bat da **Sustapen Nazionaleko**

**Txartela** kentzea edo horrekin mehatxatzea da (normalean “kartila” izenez ezagutzen da).

*Ni gameluen zaintzaz bizi den familia xume bateko alaba naiz. Nire neba nagusia funtzionario zebilen udalean, baina kaleratu zuten, nire ahizpek kartila erdia kobratzen zuten eta kendu zieten. (029)*

*Diru-sarrerarik gabeko pertsonentzat dagoen txartel hori lortzen saiatu nintzen baina ukatu zidaten niri eta familia osoari. Diru-laguntzetatik baztertzen gaituzte. (047)*

*Ez dut lanik. Diru-laguntza jasotzen nuen baina orain dela hiru hilabete kendu zidaten, aktibista naizela eta Gdeim Izikeko kanpamentuan parte hartu nuela argudiatuta. (055)*

*Herri txikia baina aberatsa gara eta, hala ere, erabateko miserian bizi gara okupazio honen pean. Niri diru-laguntza kendu zidaten etxean batzarrak egon zirelako eta nire iritzi politikoengatik, hori izan zen arrazoia. Diru-laguntza zigor moduan kentzen dituzte, bizitzeko hori besterik ez baduzu ere. (056)*

Beste lekukotza batzuek Marokoren okupazioak dakarren indarkeria ekonomikoaren esparru orokorragoa erakusten dute, hala nola Mendebaldeko Saharako **baliabide naturalen espoliazioa**. Espoliazio horrek eta sahararren ekonomia- eta lan-bazterketak sekulako ondorioak ditu, bizitzeko eskubidearen aurkakoak ere direnak.

*Baliabidetan aberatsa den lur bateko herri pobrea gara eta okupazio indarrak horiek espoliatzen ari dira inolako koplarik gabe. Gure baliabideak atzerrira doaz. (005)*


*Milaka eta milaka kamioi irteten dira Gergaratetik, Mendebaldeko Saharako aberastasunak eramanez. Gure aberastasunak dira eta Europako herrialdeak nola eramaten dituzten ikusten dugu. Eraikitzeke erabiltzen dugun area ere eramaten dute, gu are gehiago marjintzeko. (008)*

*Hemen, lurralde okupatueta, gazteak, prestakuntza eta tituluak dituzten arren, baztertuak dira lan-deialdietara aurkezten direnean. Zenbat saharar baztertu dituzte Fosbucraan edo arrantzan lan egin nahi dutenean. Uzten dieten aukera bakarria emigratzea eta bizitza pateretan arriskatzea da. Ni 1988an jaio nintzen eta nire adiskideekin gogoratzen naizenean, erdia*

*ozeanoan hil zen, emigratu nahian. Hori okupazio-politikaren ondorioa da, eta oso mingarria da. Gazteria trebatu bat bere lurraldean aukerarik ez duena eta ozeanoaren hondoan amaitzen duena. (012)*

### 3.7. Eskubide sozialen urraketak: osasuna eta hezkuntza

Emakume sahararren eskubide sozialen urraketan kasuan, ikerketa honek hezkuntza- eta osasun-eskubideak ikertu ditu batez ere. Lortutako datuen arabera, emakumeek gehien pairatzen duten urraketak dira diskriminazioa arreta medikoan (% 56) edo arreta medikoa ukatzea (% 56). Maiz ere, ikusten dira eskola-jazarpena (% 43), ikastetxeetatik kanporatzeko mehatxuak (% 18) edo kanporaketak (% 11). Eta hauek dira emakumeek eskola eremuan pairatzen dituzten beste indarkeria batzuk: zigorrak (% 15), notak beharantz faltsutzea (% 15), eskola uztera behartzea (% 13) eta bekak ukatzea (% 7).



Osasun-langileen edo ospitaleetan lan egiten duten polizien **diskriminazioaren** eta **arreta medikorik ezaren** salaketak oso ugariak dira. Kasu askotan, osasun-langile marokoarrak zakarrak dira borondatez eta, beste batzuetan, segurtasun indarren presiopean daudela dirudi.

*Manifestazio baketsu horretatik hiru egunera, etxean sartu ziren. Polizia batek jaurtitako harrikada bat jaso nuen. Moulay Hassan Ben Mehdi ospitalera eraman ninduten eta bertan ez ninduen inork artatu. (005)*

*Ospitalera joan nintzen erditzear nengoelako. Bertan, denak ziren marokoarrak eta oso urduri jartzen hasi nintzen, beldur nintzen, ezin nuen... Emaginak mehatxu egiten zidan, esaten zidan “zertarako etorri zara ez baduzu erditu nahi? Ea hiltzen zaren”... Ni edo nire sabelean neraman hura hilko zuten beldur nintzen, ezin nuen ezer gehiago jasan. (043)*

*Bertan zeuden emakumeak jo zituzten, nire neba ere jo zuten eta niri besoa hautsi zidaten. Anbulantzia batek ospitalera eraman gintuen baina ez ziguten arreta medikorik eman. Jotzen gaituztenak marokoarrak dira eta ospitaleetan hartzen gaituztenak ere, eta guztiak dira Marokoren segurtasunekoak. (043)*

*Ospitalean, emakume horrek [osasun-langilea] ez ninduen artatu, begia aterata nuen eta ez zidan benda bat ere eman. Nik ur apur bat emateko eskatzen nien, oso egarri bainintzen baina ez zidaten inolako kasurik egin. Majzenaren beldur ziren, entzungor egin zidaten. (...) Polizia batek iletik hartu eta arrastaka eraman ninduen patiora. Bestan ostikada batez zaborraren gainen bota ninduen. Odola ahotik botatzen hasi nintzen eta haiek odola hartu eta aurpegian jartzen zidaten. (...) Beste gela batera eraman ninduten eta bertan esku-burdinak jarri eta galdetegia hasi zen. Txandakatzen ziren, ordu erdiro beste galdekatzaile batzuk etortzen ziren eta sinatzeko eskatzen zidaten. Nik ez nuen sinatu eta horrela eduki ninduten gau osoa. Hatzamar guztietako hatz-markaz sinatzera behartu ninduten. Horrela egon ginen goizeko 7ak arte. Emakume garbitzaile bat etorri zen, haiek kanpoan zeuden, erretzen, nik edateko zerbait emateko eskatu nion eta berak baso bat esne eman zidan. Telefono zenbaki bat eman nion bertan nengoela abisatzeko baina momentu horretan poliziak etorri ziren eta emakumea jo zuten, esan zioten ez zuela berriz ospitaleetan lanik egingo. (029)*

*Ezin dugu ospitaletara jo horiek ere erakunde polizialak edo militarrek direlako. Ez gara bertako langileengan batere fidatzen. Gure medikuntza tradizionala nahiko ona da eta askotan salbatu gaitu. (005)*

*Ospitalera joan nintzenean injekzio batzuk eman zizkidaten, bakoitza asko kostatu zitzaidan eta lehenengoa jarri nuenean alergia eragin zidan. Erizain saharar bati eraman nizkion eta berak odoleko bakterietarako zirela esan zidan, baina nire analisietan ez zen odoleko bakteriarik ageri. Oraindik ditut gordeta. Arlo guztietan sufritzen dugu, gizarte-arloan, osasun-arloan... Arlo guztietatik baztertzen gaituzte sahararrak garelako. (033)*

*Jotzen nautenean edo zauriren bat daukadanean, ospitaleetan zerikusirik ez duten botikak ematen dizkigute beti. Hortaz, beti medikuntza tradizional sahararrera jotzen dugu zauriak eta ubeldurak sendatzeko, era tradizionalan tratatzen ditugu, saharar erara. (043)*

Bestalde, hezkuntza eskubidearen urraketa nagusiak honako hauek dira: **eskola jazarpena**, ikastetxetik kanporatzeko mehatxuak, **zigorrak**, ikastetxetatik **kanporatzea** eta **ikasketak uztera behartzea**. Datu horiek azaltzen digute zergatik elkarrizketatutako emakumeen % 44k ez duten ikasketa formalik edo bakarrik lehen hezkuntza egin duten.

*1994tik 2000ra bitartean debekatuta neukan matrikulatzea. Gero, nire matrikula Rabaten izan zen, Marokoko hiriburua. Bertan matrikulatzera behartu ninduten, saharar lurralde okupatuetan ez baitago unibertsitaterik. Bertan arazo berdinak izan nituen, mehatxuak, jazarpena, ezin nuen normal ikasi nire ikaskideek bezala, ezin nintzen ikasleen egoitzetan sartu, kalbarioa zen unibertsitatean. Azkenean, Aaiunera itzuli nintzen eta urrutiko hezkuntza egin behar izan nuen, nire kabuz. Gero urte asko eman nituen kartzelan [atxilotuta/desagertuta]. Ezin izan ditut ikasketak bukatu, ezta hezkuntza duina izan ere. Horiek dira okupazioaren eta desagertze behartuen ondorioak. (019)*

*Bigarren hezkuntzan nengoenean, 1999an, Marokoren okupazioaren aurka manifestatu ginen eta administrazioaren mehatxu asko jaso genituen gelan. Horrela jarraitzekotan, kartzelan, bahituta eta kanporatuta bukatuko genuela esaten ziguten. 2000. urtean, azkenik hainbat ikasle kanporatu gintuzten. (043)*

*Agadiren eta Marrakexen matrikulatzea debekatu zidaten, bietan. Eta berriz ez saiatzeko esan zidaten, Inteligentziako Zuzendaritza Nagusiaren (IZN) agindu bat zegoela ni unibertsitatean matrikulatzea debekatzen zuena. Prestakuntza jasotzea eta baliagarriak izan zitezkeen ikasketak egitea debekatu digute. Aukera hori galdu dut. (012)*


*Nire unibertsitate ikasketetan arrazakeria eta diskriminazio handia jasan nuen, batez ere saharar jantziak eramaten genituenean. Batean ikasleen egoitzako gure gelako atean paper bat itsatsi zuten: "saharar kiratsak". Beste batean, egoitzan mehatxu eta eraso egin ziguten. Zaintzaileak ateratzen dituzte eta soldaduak sartu, eta esaten diete "hor dituzue saharar horiek". Logeletan giltzapean babestea besterik ez zaigu geratzen. (035)*

*2005eko abenduaren 16an institutura joan ziren. Nire ahizpa hartu eta bertan jo zuten, institutuaren barruan jipoitu zuten. Ospitalera eramateari uko egin zioten, eta anbulantzia bere bila etortzea eragotzi zuten. Gero gure etxea inguratu eta bisita guztiak eragotzi zituzten. Bera batxilergoko bigarren mailan zegoen. Jazarri eta marjinatu zuten, oso modu arrazistan, eta jipoitu zuten egun horren ondoren bi hilabetez egon zen mugitu ezinik. Guk, txikiek, eskolara joateari utzi genion, beldurragatik. Horrez geroztik, nire ahizpari suspenditu zioten eta ikasketekin jarraitzea eragotzi zioten. (...) Ni 5. mailan nengoenean, egun batean polizia bat sartu zen gelan zuzendaria eta atezain nagusiarekin. Esan ziguten: "badakizue eskola barruan ere hartu ahal zaituzteguna; bahitu eta poliziaren lokal batera eramane eta inork du zuen berri izango". (064)*

*12 urteko gure alabaren ikastetxeko zuzendaritzatik deitu zidaten. Heldu nintzenean zuzendaria eta beste pertsona batzuk alaba galdekatzen eta jotzen ari ziren. Militarrez jantzi zela eta saharar bandera zeukala esan zidaten. Komisariara eramane gintuzten eta telefonoak kendu zizkiguten. Gero, bera beste leku batera eramane zuten, berriz ere galdekatzeko eta jotzeko. Oihukatzen eta adiakatzen entzuten nuen baina ez zidaten berari hurbiltzen uzten. Ni beldurrez zorabiatuta nengoen, nire alabagatik, ezin nuen hitz egin, oso kezkatuta nengoen. Etxera joateko agindu zidaten, berarentzako arropa bila. Damutu nuen, beldur nintzen itzultzean alaba aurkituko ez ote nuen. Itzuli nintzenean bera lur jota zegoen, negarrez. Esan zidan mehatxatu eta jo zutela. Bera jotzeko txandakatzen ziren eta bere mugikorrean saharar herriari edo Fronte Polisarioari buruzko*

*berriren bat aurkitzen zuten bakoitzean berriro jotzen zuten. Bortxatzen ere saiatu zirela esan zidan. (062)*

*2008an Aaiun okupatuan aurkeztu nintzen. Azterketa prestatzeko ikasi nuen eta onartuen zerrenda begiratu nuenean ikusi nuen ez nengoela bertan. Mendebaldeko Sahara okupatuko Bojador hiriko zerrendetan izena eman nuen. Azterketa prestatu nuen baina marka gorri bat jarri zuten nire dokumentuetan. Lau urtez ikasteko eskubidea ukatu zidaten. Horrek, min handia eragin zidan. Kolpe hori gainditzea asko kostatu zitzaidan, bidegabea zen. Orduan jakin nuen arlo ekonomikoan kaltea eragin zidaten bezala, nire prestakuntza akademikoarekin gauza bera egiten ari zirela. (005)*



Iturria: lekukotza (062).

*Txikitan ez genuen ikasi eta ezjakintasunak lotzen du. Zenbait eskolatan egon nintzen, baina sahararrak izateagatik estigmatizatzen gintuzten eta gure familiak esan zuen neskek ez genuela eskolara gehiago joan behar. Ez nintzen gehiago joan. Gure familiak guri zerbait gertatzeko beldurragatik hartu zuen erabaki hori; izan ere, irakasleek jotzen gintuzten, estigmatizatzen gintuzten eta arrazakeria pairatzen genuen sahararrak izateagatik. (046)*

Emakume sahararrek aipatutakoen artean **notak beherantz faltsutzeak** eta **bekak ukatzeak** ere badaude. Praktika horien helburua haiek eskolan aurrera egitea eragozte da.

*Txikitan medikuntza ikasi nahi nuen. Nota ona izan nuen batxilergoko lehenengo mailan. Eta bigarren mailan espero ez nuen nota jarri zidaten. Horrek min handia eman zidan, asko ikasi bainuen. Urtebete geroago, medikuntzara sartzeko eskatutako nota beheratu zutela ikusi nuen eta nire burua aurkeztu nuen baina itxarote-zerrendan utzi ninduten. Eta berriz ere kanpoan utzi ninduten. Orduan, erizaintzara aurkeztea erabaki nuen. Lehenengo proba ordenagailuak zuzentzen zuen eta hura gainditu nuen. Bigarren proba ahozkoa zen, nik banekien behar beste prestakuntza nuela, eskatzen zuten frantses maila nuen eta asko ikasi nuen, baina azterketa amaitutakoan konturatu nintzen nire fitxan letra bat jarri zutela. Emaitzak*

*irten zirenean nire izena ez zegoen gaindituen artean. Konturatu nintzen ez nindutela hartu arrazoi politikoengatik. (030)*

*Elkarretaratze bat zegoen bakoitzean mehatxu egiten zidaten ikasturtea suspendituko zidatela. Hura zen niri presioa egiteko erabiltzen zuten baliabidea, ikasketak. Lehenengo urtean nota ona izan nuen azterketetan eta, hala ere, suspenditu zidaten, zero batekin. Berrikuspena eskatu nuenean ukatu zidaten. Irakasleek pribatuan esaten zidaten “ez eskatu hori, utzi”. Bigarren urtean gauza bera egin zidaten. Hirugarren urtean zuzendariak esan zidan “ikastea debekatuta duzu”. Orduan, guztiz debekatu zidaten ikastea. Batxilergoa nire kabuz bukatu nuen, baina gauza bera egin didate, hiru edo lau urte daramatzat ziurtagiria eskatzen eta ez didate eman nahi. (064)*

*Notak heldu zirenean hunkituta geratu nintzen, oso nota baxua nuen, ez nuen merezi. Ezin izan nuen berrikuspena eskatu, nire aurkako errepresalien beldur nintzelako, ikasturtea suspendituko zidaten beldur. Etsi behar izan nuen. Horrek, prestakuntza izateko aukera galtzea ekarri zidan. (022)*

*Ni ikasle ona nintzen, baina bigarren hezkuntzatik nire nota beti zen 20tik 3. Nota txarragoak genituen gure iritzi politikoengatik. (012)*

Hezkuntza arloko errepresaliek eragina izan dute bai elkarrizketatutako emakumeengan, bai haien senideengan.

*Ni osaba-izebarekin hazi nintzen eta haiek neskoï zerbait gertatzeko beldur ziren, horregatik ez ninduten eskolara sartu. Orain, nire seme-alabek, zailtasun handiak izan dituzte, oztopoak jartzen dizkiete haien ziurtagiriak egiteko edo beka bat lortzeko, ez dituzte berdin tratatzen sahararrak eta aktibisten seme-alabak izateagatik. Prezioa gure seme-alabak ordaintzen ari dira. Gure seme nagusia atxilotua eta jipoitua izan da, eta unibertsitean sartu zenean oztopo pilo bat jarri zizkieten eta azkenean ikasketak utzi behar izan zituen. Bere anaiari gauza bera gertatu zitzaion, Marrakexen matrikulatu zen eta han mehatxu egin zioten, ikasketak uztea erabaki zuen zerbait gertatzeko beldur zelako. Etxean geratu zen, esaten zuen ez zuela polizia-kontrol batean atxilotua izan nahi, zerbait gerta behar bazaio, etxean gertatzeko. Gainontzeko seme-alabek, hori ikusita, ez dute ikasi nahi; emaitzak horiek badira, Marokok Saharan jarraitzen duen bitartean ez dago etorkizunik. (033)*



*Gure seme-alabak estigmatizatuak dira, suspenditzen diete, nota baxuak jartzen dizkiete nahi dituzten ikasketak egiteko aukera izan ez dezaten eta, jakina, ez diete bekarik ematen unibertsitate-egoitzetan egon ez daitezen. Garraioarekin ere ez diete laguntzen. Hori, bada, ikasleei zuzendutako mezu bat da, politikan sar ez daitezen. (001)*

*Ikasten nuenean diskriminazio asko pairatu nuen Marokoren okupazioaren aurka borrokatzen duen aktibista baten alaba naizelako. Prestakuntza akademikoari eta etorkizunari dagokionez, badakit okupaziopean ez dudala etorkizunik, unibertsitate guztiak Marokon daude, saharar lurralde okupatuetan ez dago unibertsitaterik eta horrek Marokora joatera behartzen gaitu, ikasketekin jarraitu nahi badugu. Saharar aktibisten seme-alabei ez digute aurrera egiteko aukerarik ematen, eta beka ukatzen dizkigute. (022)*


*Marokon ikasten ibili naiz, lehen eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxeetan, eta egunero zigortzen eta estigmatizatzen gaituzte eta suspenditzen digute sahararren seme-alabak izate hutsagatik. Ezer lortzeko aukerarik gabe hazi gara, kolonoek eta kolonoen seme-alabek, ikastetxeetako langile marokarrek eta bulegoetako funtzionarioek gu estigmatizatzen gaituztela. Suspenditzen digute, oso nota baxuak jartzen dizkigute eta, hortaz, ezin dugu nahi dugun karrera aukeratu. Ni beka lortu ezin dituztenen zerrenda beltzean nago, aktibistak garelako eta egiten dugun militantziagatik. (058)*

*2018an, unibertsitateko hirugarren urtean nengoenean, beste guztiei emandako beka eta garraiorako kredituak ukatu zizkidaten. Hori da okupazio indarrek erabiltzen duten modua militanteon eta giza eskubideen aktibiston seme-alabak unibertsitate publikoetatik kanpo gera gaitezen behartzeko. Ni ekonomian graduatua naiz, kontabilitate-adarrean. Lan egiteko deialdietara aurkeztu naiz eta inoiz ez naute hartu, badakigu lanpostu gehienak nahierara ematen direla. (004)*

### 3.8. Eskubide kulturalen urraketa

Eskubide kulturalen urraketan artean, elkarrizketatutako emakume sahararrek honako hauek pairatu dituzte batez ere: saharar etxebizitza tradizionalak (jaimak) debekatzea (% 86), saharar nazioaren sinboloak eramatea edo

erakustea debekatzea (% 80) eta saharar jantzi tradizionalak eramateagatik mehatxatzea (% 66). Horien atzetik aurkitzen ditugu sahararren historia eta identitatea ukatzea (% 58), jaioberriak saharar izenekin erregistratzea debekatzea (% 51), saharar jantzi tradizionalen erabilera debekatzea (% 43), hassaniaz hitz egiteagatik mehatxu egitea edo jazartzea (% 30) eta hassaniaz hitz egitea debekatzea (% 23). Azkenik, emakumeen % 7k aipatzen du okupazioan zehar akulturazio behartua pairatzen ari direla.



Mendebaldeko Sahara okupatuan, saharar etxebizitza tradizionalak, hau da, jaimak debekatzea asko areagotu da 2010ean Marokoko segurtasun indarrek Gdeim Izik kanpamentua indarrez bota zutenetik.

*Udaberrian beti joaten ginen landara eta udan hondartzara, eta gure jaimak jartzen genituen, gure kultura da eta saharar bezala aurkezten gaitu. Gdeim Iziken ondoren, jaima erabiltzea debekatu zuten, zure askatasuna*

*zure lurraldean, zure kultura-askatasuna, horren kontra egiten dute. Jaima bat jarri eta berehala agertzen da Marokoko errege-jendarmeria eta hura kentzera behartzen zaitu. (012)*

*Gdeim Iziken kanpamentuaz geroztik, ez dute jaimak jartzeko aukerarik ematen. Smaran, bero handia egiten du udan eta ez daukagu Aaiunen alokatzeko diru nahikorik. Lehen, etortzen ginen eta familia osoarentzako jaima bat jartzen genuen hondartzan. Orain, ordea, ezin dugu, debekatuta dagoelako, dena hartzen dute mehatxu politikotzat, baina kanpotik gatozen familientzat zaila da alokatzea. Ez digute jaima jartzen zuten, ez hondartzan ez hiriko lekuren batean ere. (055)*

*Jaimak debekatuta daude. Badiara [landara] bagoaz, hemendik hurbil, hiritik gertu, eta jaima bat jarri nahi badugu, ez digute uzten. Jaima jarri bezain laster agertzen dira eta kentzera behartzen zaituzte. Gdeim Izikeko gertakariez geroztik ez dute horiek jartzeko aukerarik ematen, esaten dizute “kendu zuk edo guk kenduko dugu” eta horrekin beste arazo eta mehatxu batzuk ekarriko dituen borroka batean sartzen zara. (064)*

*Jaima –Gdeim Izikeko sinbolo den heinean– Marokoko etsaitzat hartzen hasi zen. Lehenengo, napalmez bombardatutako Um Draigan eta, gero, Gdeim Iziken, denok jarri baitzituzten jaimak bertan: sahararrak hiritik irten eta Gdeim Iziken ezarri ziren, haimetan. Eta orain, Marokoren okupazioak debekatu ditu, jarri bezain pronto polizia etorri eta kentzen dizute. Leku guztietan debekatuta dago horiek erabiltzea eta Badian [landan] jartzen baduzu, 400 bat kilometrora, baldintza batzuk bete behar dituzu, badago helikoptero bat orduero leku horiek patruilatzen dituen, guztia kontrolatzeko. Etxeen gainean ere debekatuta dago eta hondartzetan kartelak daude hura debekatzuz. Marokon histeria dago gai horrekin. (043)*

Saharar nazioaren sinbologia debekatzeak, edozein formatan, **jantzi** tradizionala erabiltzeagatik mehatxu egiteak, saharar izenak erregistratzea debekatzeak edo hassaniaz hitz egiteagatik jazartzeak emakume sahararren eguneroko bizipenean eragiten dute.

*Ni otsailaren 27an jaio nintzen, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zen egun berean, eta ni egun horretan erregistratzea debekatu zuten, martxoaren 1ean erregistratu ninduten. (...) Ikasten nuenean,*

4. mailan, Fezeko irakasle bat etorri zen. Guri garbiketa egokitu zigun, esan zuen “hiru hauek melhfa daramate, gaur garbitzen hasiko dira”. Umiliatu nahi gintuen. (...) Bigarren hezkuntzan eta unibertsitate aurreko ikasketetan geundenean, gure hitz egiteko moduagatik jazartzen gintuzten, gure dialektoagatik. Irakasleekin hitz egiten genuenean marokoar dialektoan hitz egitera derrigortzen gintuzten. (012)

Autobusetara igotzen dira eta mantuak kentzeko esaten digute, guk ez dugu egiten. Auzitegietan, leku instituzional guztietan esaten digute beste janzkera bat erabili behar dugula. Mantuak erabiltzeagatik mehatxu egiten eta jazartzen gaituzte, baina horiek janzten jarraituko dugu gure janzkera baita. (021)

Unibertsitatera joateko Marokoko hiri batera joan behar dut, eta ni baino eskarmentu gehiago duten neskek esaten didate han ezin izango dudala melhfa jantzi edo nire dialektoa erabili, marokoarren diskriminazioa ez jasateko, batez ere bertan dauden amazigen eskutik. Haien moduan jantzi eta hitz egin beharko dudala, ez nabarmentzeko. (022)

Behin batean, kalera irten nintzen saharar nazioaren urteurrena ospatzera eta saharar jantzi tradizional zuri eta beltza neraman. Kaletik jazarri ninduten, bi agente nire atzetik zetozen eta esaten zidaten “Zergatik jantzi duzu arropa hori?” eta “Zer ari zara ospatzen?”. Atzetik etorri zitzaizkidan eta denetariko lizunkeriak esan zizkidaten etxera heldu nintzen arte. (057)

Gure auzo batek izena aldatu behar izan zion semeari; izan ere, saharar izen konposatu guztiak, hala nola Brahim Gali edo Mohamed Salem debekatuta daude marokoar erregistro zibilean. (...) Gure izen tradizionalak, martiri sahararren izenak, buruzagi edo aktibista sahararren izenak alergiaz eragiten diote Marokoko administrazioari. (043)

Nire semeari izen saharar bat jarri nahi izan genion baina ez ziguten utzi. (062)

Senarrari esan zioten ezin genuela gure semea nahi genuen izenarekin erregistratu, Mohamed edo horrelako izen bat jartzeko esan zioten. (072)

Gure borroka edo gure liderrak irudikatzen dituzten izen guztiak debekatuta daude Marokoko erregistro zibilean. (057)

*Erregistrora zoazenean ez dizute izen sahararrik onartzen, beste bat aukeratzeko esaten dizute, bestela semea edo alaba erroldatik kanpo geratuko dela, jaiotza-agiririk gabe... Beste izen bat asmatzea beste aukerarik ez duzu, jaioberriak nortasun-agiri bat izan dezan eta eskolan matrikulatu ahal izateko; izan ere, jaiotza agiri hori ez baduzu existituko ez bazina bezala da. (058)*

*Haiek bezala hitz egitera behartu nahi ninduten, beren dialektoan, eta uko egin nien erabat, saharar atso bat naizela esan nien, beti hassaniaz hitz egin dudala eta hala jarraituko dudala. (021)*

*Behin marokoar talde batek barre egiten zuen nire hizkeraz, eta esan zidaten "gora Marokoko erregea" esan behar nuela baina nik, jakina, ez nuen esan. (082)*

**Sahararren historia eta nortasuna ezkutatzea edo ukatzea Mendebaldeko Sahara okupatua akulturatzeko proiektuaren euskarri bat da.**

La **ocultación o negación de la historia y la identidad saharauí** constituye otra de las piedras angulares del proyecto marroquí de aculturación del Sáhara Occidental ocupado.

*Marokoren helburua gazteak dira, eta horren ondorioa ezjakintasuna da. Marokok ezjakin mantendu nahi ditu lurralde okupatutako sahararrak. 1998an, "Aaiuneko aitzindariak" izeneko programan, gazteak marokoar lurraldeetara erbesteratu zituzten, 16 eta 17 urterekin, familiaratik urrun eta bestelako kultura batean. (...) Hemen, eskolan, egunero abestu behar duzu Marokoren ereserkia. Kulturalki ere okupatuak izan garela ikusten dugu. (012)*

*Lagun batek saharar nortasunari buruzko ikerketa bat egin zuen eta dokumentazioa ere ematen zion irakasle baten laguntza izan zuen, baina ikastetxeko administrazioak ez zion onartu. Irakasleak lagunari esan zion ezin zuela laguntzen jarraitu beldur zelako. Nire lagunak ez zuen ikasturte hori gainditu. (035)*

*Irakasten diguten historia bakarra Marokoko errege alaiena da eta hori ez da benetako historia, historia desitxuratua da, haien interesen arabera aldatzen dutena. Mendebaldeko Saharako historiari buruz ezin da ezer esan. (043)*




#### 4. Giza eskubideen urraketen erantzuleak







Giza eskubideen urraketa larrien biktima diren emakume saharar gehienek, hain zuzen, % 75k **haien aurkako egitateetan parte hartu duten Marokoko segurtasun indarrak** identifikatzen dituzte. Gainontzeko % 25ak ezin du hori egin. Identifikatutako segurtasun indarrak honako hauek dira: polizia (% 64), inteligentzia-zerbitzuak (% 25), indar laguntzaileak (% 18), armada (% 11) eta jendarmeria (% 7). Sarri askotan, Marokoko agenteek zibilez jantzita jarduten dute, eta biktimek hainbat segurtasun indarren operazio bateratuak ere aipatzen dituzte.



*Erantzule zuzenek, bahituta eraman gintuzten horiek, polizia bezala aurkeztu zuten beren burua. (039)*

*Tortura eta giza eskubideen urraketa horien erantzuleak polizia eta indar laguntzaileak izan ziren. (045)*

*Bahiketa beti berdin egiten dituzte, zure bila datoz zibilez jantzita. Baina guztiok ezagutzen ditugu. Haien kotxeak ofizialak dira. (060)*

*Gure aita eta ama eraman zituztenak poliziez, soldaduz eta jendarmez osatutako talde bat izan zen. (034)*

*Poliziak, indar laguntzaileetako kideak eta segurtasun sekretuko kideak ziren, kalez jantzita zihoazen, ez nabarmentzeko eta zapalkuntza-indar bezala ez agertzeko. (043)*

Gainera, emakumeen % 69k beren biktimario zuzenak identifikatzeko gai dira; gainontzeko % 31k ezin dute hori egin. Hori datu deigarria da, izan ere, torturaren eta bestelako tratu krudel, anker eta apalesgarrien kasuan, adibidez, munduan duten inpunitate maila azaltzen duten faktore nagusietako bat da biktimek zailtasunak izaten dituztela torturatzaileak identifikatzeko eta gertatutakoa frogatzeko. Mendebaldeko Sahara okupatuan, aldiz, atxilotutako eta torturatutako zenbait emakumek biktimarioek aurpegia estalita zutela, begiak estali zizkietela edo lurrera begiratzera behartzen zituztela adierazten dute baina, kasu gehienetan, erantzuleek aurpegia erakusten zuten inolako arazorik gabe. Horrek argi erakusten du Marokoko indarrek sahararren aurkako ekintza errepresiboetan duten erabateko zigogabetasuna.

*X segurtasun-aparatuko ofiziala zen, justizia jainkotiarrak bera zigortu zuen, 2009an hil baitzen. Institutuan nengoenean, berak oso hurbiletik zelatatzen ninduen, ikastetxeko zuzendaritzara etortzen zen nitaz galdezka. (012)*

*X-k inolako lotsarik gabe onartu zituen desagertzeak. Torturatzen ninduen bitartean, esaten zidan “jakin nahi dugun hori esaten badiguzu eta informazio zehatzak ematen badizkiguzu, etxera itzuliko zara, eta ez baduzu egiten, zure etorkizuna amamarena baino okerragoa izango da [amama desagertuta zegoen]. (001)*

*1984an X-rengana eraman ninduten eta hark esan zidan “begira, ni astaputza naiz, murtzikatu gabe irensten dut: zuri buruz beste ezer esaten badidate, burua moztuko dizut”. (013)*

*[Biktimarioak] asko dira, nik batzuk ezagutzen ditut eta beste batzuk ez, oso talde handia da, eta batzuek ezizenak erabiltzen dituzte. Nagusia den bat dago, X esaten diote, Bojador okupatuan, eta X izeneko beste bat dago. (043)*

*Lehen, txikia nintzenean ez nituen ezagutzen, ezizenak jartzen nizkien baina orain bai ezagutzen ditut borreroak eta torturatzaileak (...). Asko*

*dira, eta guztiak torturatu gaituzten berberak dira. Denak dira gizonak, hemen bizi dira eta Marokoren zerbitzu sekretuetako eta segurtasuneko kideak dira. (037)*

*Zelatatzen gaituen horren izena ezagutzen dugu, baina ez bere abizena. Aurreko auzoan bizi ginenean, bertan zelatatzen gintuen eta, auzoz aldatu ginenean, hona ekarri zuten gu zelatatzen jarrai zezan. Jotzen gintuzten torturatzaileetatik ere batzuk ezagutzen ditugu. (033)*

Mendebaldeko Sahara okupatuaren kasuan, azpimarratu beharra dago, emakumeen esanetan, kasuen % 21n **zibil marokoarrek indarkerian parte hartu** dutela. Horien parte-hartzea indar polizial eta militarrek egindako ekintza errepresiboetan eman da, adibidez, zirkulazio, elkartzeko eta manifestazio eskubideak mugatzeko ekintzetan, egoitzen bortxatzean eta bandalismo ekintzetan eta familia sahararren ondasunak arpilatzean.

*1999ko irailaren 28ko gertakarietan, segurtasun indarrek armak eman zizkieten Marokoko hainbat kolonori, hala nola ezpatak, aizkorak, kateak eta aiztoak eta esan zieten “joan saharar guztiak akabatzeraz”. Marokoren segurtasun indarren laguntzaz, oldea hasi zen, etxeak botatzen hasi ziren, jotzen gintuzten, ez zitzaizkien axola sexua edo adina. Dena suntsitzen zuten, altzairuak, tresnak, eta emakumeen bitxiak lapurtzen zituzten. Hiru egun horiek infernua izan ziren, gure etxeetan puskatuko gintuztela uste genuen, izugarria zen. Ni haurdun negoen eta kolonoek eta segurtasun indarrek harrikadak botatzen zizkidaten sabelera. (006)*

*2010ean, Gdeim Izikeko kanpamentuan nengoen, familiarekin. Goizeko hiruretan esnatu nintzen, oso izututa, oihuak entzuten nituen, airez eta lurrez erasotzen ari ziren. Armada gas negar-eragileak eta gomazko pilotak botatzen ari zen. Gero, liskarrak Aaiunera mugitu ziren. Neska jaiotze berri bat, 8 eguneko, bota ziguten substantzia toxiko baten eraginez hil zen. Haiek leporaino zeuden armatuta, fusilekin, gomazko pilotekin, gasekin, zibirez jantzitako poliziak, eta guk harriak edo ihes egitea beste aukerarik ez genuen. Hurrengo egunean, zibil marokoarrek liskarretan parte hartzeraz behartu zituzten eta gizonak, emakumeak eta umeak etorri ziren, makilaz edo harrikadez auzoko sahararrekin borrokatzeraz. Etxebizitza batzuk erre zituzten. Gure etxera etorri ziren eta jo gintuzten. Oso egun latzak izan ziren. (080)*

Beste batzuetan, ikusi dugun bezala, Marokoko kolonoek jazarpen politikoan parte hartzen dute hainbat eremutan: ikastetxeak, osasun-zentroak, Marokoko administrazio-bulegoak, eta beste leku batzuk.

Beste alde batetik, lekukotza batzuetan, Mendebaldeko Sahara okupatuko giza eskubideen urraketetan Marokoko agintariak duten erantzukizunaz gain, **nazioarteko eragileen erantzukizuna** ere aipatzen dute, hala nola Nazio Batuena, Europar Batasunarena eta hainbat estaturen; adibidez, Espainiarena, saharar lurraldea deskolonizazio prozesua amaitu gabe abandonatzeagatik eta geroko erregimen marokoarrarekin izan duen adostasunagatik, eta Frantziarena, Marokorekin duen aliantza eta konplizitate estuagatik.

*Nazio Batuek engainatu gaituzte, 30 urtez negoziazioen zain egon gara, eta haiek bazekiten ez zirela gertatuko, eta ez dute ezer egin horiek gerta zitezten. Gure bizitzaren 30 urte galdu ditugu itxaroten. Nazio Batuek guretzat batere onuragarria ez den su-etena behin eta berriro luzatu dute. Guztiz kontrakoa, su-etena bizirik hil gaitu. Mendebaldeko Saharan Marokok giza eskubideak behin eta berriro urratzen dituela ikusten dugu eta Nazio Batuek ez dute inoiz ezer egin. Mendebaldeko Saharan Erreferenduma Antolatzeke Nazio Batuen Batzordearen aurrean bonbardatu gaituzte, baina haiek ez dute hori inoiz salatu; aitzitik, Mendebaldeko Sahara okupatuko giza eskubideen urraketak normalizatu egin dituzte. (078)*

*Erantzuleak Marokoko agintariak dira, eta Espainiari ere leporatzen diogu erantzukizuna, gu abandonatu eta gure lurraldea Marokok iparraldetik eta Mauritaniak hegoaldetik konkistatzen utzi zuelako. (055)*

*Europar Batasunak Saharako aberastasunak arpilatzea babesten du, eta horrek sahararren pobretzea eta marjinazioa dakar. Frantziak gure aberastasunez baliatzen da eta, eskua altxatuz, Mendebaldeko Sahara Marokorena dela esaten du. Nork adituko digu? (008)*

## 5. Giza eskubideen urraketek eragindako ondorioak






Ikerketa honetan dokumentatutako giza eskubideen urraketen ondorioak fisikoak (% 91), psikologikoak eta emozionalak (% 84) eta familiarrak eta sozialak (% 74) dira. Ondorio horiek, maiz, kronifikatzen dira, haien larritasunagatik eta indarkeria egitateen ostean ez dagoelako inolako arreta mediko eta/edo psikosozialik. Gainera, zenbaitetan, inpaktu horiek ondorio mugatzaileak eta desgaitzaileak izan ditzakete emakumeen bizitzaren dimentsio batean edo batzuetan.

## 5.1. Ondorio fisikoak

Atzemandako ondorio fisikoen artean honako hauek dira ohikoenak: min kronikoa (% 70), loaren alterazioak (% 59), gaixotasunak (% 57) eta mota askotako zauriak (% 54). Beste ondorio fisiko hauek ere aipatzen dituzte: elikaduraren alterazioak (% 39), desgaitasun fisikoa edo sensoriala (% 38), ospitaleratzeak (% 32), hausturak (% 28) eta ugalkortasuna galtzea (% 16).



Lekukotzetan ugari agertzen dira indarkeriaren ondorio fisikoen adibideak. Jarraian, horietako batzuk ditugu.



Iturria: lekukotza (006).

*Ondorioak asko dira, orain bizkarreko, belauneko edota sudurreko minak ditut. Sudurra hautsi zidaten, sorbaldak, buruko mina daukat... (005)*

*Ostikada bat eman eta saihets-hezur bat hautsi zidan, une hartan ez nintzen konturatu. Mugimendu bat egin nuen eta uste nuen minak hilko ninduela. Uste dut torturan zehar konortea galdu nuenean saihetseko kolpe horren ondorioz izan zela. Gero, apurka, torturaren ondorioak agertzen doaz, eta betirako izango dituzu. (012)*



Iturria: lekukotza (005).

*Lehenbizi, aldakako mina izan nuen, gero, izterretan, eta belaunetara hedatu zen. Hori eramaten ninduten Land Rover-etik erori eta gero gertatu zitzaidan. Orain, hezurak dislokatuta ditut, bastoia behar dut mugitzeko. (013)*

*Azala belztuta dut kolpeengatik. Buru barruan zarata daukat beti, nire begiek ez dute ondo ikusten. Sudurrean kolpea jaso nuenean inflamazioa etengabe bat eragin zidan. Ez naiz inoiz ospitalera joan, beti modu tradizionalen sendatzen saiatu naiz. (021)*

*Arlo fisikoan, sabeleko arazoak ditut, erreumatismoa, urduritasuna... Bizkarreko ebakuntza egin behar izan zidaten torturen eta kolpeen ondorioz. (019)*

*Seinale asko ditut gorputzean, hainbeste kolperen ondorioz. Besoa hautsi zidaten, eta hagina, burua hainbatetan ireki zidaten, buruko minak izaten ditut oraindik ere. (043)*

*Fisikoari dagokionez, begia galarazi didate eta hezur guztiak deformatuta edo mailatuta ditu. (029)*



*Kartzelan, gaixotzen hasi ginen, haginak erortzen zitzaizkigun, eta oinetako azala urratzen zitzaigun, biluzik eta gosez geunden denbora guztia. Batzuek mugitzeari utzi zioten, gorputz-atalen paralisia zuten, infernu bat zen. (056)*

*Kartzelatik gaixotasun kronikoekin irten ginen, lau urte eguzkiaren argirik ikusi gabe, ikusmen arazoak genituen, hezurretakoak, bizkarrekoak, sabelekoak, erreumatismoa daukat hain leku estuan egon izanagatik. (059)*

*Kartzelatik irten nintzenean ia ezin nintzen ibili, gerrialdeko arazoak nituen eta ditut oraindik. Jaso nituen torturek ondorioak utzi zizkidaten. Galdeketetan tinpanoak hautsi zizkidaten. Lau urtez ezin izan nintzen eseri, eta orain ere kostatzen zait denbora luzez esertzea. Gaur arte irauten duten osasun-arazo larriak ditut. (060)*



Iturria: lekukotza (008).



Iturria: leukotza (043).

*Torturak eta kartzelak aztarna horiek guztiak utzi zizkiguten, hezurak deformatuta eta erreumatismoa, ezin dugu inolako mugimendurik egin. (071)*



Iturria: lekukotza (029).

*Nire ama, koitadua, gaixotu zen, paralitiko irten zen kartzelatetik. Hankak eta eskuak uzkurtu zitzaizkion eta lepoa alde batera okertu zitzaion. Buruan hainbeste jo zuten non guztiz okertuta geratu baitzen. Eskuak gogortu zitzaizkion. Jaten eman behar genion berak ezin zuelako bakarrik egin. Oso gaixorik irten zen eta horrela jarraitu zuen 2014an hil zen arte. Ni ere gaixotu nintzen hainbeste torturaren eraginez, batez ere gu torturatzeko erabiltzen zuten uragatik, produktuekin nahasten zutena. (074)*



Iturria: lekukotza (029).


*Elektrizitateaz torturatzen ninduten konortea galtzen nuen arte, orain eskumako hanka hilik daukat jartzen zidaten korronteagatik. Ondorioak izugarriak dira, atal baliogabe hau, ez dut sentitzen, lo hartuta daukat. Eta gorputzaren gainontzeko atalak etengabe minduta dauzkat, ezin dut lorik egin mina izugarria delako. Hori guztia jaso ditudan kolpeengatik. Eta bularrean min handia dut, ezin dut txiza kontrolatu, pardelak erabili behar ditut, ezin ditut muskulu guztiak kontrolatu, bizitza hondatu didate. (...) Hemiplegia hau jasotako tortura horren guztiaren ondorioa da, batzuetan ezin dut eskua mugitu, loak hartzen dit. (076)*

*Insomnio kronikoa dut, ezin dut lorik egin, nire haurtzaroak torturatzen nau oraindik, diabetesa daukat eta tentsioa oso altua izaten dut. (037)*

*Migrainak ditut, min handia eragiten didate, eta ez ditut zaratak eta argiak jasaten, gainera hipertentsioa ere banaiz, ezin dut bidaiatu ezta beste gauza asko egin ere. Bizkarrean jo ninduten, kolpe oso gogorrak, hainbat astez altxatu ezinik utzi nindutenak. Oraindik ere, min handiak izaten ditut bizkarrean, kolpe horien ondorioz, ia ezin dut ahalegin fisikorik egin. (082)*

## 5.2. Ondorio psikologikoak eta emozionalak

Ondorio, psikologiko eta emozionalen artean, ikerketa honetan honako hauek identifikatu dira: bereziki beldurra (% 93), eta horrekin batera depresioa (% 35), pentsamendu negatiboak (% 29), autoestimua galtzea (% 9) eta lotsa (% 3). Halaber, suizidiozko pentsamenduak (% 1) eta bizi-proiektua zapuztua izatearen sentimendua (% 1) aipatzen dituzte.



**Beldurra** aipatzen duten lekukotzak gehienak dira. Beldurrarekin batera, maiz, **loaren alterazioak eta amesgaiztoak** datoz.

*Galdu ditugun gauza materialak, berreskura ditzakegu, baina gauzarik garrantzitsuenak, hala nola desagertutako edo hildako lagunak, horiek ez dira itzuliko eta hori da gauzarik mingarriena. Etengabeko terrore eta beldur egoera batean gaituzte. Ni, gaur egun ere, izututa bizi naiz. Batzuetan, imajinatzen ditut poliziak nire atzetik, horman ikusten dut, eta hartuko nautela eta bahituko nautela ikusten dut. Gauza guztien beldur naiz, ez naiz nire hurbilekoekin elkartzen, ez dut inorekin hitz egiten, etengabeko depresio batean egongo banintz bezala da. Izututa bizi naiz. (008)*

*Ezin dut lorik egin. (...) Nire haurdunaldi osoan zehar, ezin izan nintzen kalera irten, jipoituko nindutela eta abortua izateko beldurreratik. Bederatz*

*hilabete horiek etxean konfnatuta eman nituen. Garai hartan, egunero zeuden manifestazioak Aaiun okupatuan. (043)*

*Etengabe pairatzen dugun jazarpen horrek eragin handia du gudan. Gauero, erne jartzen gara, erasotuak izateko beldurragatik, umeez atea ixteko eskatzen dute, etengabeko izu egoeran bizi gara. (047)*

*[Unibertitatean] umiliazio eta errepresio asko pairatu nituen, hainbestearino non beste saharar bat aurkitzen nuenean hura besarkatu eta negarrez hasten bainintzen. Deprimitu nintzen. Ezin ginen irten, beldurragatik. Sahararren artean aterpea eta babes topatzen nuen. Ikasketak uztea eta familiarekin itzultzea ere pentsatu nuen. (035)*

*Gure semea hartu zutenean pankartak eta gutunak egin nituen eta entregatu ditut baina ez dago justiziarik, beldur izan naiz, zauri asko dira eta horrek beldurra eragiten du, insomnia, arimako mina... (055)*

*Bizi izan dudana guztia, torturak, senideak torturatuta hiltzen ikustea, kartzela... Horrek guztiak seinalea utzi dit. Ezin dut gertatutakoa asimilatu, gauero, loak hartzen nauenean, gogora etortzen zait berriro eta torturaren ondorioz hildako nire lehengusuaren irudia datorkit. Oso latza izan zen. (057)*

*Desagertuta egon nintzen bitartean oso lo gutxi egiten nuen, oso beldur handia nuen... ezin genuen jarraian lo egin... Irten eta gero, horrela jarraitu nuen, ezin nuen lorik egin, hiru ordu jarraian, asko jota. Hiru ordu lo egiteko "programatuta" nengo, eta amesgaiztoak nituen... Eskerrak tratamendu psikologikoa izan dudala eta, pixkanaka, suspertuz joan naizela. Baina aztarnak ditut oraindik, zoritxarrez, eta horietako batzuk bizitza osorako izango ditut; buruak ezin ditu ahaztu. (019)*

*Nire bizitza pertsonala sare sozialetan publikatzeak eragin handia izan zuen nigan. Gu oso herri isilkorra gara, gure intimitatea asko zaintzen dugu. Nire bizitza pribatua kendu didate eta horrek sufrimendua eragiten dit. Gauzez oso ordu gutxi egiten dut lo, eta eten askorekin. Egunez ezin dut ezer ere lo egin. (005)*

*Nik etorkizuna nuen aurretik, neska koskorra nintzen; orain, irribarrea kendu didate. Kartzela horretan nire borraroeekin egon nintzen, eta ez nituen ikusten, bakarrik ezagutzen nituen hitz egiten zutenean, bestela ez nekien nortzuk ziren... Ez nituen horrelako torturak ezagutzen... (003)*

Beste inpaktu psikologiko batzuk dira **senideak galtzeak edo haiengandik banandua izateak eragindako mina**, bai kartzelaldietan, jasandako indarkeriak senideei eragin diezaiekeen sufrimenduak sortutako kezkatatik, bai familia sahararrak banandu zituen lekualdatze behartuagatik.

*Amak sufritzen jarraitzen du, egunero egiten du negar semearen heriotzagatik. Gdeim Izikeko kanpamentua suntsitu eta gero hil zuten, tirokatuta. (047)*

*Ba al dago seme-alabak babesgabe uztea baino gauza gogorragorik? (013)*

*Gauza batzuk ez zaizkit inoiz ahaztuko, atxilotu nindutenean, nire [bularreko] semearen oihuak, ni semearekin geratzen saiatzen ari nintzen eta soldaduek tira egiten zioten. Irudi hori hil arte izango dut buruan. Nire familiaren irudia, soldaduek eraman nindutenean; ama, beste batzuek sostengatzen zutela; nire ahizpa txikiak, besoak uztarturik, eszenari begira; aita etxeko bazter batean. Irudi hori beti izango dut buruan, minaren eta inpotentziaren irudia da. 16 urte eman nituen atxilotuta/desagertuta. (027)*

*[Atxilotuta-desagertuta nengoela] alabak urte bat eta 11 hilabete zituen, horrek niri gerra psikologikoa eragiten zidan, ez nekien bizirik ala hilda zegoen, nire gurasoekin utzi zuten ala ez, ez nuen nire alabaren berri, titiak esnez beteta nituen eta ez nuen haren berri. Denetarik pentsatzen nuen, agian lapurtu zutela eta Maroko barrualdera eraman zutela. Kartzelan, titi gabe utzi nuen alaba hura zen gehien kezkatzen ninduen, berarekin zer gertatu ote zen nuen buruan. (059)*

*[Atxilotuta-desagertuta nengoela] haiekin [ama eta alabekin] gogoratzen nintzen bakoitzean izugarri egiten nuen negar, eta ama utzi nuen egoera ere, ahul eta inolako mantenurik gabe. Uste nuen ez nituela berriro ikusiko. (071)*

*Marokoarrekin geratzeko etorri zirela konturatu ginenean, gure familiak lurralde okupatuetatik alde egitea erabaki zuen, errefuxiatuen kanpamenduetara joan behar izan zuten. Galera horrek min handia eman zidan, nire senarrarengandik banatzea, eta gero familia osoarengandik. Oinaze izugarria izan zen, hain denbora gutxitan bakarrik geratzea. Emakume gehienak bezala geratu nintzen, aitarik eta aitita-amamarik gabeko ume jaioberri batekin. Gure herria hilabete gutxi batzuetan sakabanatu zen. (...) Gizonezkoen oinetakoak ere eskatu nizekien auzokoei, atean jartzeko,*

*gauzez polizia edo armada etortzekotan, oinetakoak ikus zitzaten eta bertan gizon bat zegoela pentsa zezaten, horrela bakean utziko nindutelakoan. Hori pentsatzen nuen, beldurraren eraginez, eta horri esker lo egin ahal izan nuen, oinetakoen fantasia horri esker. (079)*

Lekukotzek, gainera, **sexu-indarkeriaren ondorio psikosozialetako** batzuk ere erakusten dituzte bereziki.

*Hori [sexu-indarkeria] oso iraingarria da, duintasuna erasotzen dizute, animoa eta autoestimua txikitzen dizute, harrotasuna ukitzen dizute. (001)*


*14 urte nituen eta izugarria zen niretzat, adingabe batentzat. Ez nituen gauza asko ulertzen, zikin sentitzen nintzen, eta bai harrotasuna eta bai nire hurbilekoek eta senideek zer esango zuten beldurra eragiten zidaten, kontserbadoreak baitira. Gure kulturaren txarto ikusita dago neska batek horrelako laidoak pairatzea. (003)*

*Bortxaketa-mehatxuek eta sexu-jazarpenak kalte handia egin zidaten buruan. Denbora batez ez nuen lorik egin gauzez, ezin nuen lorik egin. (...) Batzuek bortxaketa pairatu eta isilean gorde zuten, gure gizarteagatik eta horretan birjintasunak duen garrantziagatik, lotsaren beldur ziren. (012)*

*Min gehien eman zidana zera izan zen; antzutu nindutela. Hori izan zen gaur ditudan gaitz guztien jatorria. (009)*

### 5.3. Ondorio familiarak eta sozio-ekonomikoak

Giza eskubideen urraketen ondorio familiarak eta sozio-ekonomikoak aipatzen dituzten emakume sahararren artean, gehien-gehienek pobretzea edo bizi-baldintza materialak hondatzea (% 75) eta hezkuntza-aukerak galtzea (% 60) nabarmentzen dituzte. Beste hauek ere aipatzen dituzte: senideengandik banatzea (% 10), batez ere ondorio psiko-emozionalen artean aipatu dena, estigma soziala (% 5), gizartearen aintzatespena galtzea (% 2) eta sexu-harremanak kaltetzea (% 2).



**Pobretzea** edo **bizi-baldintzak hondatzea** hainbat faktoreekin lotuta dago. Horiek, normalean, batera agertzen dira: lanerako desgaitzaileak diren torturaren ondorio fisiko eta psikologikoak (emakumeentzat zuzenean edo haiek mantentzen dituzten senideentzat); saharar herritarren ekonomia- eta lan-bazterketa eragiten duten politika marokorrak, edo kideren bat arrazoi politikoengatik kartzelan dituzten familientzat errepresioak dituen kostu ekonomikoak.

*Bietako batek ere ez du lanik egiten, ez senarrak eta ez nik. Senarra gure sostengua zen, jostun gisa lan egiten zuen, baina kartzelaren eta torturen ondorioz gaixotu zen eta orain ezin du ezer egin, baina oraindik jainkoa dugu. (033)*

*Nire familia pobrea da, nire sostengu bakarra gure semea zen, eta orain Gdeim Izikeko manifestazio pazifikoetan parte hartzeagatik preso dago. Kartzela bizi garen lekutik oso urrun dago, 1500 kilometro ingurura. Esfortzu fisiko eta ekonomiko izugarria da. Guri, baliabiderik gabeko familia bat garen neurrian, asko kostatzen zaigu gure semeari bisitak egitea, ez daukagu non geratu, ezta leku bat alokatzeko dirurik ere ez. (082)*

Familia mailan, elkarrizketatutako emakume sahararrek askotariko ondorioak jasaten dituzte. Haietako askok **senide zuzenak galdu** dituzte, horien hilketagatik, desagertze behartuagatik, lekualdatze behartuagatik, gaixotasunengatik eta/edo

espetxeratze politikoengatik; edo Marokok haien aurka erabilitako **indarkeria beren senideetara hedatzen da.**

*Nire haurtzaroa moztu zidaten, ama eta neba-arrebarik gabe geratu nintzen. (037)*

*Ni eta senide bat preso eraman gintuzten, ni semea eradoskitzen ari nintzen, orain preso dagoena. Marokoren inbasioaren lehen egunetik sufritu dugu. Gaur arte, ez dugu inolako bakerik izan, dagoeneko ez dakigu zer den bakean bizitzea. Gure alaba gaixorik hil zen, sustoen ondorioz, beren nebek jasandako tratu txarragatik, gure egoitza etengabe bortxatzen zutelako... Ezin izan zuen jasan eta psikologikoki gaixotu zen, hil arte. Nik gaixotasun hura zuzenean leporatzen diot Marokoren okupazioari. Haren neba nagusiarekin gertatu zen bezala; zoratu zuten eta gaixorik egon zen hil zen arte. Haren heriotzaren erantzuleztat ere hartzen ditut. Nire seme-alabak gaixoarazi zituzten eta horren ondorioz hil egin ziren. (021)*

*Manifestazio batetik natorrenean eta seme-alabek galdetzen didatenean, nik esaten diet ez didatela ezer egin. Baina haietako batek guztia daki, batzuetan nirekin datorrelako, eta badaki zer gertatuko den. Beti uste izaten du berri txarrak egongo direla, hil egin nautela edo atxilotu, eta berriz ikusten nauenean jainkoari eskerrak ematen dizkio. (...) Gaur bertan, polizia-kotxe bat daukagu etxe aurrean, eta nire alaba txikia ez du eskolara joan nahi izan, poliziak beldur izugarria ematen diolako. Beldur zela esan du... Hainbeste jazarpen jasan dugunez, gure egoitzaren bortxatzeak eta hainbeste zelatatzea, non orain fobia baitie. Etxean batzartu edo beste zerbait egin nahi dugunean beste leku batera eraman behar dugu, berari ez sufriarazteko. (033)*

*Nire etxera arratsaldeko hiruretan etorri ziren. Ni haurdun nengoen eta alaba barizelarekin neukan, oso ahul, koitadua. Haietako batek alaba hartu eta bota zuen. Eskerrak koltxoi baten gainean jausi eta salbatu zela. (013)*

*[Atxilotuta/desagertuta nengoela] nire seme-alabak eta beste emakume saharar batzuenak, aita gabe geratu zirenak, galdu egin ziren, ez zuten dirurik edo baliabiderik, oso zaila zen familia aurrera ateratzea. Nire seme-alabek ezin izan zuten ikasketekin jarraitu. Nire alaba desagertu zen, ez genuen berari buruz ezer gehiago jakin, ez dakigu bizirik ala hilda dagoen. (...) Urteak geroago, kartzelatik irten ginenean ez nuen semea ezagutu, berak ni ikustearen pozez negar egiten zuen. Baina gehien hunkitu ninduen nire ama izan zen.*



*Zaharkituta eta tristea. Nire amama zirudien. Harrapatu ninduten urtean, elkarrekin geundenean jendeak ahizpak ginela pentsatzen zuen. Eta nik erabat aldatuta aurkitu nuen, etsita. Eserita zegoen bezur saku bat bezala. Berak begiratzen zidan eta esaten zidan: “alaba, ez al nauzu ezagutu?”. Amak asko sufritu zuen ni kanpoan nengoenean, alaba galdu ote zuen beldur zen eta lan handia egin behar izan zuen gure familia handia mantentzeko, umeen aita eta ama gabe. Egoera oso latza zen, dramatikoa. Ni elbarri irten nintzen kartzelatik, seme-alabek ez zuten ikasketarik eta beldur ziren, gure alaba desagertuta, eta nire ama ahul eta triste zegoen. (060)*

*Kartzelatik irten nintzenean, nire alaba nagusia, 11 urterekin utzi nuena, nigana etorri zen korrika, 21 urte zituen. Besarkatu ninduen eta konortegabetu zen... Nik ez nuen ezagutzen, pentsatu nuen harrera egiten zigun taldeko bat zela... Etxera heldu ginenean, ama bazter batean aurkitu nuen, gaixorik, Parkinsona zuen, dar-dar egiten zuen, niri harrera egin ahal izateko pilula batzuk eman zizkieten, eta neba, eskizofrenia zuena, beste bazter batean zegoen. Oso depresio larria izan nuen, askatasunaren pozak ez zuen asko iraun. Nire familiak asko sufritu zuen ni kartzelan egon bitartean. Ama besarkatu nuen eta negarrez hasi nintzen, besterik ez... Apur bat lasaitu nintzenean, nire alabengatik galdetu nien, oso txiki utzi nituen eta, ordurako, emakumetxoak ziren. Nire ama eta neba gaixoak ziren ni gehien kezkatzen nindutena. (071)*

**Ondorio familiarren artean, azpimarratzekoa da Marokoko kartzeletan semeak preso dituzten emakumeen oinazea.**

*Gure semea kartzelara bisitatzera joaten gara eta oso latza da, eguna eta gaua ematen dugu errepidean. Mehatxari begiratzen gaituzte. Ez gara geldialdietan jaisten, beldurragatik. Hitz itsusiak esaten dizkigute, mehatxuzko tonuarekin. Arriskutsua da baina arriskua onartu behar dugu. (021)*

*Gdeim Izikeko gertakarietan pertsona asko atxilotu zituzten, 600 bat Aaiunen bakarrik, horien artean gure semea. Bere bila joan ziren zuzenean, hiru egunez tortura izugarriak pairatu zituen, jo zuten, eskuetako azazkalak atera zizkieten, saihets-bezurak hautsi zizkieten. Gero Marokoko barrualdera eraman zuten, Rabatera, hain zuzen. Bisitetan, ezin genuen hura ikusi, elkarri entzuten besterik ez ziguten uzten. Gure semeari eta beste zortziri biziarteko kartzela-zigorra ezarri zieten. (080)*

*Gure semea auzitegi militar batean epaituko zuten egunean, auzitegiaren aurrean egon nintzen bera noiz agertuko zain. Ekarri zuten, eskuburdinak*

*jarrita, ikusi nahi nuela oihukatu nuen, nire semea zela, begiratu zidaten eta hitz lizunak esan zizkidaten, ez zidaten berari hurbiltzen ere utzi. Epaiketa amaitu zenean, nire aurretik igaro ziren berriro eta ez nuen berriro ikusi. Orain, asko sufritzen dugu gure seme-alabak ikusteko. (082)*

Emakumeek aipatutako giza eskubideen urraketen artean, **estigma eta isolamendu soziala** ere aurkitzen ditugu, batez ere aktibismo politikoa egiten duten emakumeen kasuan.

*Nire atxiloketaren eta askatzearen ostean, unibertsitate aurreko ikasketetan nituen lagunak ni baztertzen hasi ziren, bakarrrik geratu nintzen arte, bakarrrik joaten eta etortzen nintzen. Guztion arbuioa antzeman nuen, familiek egiten zieten presioagatik. Lagunak nituen baina galdu egin nituen, okupazioaren aurka borrokatzeagatik. Nire familiak ere nire burua zaintzeko aholkatzen zidan, baina azkenean ulertzen dute zuzen zarela, zu ulertzen hasten dira eta zure borrokan uzten zaituzte. (012)*

*Jendea nitaz beldur zen, mikrobio bat sentitzen nintzen. Nire familia ez zen nigana hurbiltzen Marokoko agintarien beldur zelako. Poliziak etengabe zelatatzen ninduen, horrek jendea urruntzen zuen, nire etorkizun bera izan nahi ez zutelako. Isolatzen ninduen. Madarikatua sentitzen naiz, nigana hurbiltzen denari mehatxu egiten baitiote edo zuzenean kartzelaratzen baitute, nire ideologiagatik eta desagertuta egon naizelako. Nire senideei galdeketak egiten dizkiete, nire mugimendu guztien berri eman behar dute, nor etorri den, norekin egon naizen, zertara datozen... Kartzela batean egotea bezala da, baina neure etxean. (019)*

*Gdeim Iziken ostean, marokoarren arrazakeria larriagotu zen. Auzokoak, lehen zurekin nolabaiteko harremana zutenak edo zurekin bazkaltzen zutenak, urrundu egin ziren. Harremanak hautsi ziren eta horietako asko gure aurka jarri ziren. Soldaduak etortzen zirenean esaten zieten “hor dituzue saharar horiek, guk ez dugu ezer egin”. (035)*


*Instititutik irteten ginenean, etxerako bidean, poliziak beti jazartzen gintuen. Gauza iraingarriak esaten zizkiguten, institutura itzultzeko gogoak kentzen zizkigutenak. Eta kaletik oso txarto sentitzen zinen, jendeak ikusten duelako polizia atzetik duzula eta uste dute zerbait desegokia edo lotsagarria egin duzula. Kaleko jendeak ezin du irudikatu egoera horretan zaudela leloak oihukatu dituzulako, sahararren kausa babestu duzulako, elkarretaratzeetan parte hartu duzulako edo arrazakeriaren aurka borrokatu zarelako. (064)*

## 6. Indarkeriari aurre egiteko moduak





Ikerketa honetan azaldutako indarkeria-mailen erdian, emakumeek indarkeriaren ondorioei aurre egiten saiatzeko eta beren burua sostengatzeko erabiltzen dituzten zenbait mekanismo aipatzen dituzte. Honako hauek dira gehien errepikatzen direnak: erlijioan babestea (% 74), familiaren ongizatea lortzen saiatzea (% 71), familiaren babesa izatea, maila afektibo eta materialean (% 51), indarkeria salatzea (% 48), beren eskubideak defendatzeko antolatzea (% 42) eta beren bizitzari zentzia ematea (% 40), normalean saharar herriaren borroka politikoari lotuta. Elkarrean antolatzea aipatzen duten emakumeak % 17 dira, % 12k laguntza psikosoziala bilatu dutela diote eta % 3k isiltasuna hartu dute indarkeriari aurre egiteko mekanismo bezala



**Jainkoarenganako fedea eta erlijioa, familiaren ongizatea** bermatzeko motibazioa, eta haiengandik eta lagunengandik (normalean aktibismo politikoko kideak) jasotzen duten **laguntza emozionala** eta **materiala** funtsezkoak izaten dira elkarrizketatutako emakumeen bizi-esperientzian.

*[Atxilotuta-desagertuta egon nintzen bitartean], fedeagatik izan ez balitz ez nukeen jasango. Mehatxuen beldurra, noiz hilko zaituzten ez jakitea... (060)*

*Nire seme-alabengan pentsatzen nuen eta horrek minari eusten laguntzen zidan. (013)*

*Fedeak asko lagundu ninduen, eta nire amamaren eta seme-alaben erresistentziak ere. Bizirik mantendu ninduen haria, piztutako argi hura seme-alabak izan ziren. Orain, ikasketak eta babesa eman nahi diet, ez dut nahi zurtz gera daitezen edo kartzelara itzul daitezen, babes hori ematen diet nire seme-alabei. Izan ere, haien aita hil egin zen eta orain ni naiz familiaren sostengua, ni hiltzen banaiz, norekin geratuko dira? (037)*

*Seme-alabei deitu eta guztiaren berri eman nien, difamatuko ninduten argazkiak ikusiko zituztela esan nien, jipoituko eta torturatuko nindutela, eta hori guztia nire herriaren independentziagatik eta eskubideengatik borrokatzeagatik gertatuko zitzaidala. Lasaitu nahi nituen, gertatu beharrekoak haiek ez hunkitzeko. Eta nire burua indartu nahi nuen ere, gertatuko zitzaidan horretaz ohartuz, eragin ez ziezadan saiartzeko. (033)*

*Jainkoari eskerrak, ulertzen eta maite nauen familia dut. Esaten didate "aurrera", nitaz harro daude, bisita egiten didate eta irteten naizenean babesten naute. Hori oso garrantzitsua da, ulertua sentitzen zarenean, babes horrek printzipioen alde borrokatzen jarraitzen laguntzen zaitu. Eta ingurukoak ere aktibistak dira. Hori bai, ikasteko, lan egiteko, funtzionarioa izateko eta soldata bat lortzeko aukera galdu dut. Baina berdin da, nire lana, nire ametsa giza eskubideen aldeko aktibista izatea da. (003)*

*Jainkoari esker, fede handia dut, borondate handia, lagunena izan da, nirekin kartzelan egondako lagunena eta kanpoan zeuden horiena ere. Desagertze behartuko lau urte horiek indar handiagoa eman zidaten, irmotasun eta pertseberantzia handiagoa aurrera jarraitzeko. Familia handi bat osatu dugu, baturik gaude, beti harremanetan gaude eta adiskidetasun handia izan dugu kartzelan. Gure herriaren autodeterminazioa babesteko konbikzioa sendotu da, eta Marokok egindako giza eskubideen urraketak salatzeke ere. Horrek erraz integratzen lagundu digu. (019)*

*[Kartzelan] leku ilun batean utzi ninduten, oso argi gutxi sartzen zen. Desorientatuta nengoen. Ordubete igaro zenean, beste gela batzuetatik zetozen ahotsak entzuten hasi nintzen; Busheiba, goian bego, lasaitasunezko hitzak helarazten saiatzen ari zen, ez nengoela bakarrik. Galdetzen zidan ea nor nintzen, gizona ala emakumea nintzen, nondik nentorren, haiek ere han zeudela, beste lurralde bat zela. Horrek energia guztia itzuli zidan, momentuan. Zutitu nintzen eta jainkoari eskerrak ematen hasi nintzen. Pentsatu nuen “nire burua lasaitu behar dut”, burua osasuntsu mantentzeko. “Duela segundo batzuk, ziur nengoen hilko nindutela. Orain aukera bat dut, bizirik nago, eta lagun askoren artean”. Berriz ere, itxaropena izan nuen. (020)*

*Marokok atxilotu gintuenean, amak gure zazpi seme-alabak hartu zituen. Horietatik hiru eradoskitu behar izan zituen, hain zuzen, nire semea eta bi iloba. (080)*

*Nire familiaren eta saharar herriaren babesia izan dut. Denbora luzea eman nuen ospitaletik ospitalera, ebakuntza asko izan dira baina, jainkoari esker, nire familiaren eta auzokoen laguntzaz aurrera egin dugu. (060)*

Indarkeria **salatzea**, eskubideak defendatzeko **antolakuntza eta mobilizazioa** eta sahararren kausaren inguruko **konbikzio sendoak** ere indarkeriari eusteko funtsezko mekanismoak dira.

*Nire zauriak fisikoak dira: oinak eta saihets-bezurak hautsi dizkidate, sorbalda, burua eta hanka dislokatu didate, baina ez didate itxaropena hautsi, ezta amaierara arte borrokatzen jarraitzeko gogoak ere. (003)*

*Jainkoari esker, zure printzipioek eta baloreek edozein ankerkeriaren aurrean suspertzea ahalbidetzen dizute, gure kausaren garrantzia eta justiziagatik. (...) Eusten lagundu zidan gauza bat izan zen, iraultzen eta okupazioen historia irakurtzen nuela. Izan ere, Sahara ez da okupatua izan den lehen herrialdea; baditugu ere Palestina, Amerikako indigenak... Historiara jo nuen eta horrek pairatzen ari ginena jasaten lagundu zidan, sakrifikatu behar genuen, bakoitzak zerbait eman behar du bere eskubidea eskuratzeko. (012)*

*Ez naiz sekula pozik egon, baina elkarteetan parte hartzen hasi nintzenetik, indartsuago sentitzen naiz, gustatzen zaidan eta gure herriari laguntzen dion horretan lan egiten jarraitzeko adorea dut. (055)*

1970ko hamarkadan, Fronte Polisarioaren aldeko batzar klandestinoak egiten ziren etxeetan, bagenekien orain gertatzen ari zaiguna gertatuko zitzaiagula. Manifestazioak prestatzen ari ginenean, bagenekien preso izan gintezkela, bai Espainiako koloniarekin, bai Marokoren inbasioarekin. Bagenekien torturatu ahal gintuztela, bortxatu... Baina konbikzio sendoak genituen gure kausari dagokionez, konpromiso serioa, jarraitua eta iraunkorra hartu genuen gure lurraren independentziarekin. (...) Fatma El Ghalia militante historikoa horren adibide da. 1976tik, paper garrantzitsua izan zuen Agdezeko kartzelan, bere bizitza arriskatuz preso geunden emakumeoi irakasteko, laguntzeko eta alfabetatzeko. Zapaten zoletan idazten hasi zen, ilunpean, gosez, Marokoren eskutik tortura eta abandonu baldintzarik latzenak pairatu bitartean. Emakume sahararrei kultura orokorra, politika, erresistentzia eta etsaia desafiatzen irakasteko arriskatu zen. Erakutsi zigun kartzelako etapak ez zirela berdinak eta kontrola eta zaintza malgutzen zutenean ikasteko eta trebatzeko aprobe txatu behar genuela. Urteurrenak ere ospatzen genituen. Konturatzen zirenean zigortzen gintuzten. (060)

Emakume sahararrak gure kulturari eusten jakin izan zuen. Gure dialektotan hitz marokoarren bat erabiltzen genuenean, amak errieta egiten zigun, esaten zigun “hori ez da gure hitz egiteko modua”. Eta horrela egiten zuten ama guztiak. Gauza bera gertatzen zen janzkerarekin; jakin izan dugu hura mantentzen. Gu Marokoren okupaziopean jaiotako eta hazi gara baina ez dugu haien dialektoko hitz bat ere erabiltzen. Beti jakin izan dugu gure identitatea eta kultura desagertzen bada gure kausa ere desagertuko dela. Kontua ez da aktibista izatea eta ohiturak eta tradizioak alde batera uztea: gauza biak elkarrekin doaz. Ohitura eta tradizio horiek mantendu nituen, ni lehen belaunaldikoa nintzela esaten zuten, baina hori guztia amak, izebek eta gainontzeko emakumeek irakatsi didatenari esker izan da. (029)

Auzoko guztiak mobilizatu ginen eta gure askatasunaren alde altxatu ginen. Gure alfonbrak kalean zabaldu genituen eta gure banderak jaso. Gure kalea setiatu zuten polizia, kotxe blindatuak eta Marokoko armadak. Baina egun hartan, kalea eta gure etxeetako teilatuak hartu genituen. Egund hartan, kalean, independentzia dastatu genuen. (078)




## 7. Biktimen justiziarako sarbidea





Elkarrizketatutako emakumeen % 78k salaketaren bat aurkeztu dute Marokoren eskutik jasotako giza eskubideen urraketengatik. Salaketak, justizia lortzeko itxaropenagatik baino gehiago, **giza eskubideen aldeko aktibismoagatik** motibatuta daude.

21. Grafikoa. Haien kasua salatu duten biktimak (N = 81)




*Biktimek eta familiek salatu ditugu errudunak, haiek auzitegietara eramateko eta guri, urte horietan eta leku sekretu horietan, desagertze behartuekin gertatutakoari buruzko egia osoa ezagutzera eman dadin. (019)*

*Salaketak egin ditugu, ez dudalako nahi kasu horiek errepika daitezen, ez nire alabarekin ez saharar herriko beste inorekin ere, guztiok pairatzen baititugu gauza berdinak okupazio indar hauen eskutik. (062)*

*Emakume bat bortxatzen badute, bortxatzailea nornahi dela ere, eta are gehiago marokoar okupatzailea bada, ez dugu isilik geratu behar krimen horren aurrean, inoiz ez. Aitzitik, leku guztietan eta foro guztietan salatu behar dugu. (012)*

Salaketa gehienak Marokoko administrazioaren erakundeen aurrean (% 44), Ekitate eta Adiskidetze Instantzian (% 33), Giza Eskubideen Batzorde Nazionalan (% 28) eta Arbitraje Independenteko Instantzian (% 20) egin

dituzte<sup>6</sup>. Beste kasu batzuetan, emakumeek Nazio Batuetan (% 5), nazioarteko beste erakunde batzuetan (% 5) eta Espainiako Auzitegi Nazionalan (% 1) ere salatu dute.



Gertatutakoa salatu ez duten emakumeen % 22 horretan, ez salatzeko arrazoi nagusiak dira Marokoko agintariengandik **justizia lortzeko itxaropen eza**, mesfidantza edo **izan daitezkeen errepresalien beldurra**.

*Ez dut gertatutakoa inoiz salatu, torturatzaillea marokoarra da eta administrazioa ere, ezin da justiziarik egon baldintza horietan. (012)*

6 Giza Eskubideen Batzorde Nazionala, Arbitraje Independenteko Instantzia eta Ekitate eta Adiskidetze Instantzia (IER) erakunde independenteak omen diren arren, haien independentzia eta inpartzialtasuna zalantzan jartzen dituzte giza eskubideen aldeko erakunde sahararrek.

*Une hartan, 2016an, erregearen fiskalak gertatutakoa ikertuko zuela uste nuen, ni aske utziko ninduela, nire kamera eta ondasunak itzulita; horregatik egin nuen salaketa, baina ez zen erantzunik egon. Alderantziz, gehiago torturatu ninduten nire kamera eskatzeagatik eta salaketa egiteagatik. Esan zidaten, “zuk ezin duzu salaketarik egin erruduna zarelako ‘Mendebaldeko Sahara’ esateagatik bakarrik. Zu Sahara marokoarrean bizi zara eta zorionekoa zara kartzelatik kanpo egoteagatik. ‘Mendebaldeko Sahara’ berriz errepikatzen baduzu, badakizu zein izango den zure zoria, espetxeratuko zaitugu”. Konortea galdu nuen hainbeste torturagatik, eta konturatu nintzen ez zuela merezi beste salaketarik egitea; hemen salatzeak, etsaiaren aurrean, ez duela ezertarako balio. (058)*

*Ez dut inoiz salatu nire familiaren aurka erabil ditzaketen errepresalien beldur naizelako. Senarrak eta biok kartzela jasan dugu eta hain beldur gara... Nire bizitzaren etapa batean edozein jardueratik kanpo egon nintzen, nire seme-alabeei gerta zekiekeenaren beldurrez. Gure familiak hainbeste mehatxu eta jazarpen jasan ditu, non izututa bizi baikara. (068)*

*Hemen ez du nazioarteko organismorik lan egiten. Nazio Batuek beste alde batera begiratzen dute eta ez zaie inporta lurralde okupatueta gertatzen dena. Beti jakinarazten diegu zer gertatzen zaigun eta ez dute ezer esaten, haiek kafetegietan eta turismoan daude, beren kotxeen matrikulak marokoarrak dira. (043)*

Emakume sahararren giza eskubideen urraketan % 90 ez dituzte ikertu, salatuta egon edo ez. Jasotako lekukotzek erakusten dute emakumeek eta, orokorrean, saharar herritarrek justizia lortzeko oztopo erraldoiak aurkitzen dituztela Marokoren okupazio militarren testuinguruan.

*Aaiuneko fiskalaren aurrean salaketak egin ditut, baina hark ez du ezer mugitu. Txostenak aurkeztu ditut, argazki eta grabaketekin, baina haiek lapurtzeko esaten diote lapurrari, eta zelatatzeko jazarleari. Hori da haien politika. Ustelak eta torturatzailleak dira. Herri inbaditzailea da, jende zibila eta armarik gabekoa inbaditu zuena. (037)*

*Marokoren okupazioaren administrazioan eta horren apelazio auzitegian hogeit hamar salaketa baino gehiago jarri ditut, baina inork ez digu ezer idatziz erantzun edo jakinarazi gaur arte. Ez dakit zer egin duten salaketa horiekin,*

*guk okupazioaren instantzietan salatu genuen eta okupazioa da gai hori kudeatzen duena, beraz ez dute ezer egingo horren aurrean. (029)*

*Nire salaketaren aurrean, haien erantzuna isiltasuna izan zen. Desagertutako eta atxilotutako milaka pertsonaren eta haien senideen salaketekin gertatu den bezala. Agintariek salaketa jaso eta ez dute inora eramaten, inor ez da polizia bat epaitzera ausartzen. Gure froga guztiak ezkututzen dituzte, eta gure lekukoak mehatxatzen dituzte hitz egin ez dezaten. Hortaz, dena ahaztu egiten da, mundu guztia beldur da eta ez dira gu giza eskubideen aldeko aktibista bezala babestera ausartzen. (003)*

*Jipoitu nindutela salatu nuenean galdetu zidaten ea nor salatzen nuen. Nik esan nuen jipoitu ninduten agintariak salatu nahi nituela. Salaketa hartu eta nitaz barre egin zuten. Ondo dakit zaborrera bota zutela. Ez digute beste ezer esan. (082)*

*Oso zaila da salaketa indibidual bat tramitera onar dezaten. Kartzelan egon garen biktima guztiek salaketa kolektibo bat jarri nahi izan genuen. Batzorde bat osatu zen eta milaka salaketa egin ditugu baina ez doaz inora, Marokon ez dago justiziarik. Salaketa egiten duzu eta ez dizute inolako erantzunik ematen; baliorik gabeko espedienteak dira, administrazio-isiltasuna besterik lortzen ez dutenak, espediente artxibatu eta abandonatuak, hau da, hutsalak. Salaketa horietatik guztietatik bakarrik bik edo hiruk egin dute aurrera. Biktima sahararrak gara eta arrazakeria erabiltzen dute gure aurka, inoiz ez dute onartu Marokon tortura dagoenik. (019)*


## 8. Erreparazio-eskaerak







Marokoren eskutik jasandako giza eskubideen urraketengatik emakume sahararrek egindako erreparazio-eskaerak askotarikoak dira. Horien artean, neurri politikoak (% 58) dira nagusi, hala nola, **independentzia, lurraldea berreskuratzea eta okupazioarekin amaitzea**. Erreparazio sozio-ekonomikoari dagokionez (% 58), **kalte-ordain ekonomikoak, lanerako laguntza, osasun-arreta eta hezkuntza arloko neurriak** eskatzen dituzte. Biktimei dagokienez (% 44), emakumeek neurriak proposatzen dituzte honako arlo hauetan: **emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, biktimen babes eta memoria eta arreta psiko-soziala**. Neurri juridiko-legalen artean (% 36) emakumeek eskatzen dute giza eskubideen urraketen **erantzuleak epaitzea eta biktimen birgaitze legaleko neurriak** abian jartzea.



Erreparazio eskubidearen esparruan, Marokoren indarkeria pairatu duten emakume horien ustez, ez errepikatzeko bermerik argiena da saharar herriak **autodeterminazio eskubidea** izatea. Hura **independentziari** eta Marokoren

**okupazioarekin amaitzeari lotuta ikusten dute. Egiten dituzten eskaeren artean aurkitzen ditugu ere errefuxiatuak itzultzea eta preso politikoak askatzea.**

*Nire eskaera saharar herriaren autodeterminazioa eta independentzia da, gure eskubidea da; eta pairatu dugun guztiaren –hala nola tortura eta kartzela– erantzuleak epai ditzaten. Horiek epaitzea eta espetxeratzzea eskatzen dugu, baina badakit hori ez dela gertatuko, Marokoren okupazioaren parte direlako, eta hura ere epaitu beharra dago. (029)*

*Erreparazioa ekar diezagukeen gauza bakarra da haiek hemendik alde egitea, okupazioa amaitzea eta gure lurraldean gu libre uztea. (013)*

*Gure lurraldea itzultzea nahi dugu, eta gure baliabide naturalak, hala nola fosfatoa eta gure arrantza. (064)*

*Kalte-ordain gisa eskatzen dut, lehenbizi, Marokoren okupazioak saharar herritarron aurka egindako krimenak aitor ditzan, batez ere emakume sahararrak okupaziopean pairatzen dituen eskubideen urraketak. (012)*

*Marokok alde egitea da nire eskaera, okupatzaileek alde egitea. Joaten direnean lasai geratuko naiz, nire seme-alabekin batera. Ez dago altxorrik ez dirurik nirekin duten zorra ordain dezakeenik. Ezin da ordaindu nire zurtzasuna, nire amamaren bizitza, nire aita eta aitaitarena, erbestean hildako nire amaren bizitza. Eta nire bizitzak ere arriskuan jarraitzen du, Independentzia nahi dut, ez dirua. Eta nire familia erdia itzultzea, geratzen zaidan bizitza ama-familiarekin bizi ahal izateko. Duintasunez bizi nahi dut. (037)*

*Amak independentzia nahi zuen gehien, eta beste aldean dauden senide eta lagunak ikusi. Jainkoari eskatzen zion errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren senideak besarkatzeko aukera emateko. Hori nahi zuen, familia osoarekin elkartu. Baina martiri bezala joan zen. Martiria da horrela hil zelako, torturatua eta kartzelatua izan eta gero. (074)*

*Injustizia hau konpon dezakeen gauza bakarra independentzia da. Kanpamentuetara joandako gure senide eta lagun maiteak itzultzea. Familia*

*guztiak berriz elkartzea, aske eta independente. Dagokigun hori bakarrik eskatzen dut: gure lurra eta gure askatasuna. (080)*

*Egindako kaltea konpon dezakeen gauza bakarra da atxilotu guztiak aske uztea, desagertuak non dauden jakitea eta gure independentzia lortzea, hau da, Marokoren okupazioa bukatzea. (082)*

*Ahaleginak batu behar ditugu krimen guztiak eta Marokoren okupazioa agerian uzteko eta biktimak laguntzeko, biktima asko baititugu. Eta lurralde okupatueta giza eskubideen auziaren inguruan arretea pizteko. (012)*

*Gure eskubideen defentsa babesten dut eta biktima gisa dagokigun guztia eskatzea, baina egoera politikoa bestelakoa da. Hau gure independentziarekin konpontzen da. (020)*

*Torturak, kartzelak, atxiloketak, zelatatzea... ez dira berriak guretzat. 1970an, Zemlako altxamenduekin, tortura horiek eta jazarpena pairatu genituen Espainiako koloniaren eskutik. Baina gure ondoko herrialdea, gure modukoa dena, guk bezala hitz egiten duena, gu bezala janzten dena eta guk bezala jainkoan sinisten duena, ankerragoa izan zen. Sufrimendua eragin zigun eta sufrimendu handiagoa eragiten jarraitzen du. Horrek harritu gaitu eta min ematen digu. Eta oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek jakin behar dute saharar iraultza aldarrikatu zuten horiek, Fronte Polisarioak, alegia, herri librea nahi dutela beren seme-alabentzat eta horien seme-alabentzat ere. Oso garrantzitsua da hasitakorekin jarraitzea, borrokatzeko espirtua mantentzea saharar herri osoaren askatasuna lortzeko. 1970ko hamarkada oso latza izan zen, garaiak aldatu dira, aldaketa horiek baliatu behar dituzte borrokatzen jarraitzeko. Lehen, etsaia ez zegoen nazioarteko erakundeen begiradapean eta erabateko inpunitatea zuen torturatzeko. Borrokatu behar dugu, guardia jaitsi gabe. Askatasuna lortu behar dugu, hori bizitza osorako dela pentsatu, betirako lortu behar dugu. (060)*

Emakumeetako batzuek ikusi zuten Arbitraje Independenteko Instantziak bere kasuak aintzat hartzen zituela, eta kalte-ordain txikiak ere jaso zituzten. Baina nolana ere, horiek txarto baloratzen dituzte; ez baitziren nahikoak izan, ez baitzuten beste erreparazio-neurririk ezarri eta, funtsean, jasandako kaltea konponezina zelako.

*Kalte-ordain bat eman didate, baina hutsala da, ekarpen ekonomiko bat. Horrek, ordea, ez dizkit itzuliko desagertuta eman nituen lau urteak, nire familia gabe; alabaren haurtzaroa galdu dut. Osasuna ere ez dit itzuliko, ezta torturaren eraginez hildako senideak ere ez. Kalte ordain hura ez da nik eskatutakoa, nire ordainsari bakarria autodeterminazioa eta independentzia da. (059)*

*Kalte-ordainak berandu eta txarto etorri ziren. Eman diguten ordainak ez du konpontzen Marokoren tortura gau bat ere. (060)*

*Marokoren okupazioak ezin du konpondu eragin didan mina. Ezin du konpondu familien banaketa, nire alaba egun gutxierekin aitarengandik banatu izana. Ni gurasoengandik banatu izana, gehien behar nituenean. Ama eta aita hil zirela, nik haiek ikusi gabe, errefuxiatuen kanpamentu batean, eta ni hemen. Hori guztia ezin da konpondu... (079)*

**Nazioarteko erkidegoari egindako interpelazioak** ere emakumeen erreparazio eta berme eskaeren artean daude, nahiz eta saharar herria abandonatu dutelako sentimendua oso hedatuta dagoen.

*Nazioarteko organismoek, gobernuak, elkarteei eta mundu osoari eskatzen diet gure askatasunak babes ditzaten, Marokok saharar lurralde okupatueta egiten duena ikus dezaten. Ez Marokok, ez beste herrialderik, ez dute inolako subiranotasunik gure lurraldean. Nazioarteko erkidegoak gure auziaz ardura dadin nahi dugu. (043)*

*Giza eskubideen aldeko elkarteei eskatzen diegu Marokoren okupaziopean dauden sahararren alde zerbait egin dezaten, horiek oso indarkeria handia pairatzen baitute. Lurralde okupatueta giza eskubideak behatzeko eta babesteko mekanismo bat sortzea. Hemen torturatzailleak ez du inolako zigorrik eta torturatzen jarraitzen du. Gertatzen zaigun guztiari amaiera ematea nahi dugu, tratu txarrei eta okupazioaren indarkeriari. Eta nire ustez hori Mendebaldeko Sahararen independentziarekin bakarrik amaituko da. (029)*

*Askatasunaren alde borrokatzen diren organismo guztiek okupazioa pairatzen dugun saharar herritarrak babes gaitzaten nahi dut, eta nazioarteko foro guztietan defenda gaitzaten. Itxaropen handia jarri genuen Nazio Batuengan, baina ez dute ezer egin... (047)*

*Eusten jarraituko dut, militaritzen, modu baketsu eta zibilizatu batean, nire herriari ez baitzaio gerra eta indarkeria gustatzen. Dokumentu edo erregistro hau hainbat herrialdetara zabaltzea nahi dut, gure herriarekin bat egin dezaten, gure sufrimendua eta emakumeen aurkako indarkeria salatu dezaten; izan ere, 1970ko hamarkadan Espainiako koloniaren aurka altxatu ginenetik, emakumeak izan dira arrisku gehien bizi dutenak. Saharar herriarekin elkartasuna izan dezaten espero dut, [gertatzen dena] erregistra dezaten mundu guztiak jakin dezan. (005)*

*Bidezko ordaina eskatzen dut, gure baliabide naturalak itzultzea, borreroak eta kriminalak justizia aurrera eramatea eta desagertuen espedienteak argitara ateratzea. Jende asko hil zen kartzelan eta senideek ez dute haien berri, oraindik ere; desagertze behartuak izan ziren. Nazioarteko babesa nahi dugu; NBEk eta MINURSOk ez gaituzte babestu eta ez dituzte lurralde okupatuetako sahararren giza eskubideak zaindu. Marokok min handia egin digu, gure baliabideak haienak izango balira bezala esplotatu eta espoliatu dituzte, eta inbaditzaileak dira. (055)*

*Nazioarteko giza eskubideen erakundeei hona etortzeko eskatzen diegu, gertatzen ari zaigunaren lekuko izan daitezen, adierazpen askatasuna izaten lagun diezaguten, guk geuk esan ahal izateko zer ari zaigun gertatzen, ez ditzatela entzun gure izenean hitz egiten duten marokoarrak. (079)*



## 9. Ikerketaren emaitzen laburpena







Ikerketa honek Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharan bizi diren emakume sahararren aurka egindako giza eskubideen urraketak dokumentatzen ditu, horien erantzuleak, indarkeria horrek eragiten dituen ondorioak, emakumeek indarkeriari aurre egiteko erabiltzen dituzten moduak, beren esperientzia justizia eskatzean eta egiten dituzten erreparazio-eskaerak. Ikerketak 81 lekukotza hartzen ditu oinarri, 1975etik 2021era bitartean Marokoren okupazioaren testuinguruan giza eskubideen urraketa baten edo gehiagoren biktima izandako emakume sahararrenak, hain zuzen. Haiekin elkarrizketa sakonak egin ditugu, galdetegiak bete dituzte eta salatutako giza eskubideen urraketari buruzko informazio gehigarria bildu dugu.

Jasotako testigantzek indarkeria sistematiko eta etengabeko patroiak erakusten dituzte. Emakume sahararrek, bada, indarkeria hura pairatu dute 1975ean beren lurraldearen okupazioa hasi zenetik gaur arte, beren funtsezko eskubideen eta eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketa oso larriekin.

81 kasuetatik, 77 emakumek biktima zuzen gisa eman dute lekukotza eta lauk biktimen senide gisa. Haien **adinak 12tik 73 urtera** bitartekoak dira. Lekukotza eman duten emakume gehienek (% 58) Aaiun hirian jaio dira. % 59k saharar herriaren eskubideen aldeko mugimenduko erakunderen batean parte hartzen dute eta, ia guztiak, gaur egun kolektibo batean egon ala ez, autodeterminazioaren eta giza eskubideen aldeko aktibismoari lotuta ikusten dute beren burua.

Batez beste, **elkarrizketatutako emakume saharar bakoitzak giza eskubideen 6,7 urraketa mota jasan** ditu, hala nola, askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketak (% 91), eskubide kulturalen urraketak (% 91), tortura fisikoa (% 90), tortura psikologikoa (% 90), bizitzeko eskubidearen urraketa (% 89), osasun eta hezkuntza eskubideen urraketak (% 75), sexu-indarkeria (% 68), eskubide ekonomikoaren urraketa (% 53) eta lekualdatze behartua (% 27). Emakume sahararrek pairatutako giza eskubideen urraketa larri guztiak

tipifikatuta daude Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH) eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea (GENZ) osatzen dituzten araudietan.

- Emakumesahararren % 89k **bizitzeko eskubidearen aurkako erasoak**aipatzen dituzte biktima zuzen eta zeharkako gisa. Biktima zuzen gisa, egitateen zati handi batek tortura delituekin eta askatasun eta segurtasun pertsonalaren aurkako erasoekin du zerikusia. Zeharkako biktimei dagokienez, emakumeek senideen edo ezagunen **judizioz kanpoko exekuzioak** ikusi dituzte, horietako batzuk atxiloketa zentro klandestinoetan. Bizitzeko eskubidearen aurkako erasoen artean, emakumeen % 33k **desagertze behartua** jasan dute. Batzuek desagertuta jarraitzen dute. Bizirik iraun eta ikerketa honetan lekukotza eman dutenek, aldiz, hilabete batzuetatik 16 urtera bitarteko denboraldiak eman dituzte desagertuta. Asko atxiloketa zentro klandestinotik igaro dira, hala nola PCCMI, BIR, Kaalat Maguna, Agdez eta beste batzuetatik, batetik bestera maiz aldatuz eta non zeuden inork ez zekiela, eta horietan torturak eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarri batzuk ere jasan dituzte.
- Hala, ikerketa honetan elkarriketatutako emakume sahararren % 90, **tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarri batzuk** jasan dituzte Marokoren eskutik. Tortura emakumeen atxiloketa/desagertze aldietan gertatu da, kartzeletan edo atxiloketa zentro klandestinoetan. Gainera, giza eskubideen urraketa larri hori beste testuinguru edo leku batzuetan ere agertzen da, hala nola, manifestazioen, elkarretaratzeen edo protesten aurretik, bitartean edo ondoren, eremu publikoetan eta egun argiz.
- Emakume sahararren aurka erabilitako **tortura fisikoak** askotarikoak dira eta, zenbait kasutan, oso muturrekoak. Horien artean honako hauek identifikatu dira: **kolpeak objektuak erabiliz** (% 90), **eskarnio publikoa** (% 88), **kolpeak objekturik gabe** (% 60), **zigorrak** (% 48), **begiak estaltzea eta kaputzak jartzea** (% 36), **erredurak edo ebakiak** (% 26), **muturreko posizioetan zintzilikatzea** (% 16), **uretan sartuta itotzea** (% 15), **gorputzean elektrizitatea ematea** (% 12), **lan behartua** (% 10), **animaliak erabiltzea** (% 8), **poltsa erabiliz itotzea** (% 5), **mutilazioak** (% 3) eta **muturreko tenperaturak** (% 3).
- Emakume sahararren aurka erabilitako **tortura psikologikoen** artean honako hauek ditugu: **irainak** (% 95), **mehatxuak** (% 90), **beste batzuei**

egindako torturak ikustera edo entzutera behartzea (% 55), loa eragozteak (% 37), elikagairik ez edo gutxiegi ematea (% 34), baldintza osasungaitzak edo higienarik eza (% 34), inkomunikazioa (% 34), senideei buruzko kalumniak (% 27), pilaketa (% 23), banakako isolamendua (% 22) eta senideak hiltzeko mehatxuak (% 19). Praktika horiek pertsona emozionalki ezegonkortzeko helburua dute; muturreko oinazea eragin nahi diote, haren buru-gaitasunak eta nortasuna kaltetuz.

- Emakume sahararren % 68k **sexu-indarkeria** pairatu dute Marokoko segurtasun indarren eskutik. Identifikatutako sexu-indarkeria motak honako hauek izan dira: **eskukatzeak eta ukituak** (% 76), **biluztera behartzea** (% 51), **sexu edukia duten hitzeko erasoak eta/edo burlak** (% 51), **kolpeak bularretan eta/edo genitaletan** (% 51), **sexu-bortxaketako mehatxuak** (haiei edota senideei) (% 27), **torturak haurdunaldian** (% 13), **abortu behartuak** (% 9), **beste pertsona baten aurkako sexu-indarkeria ikustea edo entzutea** (% 5), **sexu-bortxaketa** (% 4), **sexu argazki behartuak** (% 4), **deskarga elektrikoak bular eta/edo genitaletan** (% 4), **sexu-esklabotza** (% 2), **sexu-bortxaketak objektuak erabiliz** (% 2), **sexu-mutilazioak** (bularrak, genitalak) (% 2) eta **antzutze behartua** (% 2). Delitu horiek guztiak emakume helduek zein neskek eta emakume gazteek pairatzen dituzte. Hala, gizateriaren aurkako krimen horren erabilera etengabea izan da okupazioa 1975ean hasi zenetik eta honako hauek dira sexu-indarkeria tasa altuena izan duten aldiak: 1985-1989 (% 17), 2005-2009 (% 17) eta 2015etik aurrera (% 25). Delitu horren benetako zenbaterainokoa ikerketan erregistratutakoa baino handiagoa izan daitekeen arren, Marokoko erregimenak emakume sahararren aurka erabiltzen duen sexu-indarkeriaren hedapena eta sistematikotasuna erakusten dute jasotako emaitzek.
- Emakume sahararren % 91 **askatasun eta segurtasun pertsonalaren aurkako eraso**en biktima dira. Hona hemen erregistratutako delituak: **jazarpena eta zelatatzea** (% 81), **adierazteko** (% 81), **biltzeko** (% 78), **zirkulatzeko** (% 78) eta **elkartzeko** (% 57) askatasunen urraketa, **egoitzaren bortxatzeak** (% 69), **bidegabekeria fisikoak** (% 65), **bahiketak** (% 42), **ondasunak suntsitzea** (% 39), **difamazioa** eta izen onaren aurkako erasoak (% 36), **telefono-entzuketak** eta/edo postan eskua sartzea (% 31), **ondasunak kentzea edo konfiskatzea** (% 27), **espetxeratze arbitrarioak** (% 9), **atxiloketa arbitrarioak** (% 8), **salaketa faltsuak** (% 4) eta **dibortziaztera behartzea** (% 1).

- **Lekualdatze behartuak** elkarriketatutako emakume sahararren %27 rieragiten die. Giza eskubideen urraketa hau Tindufeko (Aljeria) kanpamentuetako errefuxiatuekin lotuta dago, baina Mendebaldeko Sahara okupatuan bizi diren sahararrei ere eragiten die, zenbait kasutan lekualdatutako pertsonen senide gisa, baina baita biktima zuzen gisa ere. Lurralde okupatuetao lekualdatze behartuarekin lotutako egitateen karakterizazioak honako hauek identifikatzen ditu: **birkokatzeak** (% 77), **lekualdatze behartu kolektiboak** (% 59), **kanporaketak** (% 36), **konfinamenduak** (% 32), **lekualdatze behartu indibidualak** (% 32) eta **familiarrak** (% 14), eta **bonbardaketak** lekualdatze behartuetan zehar (% 14).
- Emakume sahararren % 53k eskubide ekonomikoaren urraketak salatzen dituzte, hala nola **lan-diskriminazioa** (% 49), **lan-jazarpena** (% 23), **lan egiteko debekua** (% 21), **justifikaziorik gabeko kaleratzeak** (% 16), **soldaten izozketak** (% 12), **lan-prekarizazioa** (% 12), **bizirauteko baliabideak kentzea** (lurraldeko baliabide naturalak) (% 7), **lan-baimenak ukatzea** (% 7), **diru-laguntzak kentzea edo kentzeko mehatxua egitea**, esate baterako Sustapen Nazionaleko Txartela (% 7). Errepresio ekonomikoak batez ere saharar herriaren eskubideak babesteko jardueretan parte hartzen duten emakume sahararrei eragiten die. Marokoren okupazio-politikak saharar herritarren bazterketa sozio-ekonomikoa eta lanekoa sustatzen du, batez ere emakumeei dagokienez. Hala, emakume gehienek (% 59) ez dute inolako diru-sarrerarik hilean eta horrek, jakina, beren biziraupenaren funtsezko alderdietan eragiten du, hala nola oinarritzko elikagaien saskia lortzeko aukeretan edo beren autonomia pertsonaleko mailan.
- Emakume sahararren % 75k oso kaltetuta ikusten dituzte haien **eskubide sozialak**, batez ere **osasun eta hezkuntza** eskubideak. Datuen arabera, sarriago, emakumeek **diskriminazioa** pairatzen dute **arreta medikoan** (% 56) edo **arreta medikoa ukatzen** zaie (% 56). Maiz ere, **eskola-jazarpena** ikusten da (% 43) eta horren atzetik ikastetxetik **kanporatzeko mehatxuak** (% 18) edo **kanporatzeak** (% 11) ere. Eskola eremuan beste indarkeria hauek ere ematen dira: **zigorrak** (% 15), **notak beharantz faltsutzea** (% 15), **eskola uztera behartzea** (% 13) eta **bekak ukatzea** (% 7).
- **Eskubide kulturalen urraketek** oso eragin handia dute emakume sahararren artean (% 91). Errepresio kulturala hainbat modutan agertzen da: saharar **etxebizitza tradizionalak** (jaimak) **debekatzera** (% 86), **saharar nazioaren**

sinboloak eramatea eta erakustea debekatzea (% 80), saharar jantzi tradizionalak eramateagatik mehatxatzea (% 66), sahararren historia eta identitatea ukatzea (% 58), jaioberriak saharar izenekin erregistratzea debekatzea (% 51), saharar jantzi tradizionalen erabilera debekatzea (% 43), hassaniaz hitz egiteagatik mehatxu egitea edo jazartzea (% 30) edota hassaniaz hitz egitea debekatzea (% 23). Azkenik, emakumeen % 7k, okupazioan zehar pairatu duten **akulturazio behartua** salatzen dute.

- Giza eskubideen urraketen **erantzuleei** dagokienez, emakume sahararren % 75k marokoar segurtasun indarrak aipatzen dituzte erantzule gisa. Haien artean honako hauek ditugu: polizia (% 64), inteligentzia-zerbitzuak (% 25), indar laguntzaileak (% 18), armada (% 11) eta jendarmeria (% 7). Sarri askotan, agente marokoarrek zibilez jantzita jarduten dute eta biktimek zenbait indarren arteko operazio bateratuak aipatzen dituzte. **Emakumeen % 69 biktinario zuzenak identifikatzeko gai dira**; guztiak gizonak dira eta, orokorrean, lurralde okupatuan bizi dira. Erantzukizun nagusia Marokoren segurtasun indarra bada ere, zenbait kasutan, kolono marokoarren laguntza izaten dute –egiteagatik edo ez egiteagatik–. Hala, biktimek marokoar zibilen parte hartzea aipatzen du indarkerian (% 21), batez ere askatasun eta segurtasun pertsonalaren aurkako erasoetan eta lan, osasun, hezkuntza, kultura-identitate eta justiziarako sarbiderako eskubideen urraketetan. Biktinario zuzenez gain, lekukotzek giza eskubideen urraketetan nazioarteko eragileek dituzten erantzukizunak ere aipatzen dituzte, errepresioaren aurrean isilik egoteagatik eta Marokoko erregimenarekin duten konplizitateagatik.
- Ikerketa honetan dokumentatutako giza eskubideen urraketen **ondorioek** izaera fisikoa, psikologikoa, emozionala, familiarra eta sozio-ekonomikoa dute. Indarkeriaren inpaktuak, maiz, kronifikatu egiten dira, **horien larritasunagatik** eta gertatutakoaren osteko **arreta mediko eta/edo psikosozial faltagatik**. Gainera, **ondorio mugatzaileak edo desgaitzaileak** izan ditzakete emakumeen bizitzaren dimentsio batean edo gehiagotan.
- Emakumeen % 91k **ondorio fisikoak** dituzte: **min kronikoa** (% 70), **loaren alterazioak** (% 59), **gaixotasunak** (% 57), askotariko **zauriak** (% 54), **elikaduraren alterazioak** (% 39), **desgaitasun** fisikoa edo sentsoriala (% 38), **ospitaleratzeak** (% 32), **hausturak** (% 28) eta **ugalkortasuna galtzea** (% 16).

- Halaber, emakumeen % 84k ondorio psikologiko eta emozionalak dituzte, hala nola **beldurra** (% 93), **depresioa** (% 35), **pentsamendu negatiboak** (% 29), **autoestimua galtzea** (% 9), **lotsa** (% 3), **suizidio-pentsamenduak** (% 1) eta **bizi-proiektua zapuztuta** izatearen sentimendua (% 1). Beste ondorio psikologiko hauek ere aipatzen dituzte: **atsekabea senideak galdu izanagatik** eta **umiliazio** sentimendua eta **harrotasuna** eta **duintasuna kaltetuta** izateko sentimendua.
- Gainera, emakumeen % 74k **ondorio familiarrak eta sozio-ekonomikoak** aipatzen ditu, hala nola **pobretzea** eta **bizi baldintza materialak hondatzea** (% 75), **hezkuntza-aukerak galtzea** (% 60), **familia banatzea** (% 10), **estigma soziala** (% 5) eta **aintzatespen soziala galtzea** (% 2) eta **sexu-harremanak kaltetzea** (% 2).
- Azaldutako indarkeria-mailen erdian, emakumeek haren inpaktuari aurre egiteko eta **beren burua sostengatzeko** erabiltzen dituzten zenbait mekanismo aipatzen dituzte. Honako hauek dira ohikoenak: **erlijioan babestea** (% 74), **familiaren ongizatea bilatzean arreta jartzea** (% 71), **familiaren babes afektibo eta materiala izatea** (% 51), **indarkeria salatzea** (% 48), **saharar herriaren eskubideak defendatzeko antolatzea** (% 42) eta **beren bizitzari zentzua ematea** (% 40), maiz saharar herriaren borroka politikoari lotuta. Emakumeen elkartetan antolatzea kasuen % 17n agertzen da, % 12k aitortzen dute **laguntza psikosoziala** bilatu duela. Azkenik, % 3k **isilik geratzea** erabaki dute indarkeriari aurre egiteko mekanismo gisa.
- **Biktimen justiziarako sarbideari** dagokionez, emakumeen % 78k **egitateak salatu dituzte** Marokoko administrazioaren zenbait instantziaren aurrean. Salaketak aurkeztu badituzte ere eta biktimario zuzenak oso identifikatuta dauden arren, **zigorgabetasuna erabatekoa da**: ez da epaiketarik egin giza eskubideen urraketetan inplikaturik dauden Marokoko segurtasun indarretako kideen edo kolonoen aurka. Ondorioz, emakume sahararrei justizia eskubidea *de facto* ukatzen zaie eta biktima gisa **erabateko babesgabetasun** egoeran daude.
- Marokok egindako giza eskubideen urraketan aurrean emakume sahararrek dituzten **erreparazio-eskaerak** askotarikoak dira. Horien artean, aipatzekoak dira neurri politikoak, hala nola **independentzia**, **lurraldea itzultzea** eta **okupazioa bukatzea**. Erreparazio sozio-ekonomikoko neurrien

artean (% 58) emakumeek **kalte-ordain ekonomikoa, lanerako laguntza, osasun-arreta eta hezkuntza arloko neurriak** eskatzen dituzte. Biktimei dagokienez (% 44), emakumeen aurkako **indarkeria prebenitzeko, biktimak babesteko eta horien memoriari buruzko neurriak eta arreta psiko-sozialeko neurriak** proposatzen dituzte. Arlo juridiko-legalean (% 36), emakumeek giza eskubideen urraketen **erantzuleak epaitzea eta biktimen birgaitze legaleko neurriak** ezartzea eskatzen dute. Marokoren indarkeria pairatu duten emakumeek ez errepikatzeko berme nagusizat argi eta garbi hartzen dute saharar herriaren **autodeterminazio eskubidea**, eta hori **independentziarekin** eta Marokoren **okupazioa bukatzearekin** lotzen dute. Eskatutako beste neurri batzuk dira **errefuxiatuak itzultzea eta preso politikoak askatzea**.





# Eranskinak





## 1. eranskina. Elkarrizketa fitxa

### Elkarrizketaren datuak

Lekukotzaren zenbakia:

Elkarrizketaren data eta lekua:

Elkarrizketaren iraupena:

Elkarrizketatzailearen izena eta sinadura:

### Biktimaren datuak

Izena	Abizenak
Beste izen edo ezizen batzuk	Nortasun agiria
Jaiotza data eta lekua	Gaur egun duen adina
Harremanetarako modua	Bizilekua

#### Egoera zibila

<input type="checkbox"/> Ezkonduta	<input type="checkbox"/> Ezkongabea	<input type="checkbox"/> Alarguna	<input type="checkbox"/> Dibortziatua	<input type="checkbox"/> Banandua
Seme-alabak ditu?		Zenbat?		
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez	<input type="checkbox"/> Emakume	<input type="checkbox"/> Gizon	

#### Hezkuntza-maila

<input type="checkbox"/> Ikasketarik ez	<input type="checkbox"/> Lehen-hezkuntza	<input type="checkbox"/> Bigarren-hezkuntza	<input type="checkbox"/> Batxilergoa	<input type="checkbox"/> Unibertsitate ikasketak	Beste bat (zehaztu)
Lanbidea			Gaur egungo lana		

#### Hileko diru-sarrerak (berek)

<input type="checkbox"/> 0 €	<input type="checkbox"/> 0 - 50 €	<input type="checkbox"/> 50 - 100 €	<input type="checkbox"/> 100 - 150 €	<input type="checkbox"/> 150 - 200 €	<input type="checkbox"/> 200 € tik gora
------------------------------	-----------------------------------	-------------------------------------	--------------------------------------	--------------------------------------	---

#### Erakunde batean parte hartzen du?

Izena	Mota	Horretan duen kargua/zeregina
Kasuari buruzko dokumentazioa ematen du? Bai __ Ez __		
Baiezkoan, zer dokumentu?		

#### BAIMEN INFORMATUA

Elkarrizketaren helburua ulertu du eta bere lekukotza modu libre eta boluntarioan ematea onartzen du? Bai \_\_ Ez \_\_

Elkarrizketa grabatzeko baimena ematen du? Bai \_\_ Ez \_\_

Bere identitatearen datuak edo irudiak argitaratzeko baimena ematen du? Bai \_\_ Ez \_\_

Elkarrizketatuaren sinadura

## Giza eskubideen urraketa motak

### 1. Bizitzeko eskubidea

Judizioz kanpoko exekuzioa
Judizioz kanpoko exekuzio kolektiboa (sarraskia)
Desagertze behartua
Bizitzeko eskubidearen aurkako eraso

### 2. Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker eta apalesgarriak

#### Tortura fisikoa

Kolpeak objekturik gabe	Eskarnio publikoa
Kolpeak objektuak erabiliz	Drogak erabiltzea
Begiak estaltzea eta/edo kaputzak jartzea	Erredurak edo ebakiak
Muturreko posizioetan zintzilikatzea	Gorputzean elektrizitatea ematea
Uretan sartuta itotzea	Animaliak erabiltzea
Poltsa erabiliz itotzea	Lan behartua
Zigorrak	Muturreko tenperaturak
Beste batzuk (zehaztu)	

#### Tortura psikologikoa

Banakako isolamendua	Irainak
Mehatxuak	Loa eragozte
Elikagairik ez edo gutxiegi ematea	Beste batzuei egindako tortura ikustea edo entzutera behartzea
Baldintza osasungaitzak edo higienetik eza	Senideei buruzko kalumniak
Pilaketa	Senideak hiltzeko (edo bestelako) mehatxuak
Inkomunikazioa	Musika karrankaria entzutera behartzea
Beste batzuk (zehaztu)	

### 3. Sexu-indarkeria

Sexu-bortxaketa	Sexu-bortxaketa objektuak erabiliz
Biluztera behartzea	Kolpeak bularretan eta/edo genitaletan
Sexu argazki behartuak	Deskarga elektrikoak bular eta/edo genitaletan
Beste pertsona baten aurkako sexu-indarkeria ikustea edo entzutea	Eskukatzeak eta ukituak gorputzean
Sexu-edukia duten hitzeko erasoak eta/edo burlak	Sexu-mutilazioa (bularrak, genitalak)
Sexu-esklabotza	Sexu-bortxaketako edo sexu-indarkeriako mehatxuak (berari edota senideei)
Prostituzio behartua	Antzutze behartua
Haurdunaldi behartua	Torturak haurdunaldian zehar
Pertsonen salerosketa sexu-esplotazioko helburuekin	Abortu behartuak
Beste batzuk (zehaztu)	

### 4. Askatasun eta segurtasun pertsonala

Atxiloketa arbitrarioa	Adierazpen askatasuna murriztea
Espetxeratze arbitrarioa	Biltzeko askatasuna murriztea
Bahiketak	Zirkulazio askatasuna murriztea
Jazarpena / Zelatatzea	Elkartzeko askatasuna murriztea
Telefono-entzuketa eta/edo postan eskua sartzea	Difamazioa, izen onaren aurkako erasoak (prentsan, sare sozialetan)
Egoitzaren bortxatzea	Salaketa faltsuak
Ondasunak suntsitzea	Ondasunak kentzea edo konfiskatzea
Dibortziatzea behartzea	Bidegabekeria fisikoak (indarkeriaz edo nagusikeriaz)
Beste batzuk (zehaztu)	

## 5. Lekualdatze behartua

Indibiduala	Familiarra
Kolektiboa	Konfinamendua
Kanporaketa	Birkokatzea
Pertsonen kontrako minak	Bonbardaketa

## 6. Eskubide ekonomikoak

Lan-diskriminazioa	Banku kredituak ukatzea
Lan-jazarpena	Sustapen Nazionaleko Txartela kentzeko mehatxua
Justifikaziorik gabeko kaleratzea	Sustapen Nazionaleko Txartela kentzea
Lan-baimenak ukatzea	Lan sustapenerako oztupoak
Lan egiteko debekua	Soldaten izozketa
Lan prekarizazioa	Sindikatuaren kide egitea debekatzea
Beste batzuk (zehaztu)	

## 7. Eskubide sozialak (hezkuntza, osasuna)

Eskola-jazarpena	Notak faltsutzea
Ikasketa-bekak ukatzea	Zigorrek eskolan
Eskolatik kanporatzeko mehatxuak	Eskola uztera behartzea
Eskolatik kanporatzea (aldi baterako edo betirako)	Arreta medikoa ukatzea
Diskriminazioa arreta medikoan	
Beste batzuk (zehaztu)	

## 8. Eskubide kulturalak

Mehatxuak edo jazarpena jantzi tradizionala erabiltzeagatik	Saharar izenekin erregistratzea debekatzea
Jantzi tradizionalen erabilera debekatzea	Etxebizitza tradizionalak (jaimak) debekatzea
Mehatxuak edo jazarpena beren hizkuntza erabiltzeagatik	Saharar nazioaren sinboloak erakustea debekatzea
Beren hizkuntzaren erabilera debekatzea	Beren historia eta identitate kulturala ukatzea
Beste batzuk (zehaztu)	

### Giza eskubideen urraketen mota, lekua eta data jasotzeko taula

Urraketa mota (Seinalatu X batez)	Lekua (Non gertatu zen)	Data (Urtea/hila/eguna; gogoratzen dena)
1. Bizitzeko eskubidea		
2. Tortura eta bestelako tratu krudel...		
3. Sexu-indarkeria		
4. Askatasun eta segurtasun pertsonala		
5. Lekualdatze behartua		
6. Eskubide ekonomikoak		
7. Eskubide sozialak		
8. Eskubide kulturalak		

### Erantzuleak

Indarkeria-egitateen erantzulea ezaguna da? Bai \_\_ Ez \_\_

Sexua: Gizona\_\_ Emakumea\_\_

Zer izen du?

Ba al du beste izenik edo ezizenik?

Erantzulea ezaguna bada, ba al daki zein taldetan zegoen egitateak gertatu zirenean?

Polizia
Armada
Inteligentzia zerbitzuak
Indar laguntzaileak
Jendarmeria
Zibilak
Beste batzuk (zehaztu)

Ba al daki zer kargu zuen egitateak gertatu zirenean?

Ba al daki gaur egun non dagoen?

## Indarkeriaren ondorioak

### Ondorio fisikoak

Hausturak	Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala
Min kronikoa	Ospitaleratzeak
Heridas	Gaixotasuna
Adikzioak	Ugalkortasuna galtzea
Elikaduraren alterazioak	Loaren alterazioak
Beste batzuk (zehaztu)	

### Ondorio psikologiko eta emozionalak

Depresioa	Pentsamendu negatibo errepikatuak
Autoestimua galtzea	Suizidio-pentsamenduak
Beldurra	Bizi-proiektua zapuztua
Lotsa	
Beste batzuk (zehaztu)	

### Ondorio familiarrak eta sozialak

Estigma soziala	Maitasun harremanetan (banantzea, abandonatzea)
Hezkuntza aukerak galtzea	Sexualitatean
Baldintza ekonomikoak hondatzea (pobretzea)	Aintzatespen soziala galtzea
Beste batzuk (zehaztu)	

### Indarkeriari aurre egiteko mekanismoak

Salatzea	Ez hitz egitea
Familiar arreta jartzea	Bizitzari zentzua ematea
Erlijioan babestea	Eskubideak defendatzeko antolatzea
Laguntza psikosoziala bilatzea	Emakumeen elkarreetan antolatzea
Familiaren babes ekonomikoa eta afektiboa	
Beste batzuk (zehaztu)	



## Justiziarako sarbidea

Egitateak instituzio baten aurrean salatu ziren? Bai\_\_ Ez\_

Zein instantziaren aurrean?

Marokoko agintaritza	IER (Maroco)	Giza Eskubideen Batzorde Nazionala (Maroko)	Auzitegi Nazionala (Espainia)	Desagertze behartuei eta gogoz kontrakoei buruzko lantaldea (NBE)	Torturaren aurkako batzordea (NBE)	Beste batzuk (zehaztu)
----------------------	--------------	---	-------------------------------	---	------------------------------------	------------------------

Egitateak agintari judizial batek ikertu zituen edo ikertzen ari da?

Bai\_\_ Ez\_\_ Ez daki\_

Baiezkoan: Zer agintarik?

Zer erantzun jaso zuen?

## Erreparazioa

Neurri politikoak

Biktimei laguntzeko neurriak

Neurri juridiko-legalak

Beste batzuk (zehaztu)

Neurri sozio-ekonomikoak

Ez errepikatzeko zer berme proposatzen du?

## Azken oharrak (elkarrizketatzailea)

## **2. Eranskina. Elkarrizketaren gidoia**

- Aurkezpena
- Elkarrizketaren helburuaren eta prozedura azaltzea
- Baimen informatua

### **1. Indarkeria egitateak eta horien erantzuleak**

Zer gertatu zitzaion?

Noiz?

Non?

Nor izan zen edo izan ziren erantzuleak?

Zergatik uste du gertatu zela?

### **2. Indarkeriaren ondorioak**

Nola eragin zion gertatutakoa (fisikoki, psikologikoki)?

Familia eta gizarte mailan zer aldatu zen bere bizitzan?

### **3. Aurre egitea/suspertzea**

Nola egin die aurre ondorioei?

### **4. Justiziarako sarbidea**

Gertatutakoa salatu zuen? Baiezkoan, zer gertatu zen gero?

Egitateak ikertu dira?

Zer erantzun jaso zuen?

### **5. Erreparazioa**

Zer behar du egindako mina konpontzeko (neurri batean behintzat)?

Nork egin behar du?

Zeintzuk dira bere eskaerak gertatutakoa errepika ez dadin?



Txosten honek Marokok Mendebaldeko Sahara okupatuan emakumeen aurka egindako giza eskubideen urraketak dokumentatzen ditu. Adin guztietako emakume sahararrekin egindako 81 elkarrizketa sakonetan oinarritzen da ikerketa. Emakume horiek Marokoren errepresioaren biktima izan dira eta beren lekukotzek indarkeria sistematiko, etengabe eta zigorgabeko patroiak erakusten dituzte, okupazioa hasi zenetik haien aurka erabili izan direnak eta haien bizitzan ondorio latzak eragin dituztenak. Lan honen helburua gertatutako guztia argitara ateratzen laguntzea da, saharar herriaren eskubideen defentsarako ezinbesteko ariketa gisa.